



ttipi-ttapa

Xabier MINDEGIA



Kañamaren aurka
aizkora apustua
jokatuko du → 56

2012ko otsailaren 9a | XXXII. urtea | 559. zenbakia

www.ttipi.net

Inauteriak

Herriz herri mozorro besta

BERTSOLARITZA → 10

Nafarroako Taldekako
Txapelketa abian

ARANTZA → 26

Pirritx, Porrotx eta Mari
Motots Pelle Ttikiren alde

LEITZA → 42

Lau urteko prozesuaren
ondotik Ibero herriarena

BAZTAN → 50

Kintoko desafektazioa
eztabaidaren erdian



Erremontea uztea erabaki du Miel Mari Urrutiak

Ez du baztertu egunen batean berriz erremontean jokatzea, baina oraingoz, «arrazoi pertsonalak» tarteko, Mexikora bizitzera joatea erabaki du.

→ 36

ERREPORTAJEA → 4-5

Aspace, garun-perlesia dutenei laguntzen urteak daramatzen elkarteak



Hainbat zerbitzu
eskaintzen ditu
Baztan-
Bidasoaldean

Nafaa SALEM | Donezteben bizi den sahararra

«Saharar herriak borrokan segitu behar du»



Saharar herriak errepublika
aldarrikatu zuela 35 urte beteko
dira aurten. Hori gogoan,
elkartasun eguna
eginen da Sunbillan
hilaren 24an.

→ 3

IGANTZI → 27

Nafarroako
bi xake jokalaria
onenak Igantzin
izanen dira
otsailaren 26an.
Eskualdeko
xakezale guztiak
gonbidatu
dituzte.

ZUNZARREN

AUTOESKOLA
GESTORIA

CAP ikastaro jarraia

ELIZONDON EGIN DAITEKE, Iruñera joan gabe
Asteburuetan edota astetartez



MOTA GUZTIETAKO GIDA BAIMENAK

Autoaren gidabaimena ateratzeko eskaintza zabala
Euskaraz eta gaztelaniaz

TEORIKOA 4 EGUNETAN



ASEGURUEN TRAMITAZIOA | ASEGURU-ETXE DESBERDINAK | GARRAIO TXARTELAK | TRANSFERENTZIAK

T. 948 580 607
M. 607 762 629 (Mari Joxe)
Braillo Iriarte • ELIZONDO



Inguru honetako etxe guztietan
zure negozioaren
berri izatea nahi baduzu,
jar zaitez gurekin harremanetan
eta milaka pertsonak
irakurriko dute
zure anuntzioa

Den-dena eskura eduki nahi baduzu,
Ttipi-Ttapa**KO TELEFONO GIDA**n
aurkituko dituzu inguruotako telefono guztiak:
profesionalak, komertzioak, lantegi eta zerbitzuak,
partikularren telefonoak... Denak.
Informazio osoa goltik behera gaurkotua,
erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago anfolatua

Publizitatea kontratatzeko azken epea: **apirilak 13**

TELEFONO GIDA 2012

Tel. 948635458 | e-posta: publi@ttipi.net
Anduetzeta 12, 31760 ETXALAR

 ttipi-ttapa

Aljeriako Tindouf eskualdeko desertuan dagoen errefuxiatuen kanpamentua utzi, eta duela bortz urte etorri zen Nafaa Salem (Sahara, 43 urte) Doneztebera. Saharaztan elkar-

tearen *Udako oporrak bakean* proiektuarekin, bere alabetako bat udan etxean hartu izan du harrera familia batek eta familia horren bidez ailegatu zen gure artera, gaixorik duen alaba

bat hemen sendatzeko itzaropenez. Sendatze prozesua luzerako izan daitekeenez, lana bilatu eta hemen gelditzea erabaki du. Gaur egun, emaztea eta bortz alabekin bizi da.

Nafaa SALEM | Donezteben bizi den sahararra

«Ezin dugu min gehiago jasan, saharar herriak borrokan segitu behar du»

G. PIKABEA | DONEZTEBE

Zein egoeratan daude Sahara okupatuan?

Izenak nahikoa erraten du. Ez dute eskubide politiko eta zibilik. Zanpatsuak bizi dira, askatasunik gabe eta lan eta etxebizitza duin bat lortzen azkenak dira. Komunikabideek ez dute sarbiderik, baina han izan direnek kartzela dela diote.

Eta kanpamentuetan?

Saharako errefuxiatuak joan arte hor ez zen inor bizi, indigenentzako ezinezkoa zelako. Baina sahararrak behartuak zuden. 1975ean Espainiak Mendebaldeko Sahara Maroko eta Mauritaniari utzi zientetik, nazioarteko laguntza humanitarioei esker bizi dira. Erakunde aktiboak badira Europan, baina Marokok, Frantziaren babesarekin, Saharak Europarengandik lortzen duen laguntza geldiarazi nahi du. Aldi beretan, Fronte Polisarioa ahal den guztia egiten ari da baldintza horietan bizitzeko guttieneko bat izan dezaten. Ahalik eta gehien jasan behar dugu, helburua lortu ahal izateko: independentzia.

Zertan ari da Espainia?

Espainia ofiziala desesperagarria da. Espainiar herria, aldiz, bertzelakoa da, eta beraien laguntzari esker biziraun dugu. 1975-era arte Espainiako okupazioaren menpe ia ehun urte bazituen Saharak,



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Nafaa Salem Doneztebeko bere etxean, tea prestatzen.

eta horietatik 30 urte Espainiako probintzia gisa. 1975ean, Fronte Polisarioaren eta Nazio Batuen presioarekin, erreferenduma antolatu nahi izan zen, espainiar hiritar ala independente izan nahi genuen galdetuz. Baina bat batean, Espainiak akordioa sinatu zuen Maroko eta Mauritaniarekin Mendebaldeko Sahara beraiei uzteko. 1975eko akordioak deklaratu gabeko alderdia du sekretuan, ekonomikoa. Urte luzez borrokatu ondotik, Mauritaniak amore eman zuen, baina Marokok ez. **1991n konponbide bakesurako su-etena hitzartu zuten bi aldeek...**

SAHARAR HERRIA BANATUA

«Sahararrak lau zatitan banatuta gaude. **Batzuk Marokoren menpe Sahara okupatuan; bertze zati bat liberatutako eremuetan; Marokoren inbasioetatik ihes egin zutenak errefuxiatuen kanpamentuetan daude; eta laugarren zatia, kanpoan»**

ALDARRIKAPEN EGUNA

Otsailaren 27a Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoaren aldarrikapen eguna denez, hilaren 24an ekitaldiak antolatu ditu Saharaztanek Sunbillan.

Alde aunitz daude. Bateatik, Nazioarteko Komunitateak ez du nahikoa egin. Irakek Kuwait hartu zueanean, bi egunez arazoa konpondu zen eta hementia 200 urte badira antzeko kasua konpondu ezinik. Bigarren alde Espainia da. Nazioarteko legegaren arabera, lurraren arduradun administratiboa izaten segitzen du baina eskuak garbitu bertzerik ez ditu egin. Espainiak lehenbailehen konpondu behar du Sahararekin egin zuen traizio historikoa. Guttienez, Marokori armak ez saltzeko, Saharako baliabide naturalak ez ustiatzeko eta etsaia ez babesteko es-

katzen diogu. Eta aldeantzez egiten du. Hirugarren frentea gu gerone gara. Faktore aunitz izan ditugu aurka baina herriaren borroka aipatzekoa da. Gure lurraldeko zati haundi bat liberatzea lortu dugu AEB, Frantzia, Espainia eta Arabiar herrialdeen babesarekin duen Marokorekin su-etena ere sinatu zen 1991n eta hurrengo puntua erreferenduma zen: sahararrak ala marokorak izan nahi dugun. Baina ez da egin. Fronte Polisarioak aukera bat baino gehiago eman dizkio Marokori: erabateko integrazioa, independentzia edo autonomia eta azkenaren alde egin du. Baina monarkia absolutuaren barne, autonomia infernua da. **Beraz, zein da bidea?** Negoziatzeko nahikoa denbora pasatu da eta ez da deus ere egin. Gehienon ustez, zerbait egiteko ordua da. 1975ean, Maroko sahararrak bonbardatzen hasi zenean, Nazioarteko Komunitateak ez zuen deus erran. Eta guri, zanpatuoi, zerbait egitea tokatu zaigutuean, terroristak garela erraten digute. Armekin okupatu gintuzten, erdiak hil zituzten, milaka umezurtz utzi, milaka ezindu... Ezin dugu min gehiago jasan. Saharar herriak armak hartu behar ditu eta borrokan segitu.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA
Berako Uxane okupazio zentroan ari diren 18 lagunak eta arduradunak.

GIZARTEA → ASPACEREN ESKUTIK BAZTAN-BIDASOALDEAN

Garun-perlesia dutenek lana eta etxebizitza eskura daukate gurean

Hamar lagun bizi dira Berako Maddi erresidentzian

Beran, garun-perlesia eta antzeko arazoak dituen jendearekin 1977tik ari dira lanean Uxanen. XXI. mende hasieran, okupazio zentro horren osagarri modura, gaitasuna zuten pertsonen lan

egiteko eta bizitzeko zentru bana irekitzea zen Uxaneren helburua. Xede horiek betez, 2002an, Lesakako Enplegu Zentro Berezia inauguratu zen eta 2007tik Maddi Erresidentzian bizi dira 10 lagun.

Aitor AROTZENA

Garun-perlesia eta antzeko aldaerak dituzten pertsonak laguntzeko Nafarroako Elkar-
te, Aspace Navarra, 1971ko apirilaren 14an sortu zen Iruñean.

Beran, 1977an sortu zen Uxane, Isabel Pardo arduradunak ai-

patu digunez. Garun-perlesia zutenen senideak mugitzen hasi ziren Gipuzkoako Aspacerekin lehenik, baina Nafarroako Gobernuak eskaintzen zituen laguntzak ezin zituzten eskuratu eta Nafarroako Aspacen sartu ziren, 1978tik aitzinera. Hasieran

hezkuntza bereziko zentroa zen eta haur ttikiak izaten zituzten. Baina arazo hauek dituzten ikasleak ikastetxe arruntetan integratzeko legea egin zen 1989-90 ikasturtean eta orduan eskola publikora pasatu ziren eta Uxane okupazio zentro bihurtu zen.

Gaur egun, Berako Uxane Okupazio Zentroan hemezortzi lagun ari dira. Gehienek ez dute lanpostu arrunt baten aritzeko aukerarik, baina egunkari baten enkuadernazioak eta Alcorendako muntaia lanak egiten dituzte. Uxaneko helburuetako bat, etorkizunean Enplegu Zentro berezian sartzeko lan gaitasunak garatzea da, lan taldean aritzea, lanarekiko ar-
dura, puntualitatea... Bertze helburu bat eguneroko bizitzan ezgaitasuna duten pertsonen autonomia sustatzea litzateke, eguneroko bizimoduaren suertatzen diren zenbait egoera landuz, «sukaldaritza, ingurua garbi eta txukun mantentzeko aktibitateak, karrikan ibiltzeko gaitasuna lantzea... Azken helburua, beraien integrazio soziokulturala bultzatzea litzateke. «Horregatik zentroa herri erdigunean dago eta burutzen

diren zenbait jarduera herriko hainbat instalazio erabiliz egiten dira, beti ere normalizazioa bilatuz». Honela, igeriketa Lesakako kiroldegian egiten dute, gimnasia Berakoan, antzerkia Berako Kultur Etxean, kultur jardueratan parte hartzen dute...

MADDI ERRESIDENTZIA ETXEBIZITZA FUNZIONALA

2007an zabaldu zen Berako Maddi Erresidentzia etxebizitza funtzionalak hamar bizilagun ditu egun. Itziar Igoa zuzendariak aipatu digunez, «etxebizitza funtzionalizat hartzen da urritasunak dituzten pertsonak elkarrekin bizi diren etxebizitza, harreman eta elkarbizitza dinamikak familia izaerakoak direnean». Maddi Berako herrigunean dago, Osasun Zentroaren gaineko bi pisuetan, «erabiltzaileen integrazioa herrian bultzatzeko. Zerbait behar dutenean dendara joa-

UXANE OKUPAZIO ZENTROTIK ABIATU ETA ASPACEK BAZTAN-BIDASOALDEAN ESKAINTZEN DITUEN BERTZE ZERBITZUAK



GARBIKETA-LOREZAINZA BRIGADAK

Zortzi laguneko lan taldea ari da karririk garbitzen eta lorezaintza zerbitzua eskaintzen

Garbiketa eta lorezaintza brigaden zerbitzua, 2005. urtean sortu zen. Garai hartan, Lesakako Enplegu Bereziko Zentroak kanpoko enpresetatik hartzen zituen zenbait lan egiteari utzi zion, bertako langile guzti-entzat lanik ez izatea bultzatuz. Beraz, Aspace irtenbideen bila hasi zen, eta Zerbitzu arloko zenbait lanetan hastea erabaki zuen. Horregatik, Berako eta Lesakako udaletxeek prestatutako zenbait lehiaketetan parte hartzen hasi zen, eta aipatutako urtean, lorezaintza eta garbiketa lanak egiteko kontratua eskuratu zuen. Orain, berdeguneak eta lorategiak mantentzea eta zuhaitzak kimatzeko lanak egiten ditu, baita kanposantuak mantentzea eta karririk mantentzea ere. Honetaz gain, Arce-lor Mittal lantegiko garbiketa, Funverako pasabideen garbiketa, Elizondo eta bertze zenbait herrietako mantenu eta lorezaintza eta norbanakoek eskatutako lorezaintza zein mantenu lanak egiten dituzte. Zortzi laguneko lantaldea da eta batek izan ezik, gainontzeko guztiak dute ezgaitasunen bat. Izan ere, zerbitzu honek bi helburu ditu: ez gaitasuna duten pertsonak enplegu normalizatu batean sartzea bideratu eta, bertetik, karrikan lan egiten dutenez, gizarteak gai honekin duen sentsibilitatea handitzen du. Diru-laguntzaz gain, Maddi erresidentzia, Uxaneko obrak, nahiz brigadetak kamioia eta garajea erosteko Etxalarko Patxi Barandiaran *Exkuturen* aportazioa nahitaezkoa izan da. Laguntza eskertzeko, bere emazte zen Maddi Txoperenaren izena jarri zaio Erresidentziari.



LESAKAKO ENPLEGU ZENTRU BEREZIA

Hamar langile eta bi arduradun, ikuztegi industrialaren lanak egiten Lesakan

Lesakako Enplegu Zentro Berezia 2002ko ekainean inauguratu zen. 10 langile eta 2 arduradunekin hasi zen eta hamar urte beranduago ere plantilla bera dauka lanean. Baina izan da aldaketarik. Juanma Aranibar arduradunak aipatu digunez, «aldaketarik nabarmenena ibilgailuekin zerikusia zuten lanak egiteak, garbitegi edo ikuztegi batean lanean aritzea izan da. Hasiera batean autoen piezak egiten genituen, hainbat pieza montatzen eta modu horretako lanak egiten ziren. Gaur egun garbitegi batean gaude». Izan ere, zuzendaritzak ibilgailuen industriaren menpe ez egotea eta zerbitzuetako lan sektorerara pasatzea erabaki zuen. «Gaur egun gauzak nola dauden ikusirik, erabakizuzena hartu zela pentsatzen dugu», dio Aranibarrek. Duela hiru urte, enplegu zentro bereziak krisialdi garrantzitsua pasa zuen, baina Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin posible izan zen segitzea. Gaur egun ere, bertze esparruetan bezala, egoera ez da ona, baina oraingo lanean segitzen dute. Langileek aunitz baloratzen dute bere lana, «bakoitzaren ahalmena eta trebetasunera egokitzen saiatzen baikara –aipatu digu arduradunak–. Lana egin eta diru-saria lortzea normahirentzat garrantzitsua baldin bada, ezintasuna daukan pertsonentzat oraindik garrantzitsuagoa da. Horrek, independentzia ekonomikoa emateaz gain, gizarteratzen laguntzan baitie gure langileei». Bezeroen aldetik ere, orain arte ez dutela kezarik eduki jakinarazi digu Aranibarrek, «eta horrela segitu nahi genuke».



LEKAROZKO BAZTAN ATERPETXEA

130 lagunendako aterpea eskaintzen duen eraikinean hogeit langile ari dira Lekarozen

Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak eta Aspacek 2003ko maiatzaren 2an sinatutako kontratuaz geroztik, azken erakunde honek kudeatzen du Lekarozko Kolegioan dagoen gazteen aterpea. Aspace izan zen, hain zuzen, lehiaketa irabazi zuen enpresa. 16 lagunekin hasi ziren lanean orduan, baina Patxi Zamora arduradunak aipatu digunez, «gaur egun 20 lagun ari gara eta hiru sukaldarietatik bi eta zuzendaria izan ezik, gainerako guztiak badaukagu ezintasunen bat, ez halaberrez garun-perlesia, baina bai bertze lanetan aritzeko zailtasunak». Hortaz, Enplegu zentro berezia da Lekarozkoa ere. 130 lagunendako aterpea eskaintzen da Lekarozen, jangela, kafetegia, 45 metro koadroko logelak sei ohatzerekin baita bainugela duten logela bikoitzak ere. Gainera, aterpeaz gain, Balleko Etxeko, udal liburutegiko, kultur etxeko eta komuna publikoetako garbiketa lanak egiten dituzte. Gazteen Aterpetxea izan arren, nahi duen orok badu lekua, eta «familiak, errugbi taldeak, ikasbidaletako ikasleak, denetarik izaten dugu, Errealeko jubenilak ere izan ditugu udan, aurrendenboraldia prestatzen», dio Zamorak. Okupaziorik handiena uztaila eta abuztuan izaten dute, «baita Aste Santuan eta udaberriaren egiten den Aste Berdean ere», Ana Rivas zuzendariak jakinarazi digunez. Garai batean Iruñaldeko langileak ere aritu ziren Lekarozko aterpetxeko enplegu zentro berezian, baina «gaur egun guztiak Baztan aldekoak» direla aipatu digu Patxi Zamorak.

ten ahal dira erostera. Hasieratik garbi zegoen ezin zela bazter batean edo auzo batean egin eta ikustezinak bihurtu», aipatu digu Igoak. Honela, eskualdean dau-

den baliabideekin koordinazioa eta laguntza errazten du, izan osasunerbitzuak, gizarte arlokoak, kultur jarduerak, aisialdikoak... 18 eta 65 urte arteko helduentza-

ko 16 leku ditu Maddik, nahiz eta gaur egun 10 lagun bizi diren. Urteko 365 egunetan dago zabalik, zortzi langilerekin. Berako Uxanen okupazioa eta Maddin etxe-

bizitza baldin badute, Lesakako Enplegu Zentro berezian, brigadetan eta Lekarozko aterpetxean soldatapeko lanerako aukera dute bertze lanbideetan ari-

tzeko zailtasunak izan lituzketen 30 pertsonak. Aunitz gelditzen da egiteko, baina pertsona hauen oinarritzko premiak asetzen dira, modu honetan.



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Ze arraroa...

Ez dute gure mintzaira xaharra maite. Arrotza da haietako anitzendako, nahiz eta bizitza osoa inguruan sumatu. Eta gu ere arrotz bihurtu nahi gaituzte geure etxean. Aldizkariak, irriatiak eta telebistak laguntzarik gabe itotzen eta hetsarazten. Euskalategi eta ikastolekin bertze horrenbertze. Honetakoa, krisiaren sos murrizketak aitzakia. Halere, ez da oraintzeko kontua; erraterako, 1991tik honat %60 jautsi dute euskalategien dirulaguntza. Buruzagiak erdal-dunak dira, eta gaztelania eta ingelesa hobesten dituzte, erromatarrek *linguae navarrorum* deituriko milaka urteko hizkuntza ez dute sostengatu nahi. Hain zuzen ere, erromatarren aztarnekin batera, museo batean nahiago dute, nonbait, hil berria den 'jakitate handiko jaun' batek erran bezala. Ondorioz, aspaldixkoko duda sozio-politiko-linguistikoko samina dut boterean direnei botoa ematen dieten euskaldunekin: haiek bezainbat gutxiesten ote dute geure ama hizkuntza. Halaxe ba, *Navarra, tierra de contrastes!*

«Ez dute gure mintzaira xaharra maite»

Ezpala
Aitor AROTZENA

Bardoak 2012


Bertsolarien garuna. Zientifikoen jarduna. Orain hizpide duguna. Kontrarioa laguna. Euskarari maitasuna. Hitz-jokoen ezintasuna. Sormenaren askatasuna. Pentsamenduen borobiltasuna. Neurriaren estutasuna. Errimen zailtasuna. Jendaurreko urduritasuna. Ekinez egindako ezintasuna. Konpetizioa edo ospakizuna. Txapelik gabeko txapelduna: Iritsi da eguna! Non dago komuna?

Nabarmentzekoak



Josu BALEZTENA
Erremontelari ohia omendua

Lesio baten ondorioz erremontea utzi behar izan zuen eratsundarrak, baina *Oriamendi 2010* enpresaren omenaldia eta eskertza jaso zuen urtarrilaren 26ko Erremontearen jaialdian.



Alex MUGIKA
Egile-ogitartekorik onena

Iaz Nafarroako Kaxula lehiaketa irabazi zuen sukaldari leitzarrak eta urtarrilaren 24an, *Egile ogitarteko* onenaren saria eman zioten Madril: txangurro eta antoxoaz egina zen *bokata*.



Mari Jose ERRANDONEA
Berako Larun Mendi Taldea

Nafarroako Gobernua-ren kiroletako Zilarrezko Domina eman diote duela ia 40 urtetik haur eta gazteen artean mendizaletasuna, eta honek bultzatzen dituen baloreak bultzatzeagatik.

Atzera begira → 2002.02.07 / TTIPI-TTAPA 319. zbk



Kalitateko Turismoa gure baserrietan

1991n Joxepi Mihura eta bere senarrak Urruska baserria landetxe bihurtu zuten. Garai hartan ez zekiten landetxeak bideragarriak izanen ziren ala ez. Hamaika urte beranduago euren bizia landetxearen inguruan antolatua zuten eta Kalitatearen Q Ziurtagiria lortu zuten, Baztango bertze bi landetxek bezala. «Badira landetxe hobeak, zerbitzu hobeak eskaintzen ahal dutenak, baina ez dute guk dugun ziurtasuna. Egunero egiten dugun guztia paperean idatzi behar izan dugu» zioen Joxepik. Urruskarekin batera, Anizko Jauregiak eta Bazateko Lizardiko Bordak lortu zuten Q Ziurtagiria duela hamar urte.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduetzeta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbi Klaber, Ainhua eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Alzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

500. urteurrena eta gaur

Juainas PAUL ARZAK

Infernuko Patxi existitzen denik ez baitut sinisten, kasualitateari eman beharko diot ardura. Kasualitate, ustekabe, txiripa? Patua, hobeki esanda, edo *destino* petrala, nahiago baduzu. Huskeriaren itxurarik ez, bederen.

Harira: dagoeneko asaldatur, kezkatua edo sine-tsita egonen zara.

1- Agian ziur zaude 1512an gaztelau-espainiarrek Nafarroako konkista burutu zutela euskaldunak zapaltzeko helburuarekin. Edo, borroka haietan, nafarrek, zentzu zabal batean gaztelauen laguntzarekin -giputziak, esate baterako-, frantsesez libratu gintuztela pentsatuko duzu, behar bada. Biak egia eta fedea? Posible ez denez, bata ala bestea. Salbuespenak -beti egoten baita baten bat- traidoretzat hartu..., eta listo! Duela 500 urte, bai modernoak zirela!

2- Zure egoera, kezkatua egotea litzateke, alde bietan argiak eta itzalak sumatzen dituzulako. Gerra zibilak -beaumontar eta agramondarren artekoak-, gatazka sozialak -jauntxo eta menpekoen artekoak- eta estatuen norgehiagokak elkartu zirelako. Neurri batean bada ere, gaur egungoarekin parekatu daiteke.

3- Asaldatur egon zaitezke bi aldetatik: ez duzulako deus ere ulertzen baino presioa sentitzen duzu eta bost axola zaizulako. Ederra duzu, oraindik! Edo sentidurik ez diozulako aurkitzen.

2012. Borroka 'historikoak' berak nabarmentzen du 500 urte ez direla deus. Are gehiago, hagitz gutti ikasi dugula erakusten du edo, hobeki esanda, ez dugula ikasteko gogorik. Muturka aritzea maite dugu, horretarako bidea prestatu behar bada ere.

UPNek goratu dezake nafartar-españolismo 'ez nazionalistaren' ikurra abertzale, euskaltzale, eta kalte-zale ugariak bildu-nahasiz. PPrekin bat eginez eta PSNren laguntzarekin *Navarra-no-es-Euskadi-ni-Euskal Herria* defendatuz. Historiaz ari gara?

Beste muturretik tiraka.

Errealitatea ulertzen saiatzen gara ñabardurak ukatuz? Orduan eta egun tipo bakarreko nafarra edo euskalduna pentsa dezakegu itsu-itsuan ari gabe? Zertarako? Borroka-zelaia prestatzeko.

Asmatuko dudalakoan, zoritxar igarlearena eginen dut: eskuina berearekin aterako da kontra egin beharko ziotenek elkar mokoka arituko direlako. Beti berdin? Betiko?

**«Borroka
'historikoak' berak
nabarmentzen du
500 urte ez direla
deus. Are gehiago,
hagitz gutti ikasi
dugula erakusten
du edo, hobeki
esanda, ez dugula
ikasteko gogorik.
Mutturka aritzea
maite dugu.»**

Portugalen adibidea

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Hego Euskal Herria politikoki Espainiaren menpe egotea gauza guztiz naturala dela nekatu arte errepikatzen digute Ebrotik hegoalderako historialari eta bozeramaile mediatikoeak, eta iparraldera dituzten ordezkariak ere - Nafarroako konkistaren harira UPN prestatzen ari diren kontra-kanpaina ikustea bertzerik ez dago-. Gu Cacereskoak edo Albacetekoak bezain espainolak omen gara. Horregatik, euskal herritarrok ez omen dugu eskubiderik Madrilez ahantzi, eta gure herria guk nahi dugun bezala gestionatuko duen estatu bat sortzeko. Euskal estatu independente bat ezinen litzatekeela ekonomikoki mantendu erraten digute. Guk ez ditugu inoiz sinetsi ar-

gudio ahul horiek, eta Eskoziak erakutsi die espainolei Europako mendebaldean estatu independente bat sortzea posible dela. Horrek hagituz urduri paratu ditu. Baina euskal herritarrok ez dugu Eskoziaraino joan beharrik Espainiatik libre bizitzea posible dela erakusten digun adibide baten bila. Penintsulan bertan dugu Portugalen adibidea. Gaztelako erregeek Iberiar penintsula osoa euren menpe izateko proiektuaren ondorio da Espainia, bertzerik ez. 60 urtez Portugal ere Madrilen menpe egon zen. Duela 300 urte baino gehiago, ordea, katalanak eta portugesak espainolen aurka matxinatu ziren, eta Espainiak katalanen aurka paratu zuen indar gehiena, Frantziako mugan bizi zirelako. Ondorioz, portugesek independentzia lortu eta gaurdaino mantendu dute. Kalkulu estrategiko soil batez baliatu zen Portugal askea izateko. Bertzenaz, lasai ederrean egon zitekeen gaur egun inork planteatzen ez duen egoera batean; hau da, gu bezala, bere hizkuntza eta kultura mantentzeko Espainiarekin borrokan. Baina ez. 11 milioi biztanlerekin, penintsulako zoko horretan, gaur egun Iberiako nazio aske bakarra da Portugal. Mendebaldeko Europan bizi-maila apalena duen herrialdea izan da historikoki, XX. mendean hango jendeak emigratu egin behar izan du lana bila, herri zapaltzaila izan dira -Mozambikena, Angolana-, eta injustiziaren aurka ere matxinatu dira -1974ko Krabelinen Iraultza-.

Herri guztiek bezala, gabeziak eta bertuteak izan dituzte, baina inportanteena da beraien etorkizunaren jabe izan direla, Lisboan hartu dituztela erabakiak eta ez Madrilen. Portugal ere bada adibidea guretzat.

**«Herri guztiek
bezala, gabeziak
eta bertuteak izan
dituzte, baina
inportanteena da
beraien
etorkizunaren jabe
izan direla, Lisboan
hartu dituztela
erabakiak eta ez
Madrilen.»**

Irakurleak mintzo

Berako
liburutegia
krisianBerako Euskara Batzordea

Zorionez Berako liburutegia gune bizi, dinamiko, argitsu eta itxaropentsua da. Bizia, jende anitz dabilelako. Dinamiko, kultur ekimen ugari gauzatzen dituelako. Argitsua, ezjakinak ilunpetik ateratzen laguntzen digulako. Itxaropentsua, gure etorkizuna ekarriko dutenek leku handia betetzen dutelako beretan.

Liburutegian dagoen funtsa gehiena gaztelaniazkoa bada ere, euskara normaltasunez sumatzen dugu, liburutegia eta liburutegia gehienak euskaldunak garelako. Noiz arte? Orain arte liburutegia euskaldunak izan ditugu zorionez. Hasiera hartan, Nafarroako Gobernuak hala eskatzen zuelako, eta azkeneko kasuan, gobernuak eskatu gabe, hala suertatu delako. Laster behin betiko langilea jarriko dute, oraingoan ere euskara kontuan hartu ez duen oposizio baten ondotik. Berako Udalak errekurtsioa jarri du, baina auzia argitu bitartean denbora joanen da. Gaur egungo liburutegia, amatasuna dela-eta, atsedena hartuko du laster. Ez dakigu behin betiko langilea berehala jarriko duten, ordeko norbait bidaliko duten edo zerbitzua hutsik geratuko den denbora ba-

tez. Dakiguna da gerta daitekeela liburutegia euskaraz ez jakitea.

Nolako harrera eginen digu euskaraz ez dakien liburutegia beratarroi? Zer aholku emanen digu liburu bati buruz gure hizkuntza ezagutzen ez duen liburutegia? Zeren arabera erosi dugu euskarazko liburuak, hizkuntza hori ez badu ezagutzen?

Liburutegia eginkizunetan hizkuntza funtsakoa da. Horregatik Salamancako liburutegia bezalakoak ez dago frantsesik ez dakien liburutegirik. Nafarroan bai, Lingua Navarorum gabe izan daiteke liburutegia.

Kasu honetan bederen ezin digute erran krisi ekonomiko dela arrazoia, bi hizkuntzak dakizkien liburutegia eta bakarra dakienari berdin ordaintzen baitio Nafarroako Gobernuak. Beraz, prezio berean, zergatik aukeratu zerbitzua soilik gaztelaniaz eskaintzen duena?

Kolosala izan
da Bilbon!Ainara MAIA

Ene lagun preso horiek, zer moduz zaude te?

Ni nahiko sentibera nago, triste eta malenkoniatsua, eta minbera dut bihotz zauritu behera behar hau. Urte berria negarrez hunki-

**Bota bertsoa**

Patxi CASTILLO (Berako bertso eskola) • Doinua: ETaren suetenetik

Bardoak 2012 abiatu da

Nafarroko bertsolari denen gainean arreta aurten ezberdina dugu hemen dator aldaketa orain ekimen deritzo iaz zena txapelketa, aurten bardoak izenez, orain artean poeta maila guztitako aunitz elkartu gara taldeka lagunartean jokatu denak lagun gara eta pike guztiak utzita has dadila bertso festa!

Txapelketa serioa nahiz ta ez dagon galdua bertsolaritzaren funtsa denez mahai ingurua txapelketetatik kanpo aurki daiteke zaindua hemen ere ohitura hau sartzeko bazen ordua gehiago edo guttiago egin behar dena landua ongi pasako dugula zeinen gauza segurua azken finean hori da gu guztion helburua.

turik hasi nuen eguzki hotzaren azpian, mendialdean. Baina, hala ere, ametsez kargatu nuen bihotza, itxaropentsu.

Gaurko manifestazioa Bilbon kolosala izan da, deskribagaitza, baina erabat hunkigarria, Euskal Herri osoa bertan eta mundua guri so, gelditu dela dirudi. U2ren kontzertuan baino jendetza handiagoa bildu da U7ren aldarrikapen-kontzertuan, bere askatasun-irrintziekin eta txalaparta-deiekin: "Euskal presoak eta iheslariak Euskal Herri! Basque prisoners to the Basque Country now!". Baina, hala ere, kolosala izan bada ere kanpoan, barnean zein gogorra izango den niretzat askatasunaren eguna! Independentea izan nahi dut, baina ez naiz libre, besteen pentsamendu eta sentimenduen gatibu bainaiz, badirelako zeharkatzen kanpoko burdinezko kartzela horiek baino

zailagoak diren kartzelak. Barneko kartzelak daude, norberak erakitzen dituenak oharkabean, eta ni oraindik amodioz preso nago. Hala ere, kolosala izan da Bilbon, eta eskerrak igeri egiten badakigun malko gazi saminez bereriko itsaso zabalean. Urte berri on bihotz-bihotzez, nonahi zaudetela ere, eta muxu zaparrada.

Txillardegia,
eskerrik askoXanti BEGIRISTAIN

Lehendik ere ezagutzen nuen Txillardegia, baina, bereziki, Iruñeko Udako Euskal Unibertsitateko eskolatan ezagutu nuen Jose Luis Alvarez Enparantza.

Txillardegiri gauza asko eskertzen dizkiot, baina, besteak beste, eta oso modu berezian, bere hurbiltasuna, apaltasuna eta xumetasu-

na. Baita bere argitasuna, zuzentasuna eta koherentzia ere. Eta, nola ez?, bere jakituria, zorrotasuna eta nekazineko saiaste hura; beti galtzaileen artean.

Oso ekarpen handia egin die euskal literaturari, euskarari, euskal soziolinguistikari, aber-tzaletasunari, baketzeari, independentismoari, eta abar, eta abarri. Badakit oso motz gelditu naizela hemen Txillardegiren merituak aipatzen, baina, era berean ere, jakin badakit ezinezkoa dela lerro gutxitan bere merezimendu guztiak goraiatzea.

Atsedean sakona har bezta Txillardegia hemendik aurrera bere txakurrarekin, naturarekin eta Chopinen musikarekin, batez ere, bere nokturnoekin.

Txillardegik arrasto handia utzi du Euskal Herrian. Euskal gizarteak asko zor dio J. L. Alvarez Enparantzari.

Doluminak senitartekoei.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Batzuk kale borrokaren historia ofiziala egi- ten hasi direnez, badi- rudi horretan ibiltzen ziren guztiak drogatu egiten zirela (...) baina garai batean, zorrotza zen ezker abertzalea- ren drogen kontsumo- aren aurkako kanpaina. Gutxi batzuk ziren dro- gatzen zirenak, eta ho- rregatik hautatu ditut libururako: gutxiengo baten barruko gutxiengo disidentea zirelako».

Xabier SILVEIRA
Lesakako idazle eta bertso- laria bere bigarren liburuz BERRIA, 2012.01.28

«Uste dut jendea ge- hiago animatuko dela bertso bazkari edo afa- rietara edo bere herrian izanen diren saioetara joaten. laz, adibidez, zortzi saio baino ez ziren jokatu txapelketa osoan. Orain gehiago dira, eta beraz, bada aukera hurbilago saio bat izateko. Uste dut bai publikoak eta bai bertsolariak ere horre- lako formatu aldaketa bat eskatzen zutela».

Garaxi TABERNA
Bardoak 2012 ekimeneko Beratarrek-en gai-jartzailea HITZA, 2012.02.03

11 galdera labur

Zer moduz dago Babaren Erre- gea?

Ongi.

Nola sentitu zinen Nafarroako Erresumako Koroa jantzita?

Pixke bat nerbioso eta kontent ere bai. Entsaioetan pixke bat nerbios- ten nintzen baina egunean gehia- go.

Eta horren aitzinetik, ros- koan baba atera zitzaiz- zunean?

Harrituta gelditu nintzen. Hamabi lagun ginene eta zaila zen tokatzea. Ez nuen espero.

Zer moduz moldatu zi- nen erregearen paperean?

Ongi. Ikasia nuen.

Muthiko Alaiak peña- koek zein opari eman zizkizuten?

Osasunakoen ba- loia eta kamise- ta, CD bat eta Muthiko Alaiak-en liburu bat ere bai.

Osasu- nakoa izanda, jokala- riek si-

natutako baloia eta kamiseta on- gi gordeak izanen dituzu, ez?

Bai.

Eskolatik aterata zer egitea gus- tatzen zaizu?

Futbolean jolastu, bizikletan ibi- li... Horrela.

Zer du Amaiurrek Baztango ber- tze herrirek ez dutena?

Monumentua.

Inauterietako mozorroa pentsatua duzu?

Ez, oraindik ez dut pen- tsatu.

Inauteriak, bestak ala Baztandarren Biltza- rra. Zein duzu gustu- koena?

Bestak. Hobeki pasa- tzen da.

Haunditzean zer izan nahi duzu?

Ez dut pen- tsatu orain- dik.



Xuban ZALDAIN → 11 urteko amaiurtarra

KULTURA

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN EKIMENEZ

Martxan da Bardoak 2012 Nafarroako taldekako bertsolari txapelketa berria

Asteburuan, Bera, Aniz eta Leitza saioak jokatu dira

TTIPI-TTAPA

Taldekako Txapelketa berria martxan paratu da Nafarroan. Nafarroako Bertsozale Elkartek iaz erabaki zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketa bi urtetik behin antolatzea eta horren osagarri gisa bertzelako ekimen bat abiaraztea. Bardoak 2012 da ekimen berri hori, Nafarroa mailako taldekako txapelketa. Bertsozaleari bertsozalaritzaz gozatzeko aukera berritzailea eskaintzea da helburu nagusia, eta horretarako, finala izan ezik, elkarte giroko saioak izanen dira.

17 taldek hartuko dute parte, 99 parte-hartzaileekin. Guttienetz bortz partaide ditu talde bakoitzak: hiru bertsolari, gai-jartzaile/aurkezlea eta taldeko ordezkaria. Etxarriñ hasi eta Leitza amaituko da Bardoak 2012. Lehen fasean, hiru taldeko bortz multzo dauka eta seigarren bat biko. Multzoko talde bakoitzak bi saio izanen ditu, multzo bereko bertze bi talderen kontra, etxean eta kanpoan. Bigarren fasea multzo bakoitzeko lehenbizikoa pasat-



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bardoak 2012 txapelketan parte partzen ari diren kideak.

ko da, sei talde guztira. Bina saio eginen dituzte, etxean eta kanpoan. Eta hori martxoaren 2tik 18ra izanen da. Azkenik, hiru talde pasako dira martxoaren 31n Leitza egiten den finalera.

TALDEAK

17 talde horien artean, 11k badute eskualdeko partaideren bat:

Xirristi-Mirristi taldekoak dira Xabier Terreros lesakar eta Asier Saragueta beratar bertsolariak.

Dizerdit taldean Xabier Silveira Lesakako bertsolaria ari da.

Baztango **Lepanatu-ek** taldean, bertsolariak Oier Amiano, Jon Barberena eta Xabier Maia dira; gai-jartzaile/aurkezlea Fernando Anbustegi; ordezkaria Maddi Arrijuria eta laguntzaileak Jon Oskariz eta Maialen lantzi.

Baztango **Bar-ideak** taldeko bertsolariak Iñaki Aleman, Jon Elizetxe eta Kotte Plaza dira; gai-jartzaile/aurkezlea Gorca Urtasun da eta ordezkaria Xabier Goñi.

Malerrekako **Jituk** taldeko bertsolariak Egoitz Gorosterrazu, Ander Fuentes eta Maialen Bellarra dira; gai-jartzaile/aurkezlea Ainara Etxabide da eta ordezkaria Irati Arrieta.

Malerreka eta Orozko **Erauntsi** taldean, Alazne Untxalo, Amaia Elizagoien eta Iker Gorosterrazu dira bertsolariak, gai-jartzaile/aurkezlea Maialen Kamino; ordezkariak Ixiar Bazterrika, Jaione Elizagoien eta Maialen Arregi eta musikariak Oihana Elizalde eta Oihana Mindegia.

Beratarrak taldean Aitor Elexpuru, Julen Zelaieta eta Patxi Castillo

dira bertsolariak; gai-jartzaile/aurkezlea Garaxi Taberna eta ordezkariak Igor Lasaga eta Anjeltxo Aranibar.

Lesakako **Rimak Exkaxko** taldeko bertsolariak Eneko eta Estitxu Fernandez eta Iñigo Olaetxea dira; gai-jartzaile/aurkezlea Imanol Lopez eta ordezkariak Xumar Altzugarai.

Lesakako **Altzuri, Edurnezuri eta Amaordeak** taldeko bertsolariak Iban Garro, Josu Sanjurjo eta Ior Tainta dira; gai-jartzaile/aurkezlea Garazi Konde eta ordezkariak Amaia Lasheas eta Xabier Etxepare.

Leitzako **Leitzaundi** taldean, Iñigo Ibarra, Iñigo Sagastibeltza eta Miguel Mari Elosegia dira bertsolariak; gai-jartzaile/aurkezlea Joseba Zabaleta eta ordezkaria Jon Oronoz.

Leitza ta leitzarrak taldea, Joxema Leitza, Mikel Azpiroz eta Jose Luis Barberia bertsolariak, Koldo Leiza gai-jartzaile/aurkezlea eta Aitzol Eizmendi ordezkariak osatu dute.

ESKUALDEKO SAIOAK

Orain arte Irurita, Doneztebe, Lesaka eta Elizondon jokatu diren saioez gain, eskualdean hauek ere eginen dira lehenbizikoko fasean:

- **Otsailak 10:** Berako gaztetxean, bertso afaria. Beratarrak eta Leitzaundi aurrez aurre.
- **Otsailak 11:** Anizko elkarteetan bertso afaria. Erauntsi eta Altzuri, Edurnezuri eta Amaordeak aurrez aurre.
- **Otsailak 12:** Leitzako Aurrera elkarteetan, bertso merendua. Leitzaundi eta Bar-ideak aurrez aurre.
- **Otsailak 17:** Lesakako Arrano elkarteetan, bertso afaria. Rimak Exkaxko eta Mailope aurrez aurre.
- **Otsailak 19:** Leitzako gaztetxean, bertso merendua, Leitza ta leitzarrak, Jituk-en kontra.

ola
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka sarea - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

carroba
guzuzko sagardoa

1984ko abuztuaren 28an enpresa izan zen
14.022 berriketa
www.carroba.net



inauteriak
inauteriak
inauteriak

2012

besta

tout pour la fête

gora ihauteriak!



- * Euskal jantzi herrikoiak, txapelak, zapiak, ...
- * Petardo eta suziriak.
- * Mozorro eta osagarriak
- * Sariak

irekia astelehenetik larunbatera 9'00etatik 13'00etara eta 15'00etatik 19'30era

Geltokiko karrika, 13 rue de la Gare - 64700 HENDAIA - Tel.+33.559483758

Dia %
SUPER-BAZTAN

ONGI PASA INAUTERIAK

Dia % Santiago, 60 • ELIZONDO • Tel. 948 580 453



ELBETEBO POSADA

Eguneko menua | Aste hondakinari karta
Enpresa bitartekari | Familia biskotak
Bataioak ...

Karrizkandi s/1 • **ELBETE**
T. 948 581 519
info@posadaelbete.com

www.posadaelbete.com



Ongi pasa inauteriak?

Malkorra



Santiago, 15 • Tel. 948 580 061 • ELIZONDO
www.malkorra.com

MAÑONEA AGENTZIA

GENERALI aseguruak

Ongi pasa inauteriak!

Brailio Irarte, 9
ELIZONDO
T. 948 581 132

GENERALI GROUP



LA MASCARA

Inauterietako mozorroetan den-dene daukagu

Era guztietako osagarrien salmenta

Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04




ELIZONDOKO INAUTERIAK | otsailaren 17 eta 18an

Larunbateko herri bazkaririk gabe ospatuko dira aurten inauteriak

Ortziral honetan biltzekoak ziren Elizondoko alkate eta kargodunak inauterien azken xehetasunetaz solasteko, baina ez da aldaketa handiegirik izanen egitarauan.

OTSAILAK 16, ortzeguna
Oilar dantza edo **Orakunde** eguna ospatuko dute Elizondoko ikastetxeetako haurrek.

OTSAILAK 17, ortzileria
10:00 Mozorroen elkartzea egingen dute Gaztebarearen parean eta ondotik puxka biltzeari emanen diote hasiera.

14:30 bazkaria.
16:00 haurren desfilea (Elizondoko San Francisco Javier eskola publikoa, Baztan ikastola eta haurtzaindegikoak). Eta desfilearen nekeak kentzeko, **txokolata** eta **dantzaldia** haurrendako. Ondotik, **mozorroen ibilaldia** musikarekin.
22:00 Jantziloren erretzea plazan.

OTSAILAK 18, igandea
11:00 Mozorroak elkartzeko hitzordua. Zopak eta ziztor jatea izanen da Ikastolako Parkean. Ondotik, herrian barna ibiliko dira mozorroak, trago batzuk hartu bidenabar. Aurtengoan ez dute txarangaren laguntzarik izanen eta, modu berean, herri bazkaririk ere ez da izanen, koadrila bakoitzak bere aldetik bazkaltzeko ohitura handiagoa baita.
Bazkaldu ondotik ere inauteri giroa nabaria izanen da karriketan.



UTZITAKO ARGAZIAK

Larunbat arratsaldean mozorroen desfilea egingen da Elizondoko karriketan.

18:00 Mozorroen desfilea karrikaz karrika. Hasieran aipatu bezala, otsailaren 4ko bileran erabat zehaztu beharrak izan diren programazioa eta ordutegiak.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Jabier Pruaño mozorrotua Inauteri Asteartean, argazkiaren eskuinaldean.

Jabier PRUAÑO | Elizondoko inauterizalea

«Inauteen izpiritu zirikatzailea berreskuratu beharko genuke»

Duela hiru urte Elizondoko inauteriak asteburura pasatu zirenetik, asteartean mozorrotzen segitu duen taldeko kide da Jabier Pruaño. Baina aurten Inaute Asteartea besta eguna ez denez, egun horretan ez dela inor aterako uste du. «Ostatuek irabazi dute eta ospatzeko baino, kontsumitzeko besta bihurtu da inauteria» dio penatua eta garai bateko inauteen izpiritua berreskuratu beharko litzatekeela uste du.

Zer da Elizondoko inauterietan gehien gustatzen zaizuna?

Egun osoan mozorrotua egoteaz aparte, asteartez egiten zirenean, gosari eta bazkariak ziren gehien gustatzen zitzaizana. Karrozarena aitzaki bat zen lagunekin elkartu eta ongi pasatzeko.

Azken urteetan berriz ere inauteriak asteartean ospatzea eskatu duzue, egun horretan mozorroarekin ateratzen segituz...

Aldatu zenean, lehenbiziko urtean koadrila aunitz atera ginen asteartean, hori erre-ibindikatu. Azkenean, inauteria kendu, baina besta eguna mantendu zen. Baina joan den urtean gu bakarrik atera ginen, «lau ero». Aurten, besta eguna ez denez, ez dut uste inor aterako denik Elizondon. Dena den, Erratzura edo joan gaitzake mozorroturik, gure eskariarekin segitzeko. Erratzun inauteria asteartez ospatzen segitzen dute.

Eta zergatik nahiago duzue Asteartean ospatzea?

Ez da afera politikoa ezta erlijiosoa ere. Asteartea besta lokala zen eta inauteria baztandarrentzat zen. Egunez aldatzeko batzarrean aipatu zen kanpoan jende aunitz bizi dela, gazteek nahiago dutela asteburuan... baina duela 20 urte ere berdin zen. Inauteria ez da zergatik jendetsua izan behar, herri ttikietan edo baserrietan egiten den eskean zenbat jende ibiltzen da? Azkenean ostatuen eskakizunei men egin zaie eta besta ospatzea baino gehiago, ahalik eta jende gehien kontsumitzera etortzea bilatzen da.

Noiztik ateratzen zara mozorroarekin eta karrozarekin?

Hamasei bat urte nituenetik hasi ginen karrozarekin ateratzen, baina azkeneko 8-9 urteetan ez dugu karrozarik egiten, baina bai mozorroa. Gai bat aukeratu eta egiteko erraz xamarra baldin bada hobe.

Eta zein da urte horietan gogoan gelditu zaizun mozorroa?

Okinez ateri eta ogia egiteko labea prestatu genuen. Irina jendeari botatzen ibili ginen eta polemika izan genuen. Ameriketako granjeroz atera ginenean ere, 400 kilo lasto hedatu genuen karrikan. Inauteria hori izan da, boterea edo elizaren kontra joateko eguna, bizilaguna zirikatzeke, eta hori galdu egin da. Nere ustez probokazio hori, izpiritu zirikatzaile hori berreskuratu beharko litzateke eta ez disfraz perfektua bilatu.



ZELAIETA
tabakodenda
ingurumen, ardurarik
Berako • BERA • 948 631 240
ONGI PASA INAUTERIAK

Diruti irakurte,
bat ez bada bertze!
ONGI PASA INAUTIKI

amaleun
ARRAINDEGIA

948 631 511 | 920 828 757 | BERA • NAUFRIA

BAR RESTAURANTE
EYSKILDYNT
Casa fundada en 1912

PLATER
KONBINATUAK

ing. pasa inauterik!

Bidasoa 5, BERA
Tel. 948 630 392 - 948 630 907

HAUTIKI
DORZIRUDI

948 631 521

Materiala: bostakak, 1000-10000, 1000-10000
Kamioak eta 1000-10000, 1000-10000

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
JAURENA

Julio Caro Baroja. 6 behea
31780 BERA • Nafarroa
Tel/Faxa: 948 631 217.

ONGI PASA INAUTERIAK

cenor



BERAKO INAUTERIAK | otsailaren 11, 15, 16, 19 eta 20an

Bi asteburutan ospatzen dira inauterietako ekitaldiak

Berako inauteriek bi asteburu hartzen dituzte. Izan ere, larunbat honetan, otsailak 11, kaldereroak aterako dira 19:00etan, Illekuetatik Herriko Etxeko Plazarainoko ibilbidea eginez (Altzateko frontoian eguraldi txarrarekin). Otsailaren 9 eta 10ean, ortzegun eta ortziralarekin, entsaioak eginen dituzte Musika Eskolan 20:00etan.

OTSAILAK 15, asteazkena

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak antolatutako Inauteri besta ospatuko da.

16:30 Kalejira herrian barna, Zahar Etxea bisitatuz. Ondotik, entzunaldia, mozorro lehiaketa eta berendua egingen dira.

OTSAILAK 16, ortzeguna

Goizean haur taldeak puxkak biltzen ibiliko dira eta ondotik, Ortzegun Gizen arratsaldeko ibilbidea Suhiltzaileen parketik Eztegarara pilotalekura abiatuko da 15:45ean. Euria egingen balu, zuzenean Eztegarara pilotalekuan dute hitzordua 16:00etan. 16:30ean Euskaraokea egingen da. Ekitaldi hau Berako Udalak antolatzen du, Ricardo Baroja Eskola Publikoa, Labiaga Ikastola, Jesusen Bihotza ikastetxea eta Toki Ona Institutuaren laguntzarekin.

OTSAILAK 19, igandea

Inudeak eta artzaiak goiz osoan herrian barna ibiliko dira, Eztegarara pilotalekutik hasita. Gure Txokoa elkarteak antolatzen duen ekitaldi honek 18:00etan izanen du segida, Eztegarara pilotalekutik Altzateko karrikara joanen baitira. Entsaioak otsailaren 15ean (asteazkena) eta 17an (ortzi-



UTZITAKO ARGAZIAK

Joan den urteko karrozen lehiaketan saritua suertatu zirenak.

rala) egingen dira 20:00etan Eztegarara pilotalekuan. Bazkarirako txartelak ere entsaio egunean salduko dira.

OTSAILAK 20, astelehena

Inauterietako Astelehenean, goizean zingar arraultze egingen da.

Ritxi ABRIL | Berako musikari inauterizalea

«Kaldereroak familia giroko ospakizuna bihurtu dira»

Kalderero eta inude eta artzaiak laguntzen duen musika taldean ez du hutsik egiten, ez baitu inauteria musikarik gabe ulertzen, «bizitza bera ulertzen ez den bezala». Kaldereroen formatoak gazteak ez dituela erakarri uste du, «kaldereroak famili giroko ospakizuna bihurtu dira. Gurasoak umeekin mozorroturik ateratzeko momentu bat. Horrek bere alde onak eta bere gabeziak dakartza».

Zer da Berako inauterian gehien gustatzen zaizuna?

Inauteriak besta bereziak dira eta hortaz edozein momentutan eta edonorekin gustuko momentuak bizi daitezke. Hortaz ez nuke momentu jakin bat aukeratu, edozein unetan, inauterien magiak harrapa zaitzake eta! Gosari batean, baserritan puskak biltzen zingar-arrautzean, musika jotzean, adarra jotzean, antzeztean, taberna batean, kalean... egusenti edo gabean!

Zer behar da mozorro on bat egiteko?

Honako errezetarekin gaizki ez zara ibiliko: Lehenik etxeko armairu zaharrak astindu eta trapu zahar batzuk hartu, ondoren atrezzo osagai baten bat gehitu (margoa, peluka, antiojuak...), gero mozorroa imajinazioaz hornitu, jarraian pertsona izateari utzi eta pertsonai bihurtu, eta azkenik umore dosi handi batekin saltsa sortu.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ritxi Abril, kaldereroen ezkon-zeremonia gidatzen.

Antzerkian ere ibilia zara. Inauteriek antzerki punttu bat izan behar dute?

Dudarik ez! Inauterietan aktore eta aktorea potentzial asko dagoela ohartzen zara. Sarri bertze pertsonai baten larruan sartuz, pertsonak gure barrua ere erakusten dugu eta egunerokotasunean ezkutuan daramaguna azaleratzen. Besteekiko errespetua mantenduz eta irainean erori gabe, jendea zirikatatu, norbera bere buruaz irri egin eta errealitateaz trufa egiteko aukera ederra eskaintzen dute inauteriek.

Gogoan gelditu zaizun mozorroren bat...

Koadrilan egindakoen artean, Frantziako Tourra irudikatu genueneko edo zantzarrez mozorrotuz sortu genuen iskanbila ditut gogoan eta lagun kide batekin batera, Bittori irratia eta 36eko Joxe Antoniorekin egindako saioa. Gaur egun, familiak edo lan egoe-rak direla, karroza gutxi ateratzen dugu, agian karroza bihurtzen hasiak baikaude!





IREKI

LEIHOAK

T-F: 948 630 962
M: 626 313 162

www.irekileihoak.com

Aluminio R.P.T / PVC • Itxidurak
Kontraleihoak • Barandak • Berandak
Pertsianak • Toldoak

Pol. Ind. Zalaia, 8
BERA
www.irekileihoak@irekileihoak.com

Angie
ENGLISH ACADEMY

University of Cambridge azterketara
buruzeko prestatutza

Itzulpen lanak egiten dira
Ereko laguntza

20 URTE MALERREKAN

Elizabete, 7 beheak - 31740 DONEZTEBE
T. 626 908 076 - ingelsakademy@gmail.com

Mendaur Motor

Autoen konponketa eta salmenta
Txapa eta pintura



Leizakoa bidea • DONEZTEBE | T. 948 450 333

Merkaopari

MOZORROTU ZAITEZ!
BERTZELA ET DA BERDINA ITANEN



DONEZTEBEN - COFFEE, GIGOSTATIN II, ISOTERA
ARRATZALDEA: 19.00 ETANIK 20.00 ETARA
AIZVIZHETXEN LANONDATZA.

DONEZTEBEKO INAUTERIAK | otsailaren 16tik 18ra



Karroza ikusgarriak plantatzen dituzte Donezteben ere.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Xanti UTERGA | Doneztebeko gaztea

«Mozorrotua ateratzeak bertze puntu bat ematen du»

Erremontean koadro alaietan ederki moldatzen da Xanti Txibi Uterga, baina inauterien alaitasunean ere ez da gibelera gelditzen. Hain zuzen, Doneztebeko inauteriak Udalarekin batera antolatzen aritzen den herriko gazte taldearen kide da, Iñaki Telletxea eta Jokin Arraztoarekin batera. «Lau ttikikeri dira, baina egin beharrekoak», aipatu digu.

Nola moldatzen zarete inauteriak antolatzerako orduan?

Gazteak Herriko Etxearekin bildu eta elkarlanean egiten dugu. Herriko Etxeak ortziraletan bazkalondoa izanen dugun musika ordaintzen du eta gero, desfileko karroza eta mozorro onenak saritzen dituzte. Aurten Doneztebarrak Merkatarien Elkar-teak emandako lote bat izanen da saria. Karrozak prestatzeko ere 80 euro eman zituen iaz Udalak.

Aldaketarik izanen da egitarauan?

Orain arte ortzegunean triki-poteoaren ondok zopak afaldu eta musika pixko bat izaten genuen, baina jende guttiago ibiltzen zenez, orain ortziraletako bazkalondoa paratu dugu musika, bazkaltzeko jende gehiago elkartzen baikara eta aprobetxatzeko. Otorduetarako soziedadea ere aldatu dugu. Orain arte, urte pila batean Aranzokon egin dugu eta hagitz eskertuak gaude, baina aurten bertze elkarte batean izanen da. Larunbateko bazkaria berriz Santamarian egiten dugu.

Ortziraletan baserrietan eskea egiten duzue. Koadrila handia biltzen zarete?

Bi aldetara joaten gara. Alde batera Casa Mateo, Olabidea, Sarratea eta Luixitorea, eta bertze aldera ere bertze hiruzpalau baserri egiten dugu. Azken urteetan gazte dexente biltzen gara, ez dakit kalkulatzeko baina igual 50 lagun, eta erdi eta erdi bantzen gara auzoetan. Giro elegantea sortzen da trikitixarekin, eta urtean zehar elkartzen ez garen koadrillak egun horretan denak nahasian ibiltzen gara. Polita izaten da. Eguerdia aldera bi taldeak berriz ere elkartu eta Leitzarako bideko taile-rrerara joaten gara bixitan. Han ere ederki hartzen gaituzte, pastak eta ardo pixko bat eskaintzen diegu eta eurentzat ere, tarte batean lana uzteko aitzaki polita da, esperoan egoten dira. Berriz ere herrira jautsi, trago batzuk eta bazkaltzera. Aurten bazkalondoa musika izanen da afal ordura bitarte eta afalondoa bakoitza bere koadrillarekin disfrazatzen da. Trago batzuk hartu eta luzatzen dena arte.

Larunbatean karrozak... Denbora aunitz ematen duzue prestatzen?

Egun horretan goiz bazkaltzen dugu, kopa hartu eta jendea janztera eta karrozari



azken ukituak ematera joan dadin. Gero, bortzak izaten dira karrozak abiatu orduko. Zenbat denbora ematen dugun prestatzen? Hori bakoitzak hartzen duen gogoaren arabera da. Eguberriak pasatu ondotik, Erregeak eta gero hasten gara pentsatzen, koadrilarekin afaria egin eta gaia zein izaten ahal den erabakitzen. Gure koadrilak bi asteburutan egin dugu aurtego karroza.

Antzerki pixko bat ere egingen duzue, ez?

Beti egin behar da teatro pixko bat. Joan den urtean bertze koadrilla batekin "pike" bezalako bat egin genuen, batzuk bakeroz eta bertzeak indioz mozorrotuta. Tonteria batzuk egitea komeni da.

Eta bereziki ongi pasatu zenuelako gogoan duzun karroza edo mozorroren bat?

Nik normalean beti ongi pasatzen dut inauterietan eta ez dut gogoan horrela disfraz xebererik. Urte batean Sanferminetako jantziarekin atera ginen, arropa xuriarekin eta zapi gorriarekin, eta besta egiteko hagitz komodoa eta elegantea izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txibi Uterga, pailazoz mozorrotua.

Batzutan, batere mozorrotu gabe ere edeki pasatzen ahal duzu, baina beti laguntzen du giroan sartzeko. Bertze puntu bat ematen du eta ez ezagutze horrekin, alukerik egiteko ere lasaitasuna ematen dizu.

Juanotena zurgindegia
Telatuzak · Zolak · Kontraleihoak
Armaru erpotratuzak · Ateak · Eskailerak · Leiboak
Leizakoa bidea, 35 · Tfnoa: 948 450 211 · DONEZTEBE

VI. MUS TORNEOA
Urtarrilaren 27tik aurrera
15 jardunaldi
Ostiralean 22:00etan
Sari bikainak
Ongi pasatu inauterietan!
Merkatareren katea, 2
DONEZTEBE
948 451 826

EDERKI tailerra
PEUGEOT
CITROËN
Peugeot eta Citroën
Agente Ofiziala
24 orduz grua zerbitzua
Hidraulika "tegitsoen" moldaketa
Leizakoa bidea · 948 450525 · DONEZTEBE

OLAZAR aroztegia S.L.
· aroztegi metalikoa
· itxiera metalikoak
· aluminio aroztegia
· esturktura metalikoak
· zerrailgintza
· galdaragintza
· ate baskulatzailerak
· ate automatikoak
Ongi pasatu inauterietan!

Arozena
ostatu - jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak

Ongi pasa
inauteriak!

T. 948 450 443
Leizakiko errep., 84 - Doneztebe

Juantxo San Miguel

Iturgintza • Kalefakzioa
gasa

T. 948 450 868 • 628 112 415
Elizagibela, 2 • 31740 DONEZTEBE

MAYLIN OSTATUA

Ongi pasa inauteriak!

Bokadillaak • Pintxoak • prete konbinatuak

Parroikia, 15 DONEZTEBE • T. 948 45 03 66

Sampi Aragón, S.A.

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Mekanika | Elektrizitatea | Txapari | Pintura

948 450 354 | DONEZTEBE
sampsaragon@telefonica.net

INAUTERIAKAKO EROSKETAK

DIA %

Doneztebe

Ongi pasa inauteriak!

Amezli berri, 1
DONEZTEBE
T. 948 451 672

Mailpostia Papertegia

Marka hauetako kartutxo konpatible edo birziklatuak

brother
Canon
LEXMARK
EPSON
RICOH
olivetti

hp
XEROX
OKI

%60 arte
surreztu
DIRTOKARTUTXOAK
grati eta.

Kale Nagusia 4 - DONEZTEBE - Tel. 948 45 14 84



DONEZTEBEKO INAUTERIAK | otsailaren 16tik 18ra

Baserrietako eskea ortziralean eta karrozen desfilea larunbatean

OTSAILAK 16, ortzeguna
20:00 Trikipoteoa. 21:00 afaria Elkartean.
Afalondoan, mahainguruan musika.



OTSAILAK 17, ortzirala
09:00 Baserrietan eskea Titi ostatutik abiatuta. Gazteak bi taldetan banatuko dira eta behin baserrietako eskea egin eta gero, eguerdian berriz ere elkartu eta Leizarako bideko tailerrak bisitatuko dituzte. 14:00 bazkaria. Bazkalondoan musika izanen da Modesto eta haren akordeoiarekin. 21:00 Kuadrilen afaria.



OTSAILAK 18, larunbata
13:00 Bazkaria Santamarian.
16:30 Karrozen desfilea Aparan industrialdetik aterata.
22:00 koadrilen afariak.





GOIZUETAKO INAUTERIAK | otsailaren 18tik 21era

Astearteko zahagi-dantzak bukatutzat emanen ditu lau eguneko ospakizunak

Astelehen eta astearteko mozorroen joan-etorriak eta zahagi-dantzak ematen diote Goizuetako inauteriei xarma berezia, aste-buru osoan izanen da ongi pasatzeko aukera. Asteleheneko konpartsaren gaia Mexiko izanen da aurtengoan.

OTSAILAK 18, larunbata

18:00 Kaldereroak. Ondoren, eguraldiak laguntzen badu, herriko plazan **afaria** egingen da. Bakoitzak bere afaria eraman beharko du.

OTSAILAK 19, igandea

17:00 gaztetxoan **Zahagi-dantza.**

19:00 Erromeria, plazan. **21:30** Mozorroen **afaria.**

OTSAILAK 20, astelehena

08:00 Mozorroen irteera baserrietara.

12:00 Plazan elkartu eta luntxaren ondoren Konparsa (Gaia: Mexiko) herrian zehar. **13:30** bazkaria Umore Ona elkartearen. **14:00-16:00** Tailerrak. **16:30-17:30** jokuak plazan. **17:30** txokolate egina jatea. **18:00** karaokea (hau dena bukatutakoan, denen laguntza beharko eta eskertuko da plaza garbia utzi ahal izateko). **18:30** mozorroen etorrera herrira, dultzaineroekin. **19:00** Erromeria plazan. **22:00** mozorroen afaria.

OTSAILAK 21, asteartea

09:00 Mozorroen gosaria.

10:00 Mozorroak herriko kaleetan zehar



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Zahagia, mozorroak, konparsa... Aurten ere ongi pasatzeko aukera ederra izanen da.

ibiliko dira. **14:00** Mozorroen bazkaria. **17:00** Zahagi-dantza, Izkiña tabernatik hasita. **19:00** erromeria TZ taldearekin plazan. **22:00** mozorroen afaria. **19:00** erromeria TZ taldearekin plazan.

Oseguarda
ostatua

Ongi pasa inauteriak!

T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

XIMON horolegia

INAUTERI DARRA ISAPAZ

948 514 055
GOIZUETA

ZABALA Y GOIKOETXEA
ERAIKUNTZAK

ONGI PASA INAUTERIAK!

Gure Arreta GOIZUETA
T/F: 948 51 42 28 M. 679 47 88 93 • 679 47 88 78

MAIA

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Inauteri zoriontsuak opa dizkizuegall

bai

K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242

ongi pasa inauteriak!

anajak apezetxea

Idorria, 71 - 1^a • 31745 GOIZUETA
Tel.: 650 20 16 27 • 699 63 24 80
www.apezetxeanajak.com
excavaciones@apezetxeanajak.com

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE



*onji pasa
inauteriak*

Plaza Zaharra - 948 63 72 87
LESACA



JOISA

ARROZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAKUNTZA MEKANIKOAK
Barrutak, bulboak, arrok,
lesak, forja artistikoa...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

Oteango Ind. • 31770 LESACA • talerri@joisa@hotmail.com

inauteriak 2012



LESAKAKO INAUTERIAK | otsailaren 18tik 20ra

Arraultze-Arraultzetik asteleheneko karrozen desfilera giro ona izanen da

Otsailaren 15ean, asteazken arratsaldean Irain Eskolako irakasle, ikasle eta gurasoek antolatutako inauteri besta ospatuko badute ere, Ortzegun Gizenarekin hasiko dira inauterietako ospakizunak. Dena den, Arrano elkartetik jakinarazi dutenez, zakoarren bilera otsailaren 11n egingen da, larunbatean 17:00etan. Inauterietan Zakoar atera nahi dutenek bilerara joan beharko dute, bertan izena eman eta zakuak banatuko baitituzte. Igande arratsean izanen da inauterietako pertsonai nagusiaren harat-honatak ikusteko aukera.

OTSAILAK 16, ortzeguna
Goiz-eguerdian herriko haurrak etxez-etez ibiliko dira Arraultze-Arraultze eskean.

OTSAILAK 19, igandea
08:00 Goitarrak Auzoberri, Endara eta Zala auzoetan ibiliko dira.
17:00 Zaku Zahar eta Mairu ttikien kalejira Lesaka trikitixa taldearekin.
18:00 Dantzaldia Plaza Zaharrean.
19:00 Zaku Zaharren kalejira, Musika Bandarekin, Arrano Elkartek antolatua.

OTSAILAK 20, astelehena
08:00 Fraindarrak Arraultze-Arraultze eskean ibiliko dira Frain auzoan.
Eguerdian inauterietako orgak izanen dira plazan.
18:00 Dantzaldia Plaza Zaharrean. Asteartean ere, Fraindarrak taldeko kide batzuk puxkak biltzen ibiliko dira.



Egoitz TELLETXEA | Lesakako musikaria eta historiazalea

«Zakozarra Garizumako pertsonaia zen Gerra bitarte»

Musikaria eta historiazalea. Egoitz Telletxearen bi ezaugarri horiekin bizbat eginez, inauterien historiaz eta inauterien barnean bizi dituen istorioetaz galdegin diogu. Musika bandarekin mozorrotzea gogoko du, baina ez da inoiz zakozar atera, «belar idorrak izaten duen hautsak kalte» egiten diolako. «Pena hori zakozarrei musika jarriz konpentsatzen dut», dio

Zer da Lesakako inauterietan gehien gusatzzen zaizuna?

Astelehena da egun guztian izaten den giro-gatik. Gainera bandako kideok halako "txaranga" bat montatzen dugu eta urtero mozorro "tematikoak" egiten ditugu. 13 urte nituenetik ateitzen naiz bandarekin eta posible zaidan artean berdin segituko dut.

Zer behar da mozorro on bat egiteko?

Buruari eman eta originala izaten saiatu. Gero eta zailagoa da baina...

Historia ere gogoko duzu... Noiztik ateratzen dira zakozarrak inauterietan?

Zakozarrak berez ez dira inauteritako pertsonaiak. Jatorrian garizumako 4 edo 5 igandetan ateratzen ziren ilunabar aldera eta isiltasun osoan. Herriari buelta eman eta desagertu egiten ziren. Normalean ez zen jakiten zakozar ateritako nortasuna. Honi itxura penitentziala aurkitzen diot nik, anonimotasuna, zakua, belarra... gerra garaian galdu zen. 1977 edo 78an berreskuratu zen baina jada bertze zentzu batekin, garizumako pertsonaia bat inauteritakoa bihurtuz.

Eta Fraindarrak, Goitarrak... Noiz hasi ziren ateratzen?

Lesakan inauterietan eskean ibiltzen ziren hiru talde izan ziren: Goitarrak, Nabaztarrak eta Fraindarrak. Gaur egun Goitarrak eta Fraindarrak bakarrik gelditzen dira. Goitarrak eskean noiz hasi ziren ezingo nuke datu zehatzik eman, Fraindarrak bertze alde 1970 sortu ziren herriko zenbait gazteren eskutik bertze bi taldeek hartzen ez zituzten auzoetan eskean ibiltzeko. Egia erran giro ederra jartzen dute bi taldeek. Bitxikeria bezala kontatu daiteke Nabaztarrak eskean ateri ziren azken urtean nabaztar bakarra ateri zela, kordiona eta guzi. Nahiko xelebrea izan omen zen hura.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Egoitz Telletxea, inauterietan bandarekin.



IÑAKI JANARIDENDA
ONGI PASA INAUTERIAK
Arretxeo, 12 • LESAKA • 948 638 287

TRANSPORTES IRIGOYEN
629 592 215 - Bittiria guzoo, 7 - LESAKA
ONGI PASA INAUTERIARI

intzuri
OPTIKA
Bittiria, 36 | LESAKA | T. 948 627 550
ZAINDU ZURE IKUSMENA

ITURBENA
kafetegia
T. 619 188 360
Kaskontako bidea, 5
LESAKA
ongi pasa inauteriari
Kafetegia | Ogitarfekoak | Bolleria |

usi
ONGI PASA INAUTERIARI
MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK
GARBIKETA PRODUKTUAK
• Bulegoak, portalak, ebekoak, kristalak, garbiketa irakorra eta eskuarritza lanetakoak
• Industria-makinekin lan egiten dugu
• "Fregado en plano" delakoa
• Produktu profesionalak (zerbitzu orokorrekoak, abarrik...)
T. 689 305 221 (Oiharni) LESAKA

PLAZAKO
derkia

ongi pasa inauteriak!

ETXALAR • 948 635 026

ORRI PASA INAUTERIAN:

HERRIKO

OSTATU - JATETXEA

Menuak | Menu bereziak
Plater Koordinatuak | Banketarak

www.herriko.net

948 63 54 80 • Arrihumbata, 15 - ETXALAR

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttppi.ttapa

ELUTSĀ

OSTATU

TABAKOAK

INAUTERI ONAK PASA ITZAZUE!

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

haritzpe

ONGI PASA INAUTERIAKI

Goikolanda, 8
31760 ETXALAR
T. 618 778 328



ETXALARKO INAUTERIAK | otsailaren 19tik 21era

Antzerkia, kinto bestak, gazteen puxka biltzea auzoz auzo eta karrozak

Ortzegun Gizenarekin hasiko dira Etxalarren ere inauteriak. Goizean etxez etxe ibiliko dira neska-mutikoak *Ortzegun Gizen, Ortzegun Gizen, zingar-arraultze bat ez bada bertze* eskatuz. Arratsaldean, **14:30ak** aldera, plazan izanen dute hitzordua Landagain eskolako ikasleek eta handik abiatuta, karriz karriz beraien antzezlanak eskainiko dituzte.



OTSAILAK 19, igandea

Zaldun Inaute egunean ez da aparteko ekitaldirik inauterien egitaruan, baina hori bai, herriko ostatu eta jatetxeak gainezka izaten dira, hainbat adinetako **kinto bestak** izaten baitira. Eguerdi partean aperitiboak, ondotik bazkaria eta arratselan poteoarekin segituko dute.



OTSAILAK 20, astelehena

Astelehen Inaute egunean herriko gazteak bi taldetan banaturik batzuk **goiko auzoan eta bertzeak beheko auzoan eskean** ibiliko dira egun guzian zehar. 08:00etan abiatzen dira eta **bazkaria** Armitxen eta Usazaleen etxolan egiten du talde bakoitzak. Arratsean herrira itzuleta eta poteoa izaten da eta pintxo afaria.



UTZITAKO ARGAZIAK

Etxalarren karrozak asteartearekin aterako dira.

OTSAILAK 21, asteartea

Astearte Inaute eguna izaten da hondarrekoa Etxalarren. Goizean herriari itzulia emanen zaio mozorro eta karrozekin. Aurtengoan berrikuntza bezala, arratsaldeko

18:00etan Beñat akordioilaria ibiliko da ostatur ostatu eta ilunabarreko **20:00etan** taloak izanen dira salgai herriko etxe azpian.

BERTSOLARITZA → NAFARROA MAILAKO TXAPELKETA

Taldekako bertsolari txapelketako saioa eginen da ortziralean gaztetxean

Beratarren eta leitzarren arteko saioa izanen da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsolaire Elkarteak antolatu duen Bardoak 2012 Nafarroako taldekako bertsolari txapelketako saio bat Kaxerna gaztetxean eginen da. Ortziralean honetan, hilak 10, izanen da.

Beratarren taldeak Leitzako Leitzauendi taldea izanen du aurkari eta 21:00etan hasiko da lehia. Merendu-afaria eginen da lehenbizi eta ondotik emanen zaio bertso emanaldiari hasiera.

Beratarren taldean, Julen Zelaieta, Patxi Castillo eta Aitor Elexpuru dira bertsolariak; Garaxi Taberna gai-jartzaile edo aurkezle lanean ari da eta taldeko ordezkariak Igor Lasaga *Matxako* eta Anjeltxo Aranibar dira.

Otsaila gaztetxean

Hainbat ekitaldi izanen dira Kaxerna gaztetxean hilabete honetan. Otsailaren 4an presoan aldeko mendi marxa egitekoa zen; ortziralean honetan aipatu bertso saioa jokatu da eta hilaren 17an, film laburren emanaldia izanen da 22:00etan hasita. Gero, mozorro besta eginen da.

Hilaren 24an, ska gaua antolatu dute eta 22:00etan kontzertuak eskainiko dituzte Guaka eta Luz deputas taldeek.

Biharamunean, Kaxer-notegia izanen da. 14:00etan sagardotegiko menuarekin bazkaria eginen da eta ondotik bertsolariak izanen dira.

Martxoaren 10ean eskualdeko gazte eguna eginen da eta 17an reage-hip hop gaua.

Mus txapelketa

Aurten ere, mus txapelketa antolatu du Gure Txokoa elkarteak inauterietako larunbatean, hilaren 18an, lamotenean. Txapelketa 16:00etan hasiko da eta izen-emaitea 15:00etatik aitzinera egin beharko da, bikoteko 12 euro ordainduta. Sariak ederrak izanen dira: lehenbiziko bikoteak 400 euro eta txapelak eskuratuko ditu; bigarrenak bi afari Zubiondo jabetxean; hirugarrenak bi afari Zalainen eta laugarrenak Martikoren bi lote.

UPNren oharra

Guardiazibil baten eta bere familiaren aurka kirodegiko horman pintada bat agertu dela salatu du UPNk. «Berehala ezabatzeko» eskatzeaz gain, guardia zibilar eta senideei elkartasuna adierazi die. «Ekintza hau bizilagun guztiak babes ten dituen Guardia Zibila bezalako erakunde baten kontrako bertze mehatxu bat da eta ez da onargarria demokrazian», dio. Herrian pintada gehiago ere badaudela gaineratu du: «ETAren presoan aldekoak eta



Bardoak 2012 txapelketan parte partzen ari diren 'Beratarrak'.



ARGAZKIA: LABIAGA IKASTOLA

Larun Ttiki Mendi Taldea saritua

Urtarrilaren 20an Ikastolako Larun Mendi taldeak Nafarroako Mendi federazioaren saria jaso zuen, bere sorreratik, duela ia 40 urte, haur eta gazteen artean mendi zaletasuna bultzatzeko egiten ari den lanagatik. Ikastolak Mari Jose Errandonearen lanari aipamen berezia egin nahi izan dio.



UTZITAKO ARGAZKIA

Merkataritzari buruz gogoeta egiten

Merkataritzari buruzko gogoeta prozesu parte-hartzaileak aitzinera segitzen du. Dagoeneko hiru saio egin dira, azkena astelehen honetan egitekoa zen.

hauen hurbilketa eskatzen dutenak» eta talde erregionalistaren arabera, «honek herritarrak aspertu eta nekutzen ditu».

Txirindularitza

Txirindularitzako lizentziak egiteko eskaria orriak lamotenean eta Katea Biken eskura daitzekeela jakinarazi du Gure Txokoa Elkarteak.

Inauterietako prestaketak

Kaldereroetako prestaketak ortzegun eta ortziralean honetan, hilak 9 eta 10, eginen dira, 20:00etan Musika Eskolan. Eta inude eta artzainenak otsailaren 15 eta 17an, 20:00etan Eztegarapilotekuan. Bazkarirako txartelak entsaio egunean eginen dira salgai.

Xorroxin ibiltaria Ricardo Barojan

Xorroxin irrati ibiltaria Ricardo Baroja ikastetxean egonen da astearte honetatik ortziralerara. Astearte eta ortzegunean, 09:30etik 16:10era ariko dira eta Asteazken eta ortziralean 09:30etik 13:00etara. Tartean atsedendia ere eginen dituzte.

LESAKA

HERRIKO ETXEA → IAZ BAINO GUTTIXEAGO

2,7 milioi euroko aurrekontua izanen du Udalak

Bilduren aldeko botuekin eta PNVren kontrakoekin onartu zen

Aitor AROTZENA

Herriko Etxeak 2.753.260 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurrean, Bilduren aldeko botuekin eta PNVren kontrakoekin onartutako udal aurrekontuaren arabera. Andra Mari Zahar Etxeko aurrekontua, berriz, 700.900 eurokoa izanen da.

Azken urteetan bezala, udalaren zorra kontuan hartuz, guttieneko aurrekontu bat izanen da, eta inbertsio gutti eginen dira. 398.000 euro joanen dira inbertsion, gehiena azpiegituren mantenturako, auzoetako bideak moldatzeko, landatze lanetarako eta gutti gehiago. 400.000 euro inguru, aitzinetik eskatutako mailleguen amortizazioan joanen da eta kopuru horretatik 150.000 euro interesak ordaintzeko soil-soilik izanen dira. «Gastu soziala eta euskararen diru-sailak mantendu dira eta gastu arruntetan eta langi-

legoan jautsi egin da, 56.700 euro». Udallangileek lan-zama gehiago hartzeko borondatea erakutsi dute eta gauza aunitz auzolanean egiten segitu beharko dela azpimarratu dute Herriko Etxetik, horretarako beharrak aztertuko dituen lan-talde bat sortuz.

Halere, aurrean Kultur Etxea egingen da, baina diru-sail hori ez da ageri aurrekontuetan, dirulaguntza abenduan sartu zelako eta legez, ondotik aurkeztu behar delako aurrekontuen moldaketa.

URBANIZAGARRIAK EZ DIREN LURREN AFERA

Bertze aldetik, lur ez urbanizagarrien afera ahal bezain abudo moldatzeko asmoa ere azaldu dute Herriko Etxetik. Azken hiru urteetan lur horietan eraikitzeko espediente guztiak geldiaraziak ditu Nafarroako Gobernuak, herrian 16 inguru. Lur ez urbanizagarrian eraikitzeko araudia egitea eskatzen dute lruñetik eta aitzineko Udalak proposamena aurkeztu zuen, baina Nafarroako Gobernuak ez zuen onartu eta aldaketak proposatu zituen. Geroztik, POT edo



ARGAZKIA: FOTO GOIKO

San Antoneko erromeria euripean

Euriari aurre eginez, San Antoneko erromeria ospatu zen Endara auzoan. Halere, eguraldi hezeak eta goizean bota zuen euriak normalean San Anton eguna ospatzen duen jende aunitzen gogoia zapuztu zuen eta azken urteetan baino jende guttiago hurbildu zen. Beti Gaztek antolatutako mendi ateraldian 20 bat lagun joan ziren.

Lurraldearen Antolaketan Plana ere onartu da, eraikitzeko oraindik ere baldintza gogorrak ezartzen dituen. Gai garrantzitsua da eta kontuz aztertu behar delako aipatu digu Peio Etxabide alkateak: «Ez dugu presarekin ibili behar eta behin behinako soluzio bat bilatu nahiz txapuzta bat egin, etorkizunean herria nola garatu behar den horrek zehaztuko baitu araudi horrek».

Beti Gazteren batzarra

Otsailaren 11n, larunbatean 19:30ean lehen deialdian eta 20:00etan bigarrenetan egingen da Beti Gazte elkartearen urteko batzar nagusia. Joan den urteko akta irakurri eta, bidekoa bada, onartu on-

dotik, iazko ekitaldiak eta kontuen balantzea eta aurtengorako presatu diren ekitaldiak eta aurrekontua aztertuko dira. Kuoten eguneratzeaz, askotariko informazioaz eta zuzendaritza batzordearen berriaz aritu ondotik esker-ahalekin txanda izanen da. Bukatutakoan, lunch ttiki bat eskainiko da elkartearen egoitzan bertan.

Ezkontza eta hiletazibilen ordenantza

Ezkontza zibilak eta hildakoen aldeko agurrak edo omenaldi zibilarazteko ordenantza behin betikoz onartu du Udalak, inork ez baitu alegaziorik aurkeztu. Herriko Etxean eta arkupetan arrosa botatzea debekatzen du, bertzeak bertze.

Edoskitze taldeak berendua

Otsailaren 9an, ortzegun arratsaldeko 18:30ean Edoskitze Taldeak berendu bat antolatu du Koskonta Bideko 7ko bigarren pisuko udal aretoan. Bularra ematen ari diren ahalik eta ama gehien biltzeko asmoa dute, edoskitze naturalaren aldeko publizitatea egiteko. Agertzen diren artean liburu bat zozketatuko da.

Psikomotrizitate ikastaroa

Otsailaren 11n, larunbat goizeko 09:30etik 14:00etara Bizitzako atal desberdinetako psikomotrizitate heziketa formakuntza ikastaroa eskainiko da Koskonta Bideko udal aretoan.



INAUTERIAK → INAUTERIAK OTSAILAREN 16TIK 21ERA

Hurbiltzen ari zaizkigu inauteriak!

Ortzegun Gizenak emanen die hasiera

Irune eta Itsaso

Ortzegun Gizen egunean Landagain eskolako ikasleek antzerkiak egingen dituzte eta horrela emanen zaie hasiera inauteriei. Eguraldi ona izanez gero, herrian barrena auzoz-auzo ariko dira antzerkiak egiten, eta eguraldiak laguntzen ez bada, berri, frontoian egingen dituzte. Ondotik berendua izanen dute plazan Guraso Elkartearen eskutik.

Otsailaren 17an, ortzirala, 18:30ean *Gezurrezko printzea* antzezlan (bakarrizketa) izanen da Kultur Etxean. Antzezlan ordaintzeko sarre bat ordaindu beharko da; helduek 5 euro eta 16 urtetik beheitikoeak doan. Ondotik pinxtok dastaketa izanen da.

Otsailaren 19tik aitzinera ohiko ekitaldiak egingen dira: kinto bestak, eskea eta mozorro eta karroza desfilea. Xehetasun gehiago aldizkari-ko gehigarrian.

Sagardoa salgai

Gazteek sagardoa paratu dute salgai, sagardo botila euro batean. Interesa duenak 676 249489 telefonora dei dezala (Garazi).

Sagardotegira irteera

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere gazteek sagardotegira irteera antolatu dute. Akarregi sagardotegira izanen da (Hernani) martxoaren 17an, baina otsailaren 26a baino lehen izena eman beharko da Herriko Ostatuan, 20 euro ordainduz. Autobusa 13:00etan aterako da herritik eta 03:30ean izanen da itzulera. Autobusa betetzen ez bada, ez da irteerarik egingen.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

'Finlandia' programan publiko

Urtarrilaren 31n Andre Mari dantza taldeak egindako deialdia zela eta, 55 herritar ETB1 eko Finlandia programara joan ziren publiko gisa. Egun horretan grabatutakoa otsailaren 5ean emititzekoa zen.



ARGAZKIAK: FERNANDO OLAETXEA

Mendi irteerak

Urtarrilaren 22an San Antonera egin zuen irteera Zapingorri mendi taldeak eta 25 lagun animatu ziren. Urtarrilaren 29an, berri, urtero bezala Sunbillako inauterietara oinez joan ziren. 19 lagunek egin zuten itzulia eta ondotik giro ederrean Larraburuan bazkaria egin zuten.

ERROTAZAR
harategia

Berrak
produktuak

Estategia, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 058

USOA
Nekazarri kooperatiba

Bertan egindako perisuaik, bertze markak eta ekologikoak
Organak - Burdin tranak
Insektizidak - Edanak - Harak
Botiak (irrezistenteak)

Etxez ebeko banaketa egiten da
Kalefaktzioa eta ibigailuendako gascioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 + ETXALAR

XIFRE

ARRAZO 1 - BERA
www.xifre.net

LABEZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

LEGARRA

Egunkariak | aldizkariak | liburak | oporrik | bitarteko bitartekoak | enkuidemazioak | plastikazkoak | tax publiko

ZERBITZU BERRIAK!!

FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
USB-lik zuzenean inprimatzen dugu

Tel: 948 63 70 30 - Asteleke, 9 - LISAKA

ARANTZA

GIZARTEA → APIRILAREN 21EAN

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek ikuskizuna eskainiko dute Beran Pelle Ttikiren alde

Pelle Ttiki haur eskolak sei ikasle ditu

Nerea ALTZURI

Sortuz geroztik, Herriko Etxeak eta gurasoek irautearen aldeko apustua egin dute eta horretan burubelari lanean ari dira. Iaz, Porrotx eta bere lagunekin egunpasa ederra antolatu zen hilabete honetan eta babes ederra izan zuen egitasmoak. Aurtengo erronka haundiagoa da. Heldu den apirilaren 21ean, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak eta beren taldearen *Zazpikoloroa* azken lana taularatuko da Berako Eztegarra frontoian Pelle Ttikiren alde. Momentuz, eguna urruti xamar dago eta informazio gehiago jaso ahala (sarreraren salmenta puntuak eta abar), tarte honetan emanen dugu. Koldobike Gorostiza hezitzailea bertan dela, ikasturte honetan sei ikasle daude haur eskolan.

Inauterietan bete-betean!

Honez gero, iragarriak ditugu baina sekula ez da sobera izaten inauteri kontuak orotaraztea. Ortzegun honetan, otsailak 9, mozorro saltsa hasiko da eta igande goizaldera bitarte batek baino gehiagok besta arrastorekin jarraituko du. Bakoitzarentzat bere

herrikoak izaten dira hoberenak... eta herriko bestak nahiz inauteriak aukeratzeko emanda, edonork dudatuko luke. Ahal duenak eta gogoia duenak, bete-betean ospatzen ditu bi data seinatuak... Orain, ordea, inauteriak ditugu. Bertako eta ingurukoentzat erakargarriak izaten dira egun hauek eta batez ere, larunbatean biltzen

da jende gehien. Hiru eguneko egitarauan murgiltzear daude herritarrak. Mozorro Xurien ardura izaten da inauterrien antolaketa baina erran beharrik ez dago, herritarren borondate, harrera eta eskupekoari esker aitzin egiten zaiela gastuei.

Mozorro Xuriak, helduak nahiz gaztetxoak puxka-puxka ibiliko di-

ra. Ortzegun eta ortziralean, baserrietan eta herri kaxkoan, hurrenez hurren, helduak ibiliko dira; gaztetxoak, berriz, ortziralean hasita. Hori bai, eskolako lagunek, ortzegunean Mozorro Xurien bisita jasoko dute goizean eta kolorezko bizkarreko eleganteak prest dituztenez, bizkarrean paratuko dizkiete. Arratsaldean, eskolan mozorro besta izanen dute.

Ortziralean, Burlada jatetxean emakumeen afaria izanen da; Aterpean, berriz, Sebastian Lizaso eta Jexux Mari Irasurekin bertso afaria. Eta gauerditik aitzinera, bertako musikaria den Modestok arratsa alaituko du gorapean.

Larunbat arratsaldean, haur mozorrotuen desfilea eta berendua egingen dira. Mezondotan, Mozorro Xurien arteko herri kirol desafioa izanen da. Agian, ilunabarrean, Mozorro Beltzen agerraldia izanen da, auskaldo! Eta arratsean gorapean, Hobenauke taldearekin dantzaldia izanen da.



ARGAZKIA: ITXASO ALEMÁN (EHNE)

Baratze ekologikoaren ikastaroaren arrakasta

Argazkian ageri diren hauetako bati baratze ekologikoaz zerbait galdetuz gero, seguru erantzun egokia emanen lukeela. Horretaz ikastaroa jaso berri baitute Manu Esparzarekin, EHNE sindikatuaren eskutik. Tailer honek herritar gehiagoren arreta ere bereganatu du eta seguruenik martxoan baratze gintza ekologikoaren inguruan bertze ikastaro bat antolatuko da, hau ere Manu Esparzarekin.

udana salazones

Importaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta
Bakailu gaztuta eta konjelatua, erabiltzeko prest

Kalitatea: Berant, 8 - 23. pabiloia - LESABA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 500

Alberto RETEGI
abokatu

© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

ERREKALDE

Plaza: 17 - BERA

Tfnoa: 948 630 259 - BERA

IGANTZI

KIROLA → UDAL KULTUR BATZORDEAK ANTOLATUTA

Nafarroako bi xake txapeldunek erakustaldia eskainiko dute Igantzin

Antolatzaileek eskualdeko xakezaleak gonbidatu dituzte

Joxean ORTEGA

Xakean punta-puntan ari diren Unai Garbisu eta Mikel Ortega jokalaria herrian izanen ditugu otsailaren 26an, igandean. Biltokian edo eskolan izanen dira, 11:00etatik aitzinera.

Unai Garbisuk palmarens bikaina du gibelitik: Nazioarteko Miasua da, Nafarroako Txapelduna, 1999ko Euskadiko Txapelduna, 1995eko Espainiako Txapelduna gazteen mailan, Espainia mailan 30 onenen artean dago, xake jokalarien abilitadea neurtzen duen ELO metodoaren arabera, 2.444 puntu ditu.

Mikel Ortega, berriz, Espainiako 12 urtez azpiko mailako txapelduna da. Garbisu zein Ortega Orvina Xake Elkarteko ki-deak dira eta gure he-



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

Unai Garbisu xake jokalaria Euskal Herrian zein estatuan hainbat garaipen eskuratu ditu.

rritik pasako dira euren jokoarekin harrিতuta uzteko asmoz.

Simultanea izeneko partidak jolasten hasiko dira: beraietako bat agertzen diren aurka aldi berean ariko da (50 aurkarien kontra aritzen ahal dira!). Gero, itsu moduko partida bat jokatu-ko dute; Unai, begiak estalita, bertara hurbilduko den ausart baten aurka ariko da. Partida partaila haundian ikusiko dugu eta Mikelek komentatuko digu.

Ikuskizun itzel honetaz disfrutatzeko ez da xake jokalaria aparta izan behar: jokoa gustukoa izatea eta aritzen jakitea nahikoa litzateke. Adina ere ez da oztopoa izanen, 6-99 urte bitarteko guztiak etortzen ahal dira eta.

Bortzirietako xakezaleak Igantzira gonbidatu nahi ditugu, ea guztien artean *munstro* hauek zailtasunean partatzen ditugun eta auskalo, ea norbaitek partida irabazten dien!

Biltokiko zuzendaritza berria

Biltoki elkarteak zuzendaritza batzordea berri du. Hamabi lagunek osatzen dute batzordea eta urtero erdia berritzen da. Horixe egin zuten urtarilaren 21ean. Idoia Urtxegi presidentea, Rosa Sein diruzaina eta Jabier Telletxea, Miren Mitxelena, Aitor Almandoz eta Xabi Almandoz bokalak juntatik atera dira eta horien ordean, ondoko hauek sartu dira: Ana Irigoien

lehendakaria izanen da, Jone Urtxegi diruzaina eta bokalak Beñardo Petrikorena, Xabi Aranguren, Jose Luis Sein eta Gaspar Sein. Berzte urte batez, zuzendaritzan segituko dutenak hauek izanen dira: Iban Txoprena lehendakariordea, Amaia Goienezte diruzaina, Sonia Taberna idazkaria eta Mari Karmen Etxeberria, Urtzi Loiarte eta Mikel Urtxegi bokalak.

Zuzendaritza batzordea aldatzeaz gain, hainbat gai izan zituzten hizpide Biltokiko batzorearen. Horien artean, elkartearen Internet paratzea erabaki da eta web orria egitea ere proposatu da.

Olentzeroren gaia ere mahai gainean izan zen. Bere garaian, Biltoki elkartearen izan zen Olentzeroren antolatzen hasi zena, eta gerora bertze elkarteekin elkarlanean antolatzeari ekin zion. Antolaketa lana berriz Biltokiren esku gelditzea proposatu da, eta bertze elkarteekin laguntzarekin egiten luke.

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

Urdulanda

Permanente 11 € 10eko DESKONTUA
2 pertsona: 1.gorak MATRIKULA DOAN
2.ak HILABETE BAT DOAN

BIDASOA

BEZELAKA - BERRIZOIA
ESTRELLAS - ALZAR - BAKTIBARRIA
BERRIZOIA - BERRIZOIA
T.F. 859 971 442
BERA

F. LANCHAS

Akudialorea eta herri-zerbitzua
Parkes eta parkes futzazaleak
Jartze
Mota guztietako solas
Tel: 948 630 755 - M: 607 406 781

J. RAMOS

zolak akuzatuta dago
barnizatzen dituzte.

Sakelakoz: 637 836 073 - LESAKA

Javier Manterola

Tekniko antolatzailea
buruzagia - gero
kalifikazioa
Tfno: 629449902 - BERA

SUNBILLA

GIZARTEA → SAHARAZTANEK ANTOLATUTA

'Sahara sahararrentzat' dela aldarrikatuko da otsailaren 24ko bestan

Afarira joan nahi duenak otsailaren 19a baino lehen apuntatu behar du

Maider PETRIRENA

Otsailaren 27a Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoaren aldarrikapen eguna da. Duela 35 urte aldarrikatu zuen saharar herriak errepublika, 1976ko otsailaren 26an Espainiako azken soldadua Saharatik atera eta hurrengo egunean, hain zuzen. Eta hori modu berezian gogoratu nahi izaten du Saharaztan taldeak.

Urtero eskualdeko toki bat aukeratzeko ekitaldiak egiteko eta aurten, Sunbilla aukeratu du. Otsailaren 24an

eginen da besta, *Sahara sahararrentzat* lelopean.

EGITARAUA

Arratsaldean hasiko dira ekitaldiak. 17:00etan haurren jokoak izanen dira frontoian. Ondotik, 18:30 aldera, elkarretaratzea eginen da plazan *Sahara sahararrentzat* lelopean. 19:00etan *Sahara okupatura brigada* izenburupean hitzaldia izanen da Erratzuko gazteen eskutik. 21:00etan afaria eskainiko da, eta saharar erara egingo dako couscousa dartzeko aukera izanen da, borts eurotan. Afaria irekia izanen da eta edozein joan daiteke.

Afarirako apuntatzeko ondoko telefonora deitu behar da: 679 717619. Otsailaren 19a izanen da izena emateko azken eguna.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Inauteri ederrak aurtengoak ere

Giro ederrean pasatu ditugu sunbildarrok inauteriak. Urtarrilaren 27an 33 gaztek eman zioten inauteriei hasiera baserriz-baserriz puxkak biltzen. Arratsaldean, berriz, eskolako haurrek izugarriko antzerki erakustaldia egin zuten frontoian taldeka zirkuko pertsonaiak imitatuz. Gauean eta azken hamazazpi urtetan bezala, emakumeen afaria egin zen Ulibeltzak Elkartearen. 103 emakume elkartu ginen eta hagitz giro polita egon zen. Urtarrilaren 28an gazteek herrian barna eskean segitu zuten. Arratsaldean, berriz ere haurrek Ulibeltzak elkartearen musika izan zuten. Urtarrilaren 29an, orgen desfilea egiteko aukera izan zen eta denborak lagundu egin zigun. Bukaeran, urtero bezala, zerri eta bildots bana zozketatu ziren. Zerria Joxemi Petrirenari tokatu zitzaion eta bildotsa, berriz, Miguelxo Jorajuriari. Kasualitate, baina bi sariak herrian gelditu dira. Inauteriei akabildateko Ulibeltzak Elkartearen bazkaria egin zen eta ondotik, Jalisko Band-ek giro polita jarri zuen bertze urteetan bezala.

BERA DOÑENA, ILL.
 BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
 Bidaxoa, 76 • atzea 21-22 • 31780 BERA

ZUBIONDO
 Jatetxea
 Alasta KARRIKO
 BERA NAHARRON

HERMANOS TELLOTTA
ERAIKUNTZA LANAK
OIKOKORREAN
 Zuzenberritasun
 sukak, kominak...
 Alkatzenak,
 larrzak, garapak...
HT BERA (Naharra)
 670 064 744
 948 630 554
 albertalobos@gmail.com

PRIM, c.b.
 Bizkortze Zentroa

- Kiroi Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
 Colan Fas. 6 • atzea • Tel-Fax: 943 632050 • IRUN

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK OTSAILAREN 16TIK 18RA

Mozorro eta karroza hoberenak sarituko dituzte merkatariek

Ortzeguneko triki poteoarekin hasiko dira

Nerea TELLETXEA

Inauterien egun ofizialekin bat eginez ospatuko dira gure herrian ere inauteriak, otsailaren 16etik 18ra. Egunez eguneko ekitaldien berri aldizkariko gehigarrian aurkituko duzue, baina aipatu, aurtengo inauterietan Doneztebarrak Merkatarien Elkartek bi opari sorta banatuko dituela, mozerro eta karroza hobereinei, hain zuzen.

Txirrindularitza

Erreka Kirol Elkartean geroz eta txirrindularitzako federatu gehiago daude. Aurtengo denboraldian federatzeko epea ere ireki da dagoeneko eta bertze urteetako pausu berak eman behar dira. Hala ere, informazio gehiago behar izanez gero, www.erreka.org web

orria kontsultatu edo Xabier Bañaresekin harremanetan jarri.

Pilota

Erreka Elkartek antolatu duen eskuz binakako X. Malerrekako Pilota Txapelketan 184 bikote parte hartzen ari dira. Pilotari guztiak alebin mailatik elitera bitar-

tekoak dira. Txapelketako partidak jokatzeko kanporaketa sistema erabiltzen ari dira eta

bertze aldaketarik ez bada, finalak hila- laren 25ean izanen dira.



Ba al zenekien...

2011ko abenduan, 56 langabe gehiago zeudela herrian 2007ko abenduko datuekin konparatuz? Enplegu Bulegoaren arabera, 2011 hondarrean 101 herritar zeuden lanik gabe; 2010 hondarrean 96 doneztebar ziren; 2009an 84 herritar; 2008an 72 doneztebar eta 2007an 45 herritar.



ARGAZKIA: ZALDUA

Erreka nor baino nor Txapeldunen Fasean

Dagoeneko badakigu zein talde egonen diren Errekarekin batera aurtengo Txapeldunen Fasean: Maristas, Oberena, Cantolagua, Huarte, Anaitasuna, Anaitazarra eta Bardenas. Zortzi hauen artean lehenbiziko lauek asteburu bakarrean erabakiko dute Liga Txapelduna nor izanen den. Apirilaren 14an eta 15ean Uhartean jokatuko dira lau talde hoberenen arteko finalerdia eta finala. Ea Erreka hori kusteke aukera dugun!

HONDAKINAK

Hiri Hondakinen Mankomunitateko otsaileko zozketa

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak eta Malerrekako Mankomunitateak etxez-etxe banatuta egutegiekin duten zenbakiarekin, otsaileko zozketa egin da eta hauxe da zenbakisariiduna: 1.574. Saria bi lagunendako bazkari bat izanen da, Elbeteko Posadan. Aipatu, bertzalde, urtarrean ez zela zenbaki sariduna atera. Hilabete hondarrean bukatu zen epea, eta beraz, orain ezin da saria eskatu. Otsaileko zozketaren saridunak hilaren 29a baino lehen deitu behar du Bortzirietako Mankomunitatera: 948 635254. Zenbaki sarituak www.bortziriazabor.com web orrian argitaratuko dira, eta TTIPI-TTAPAREN Merkatu Ttikia atalean ere bai.

KOXKONTA *Jatetxea*

2012an ezkontzen diren bikoteendako Promozioak

Tel: 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 657
Otsango auzoa, 1 • LESAKA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etberitasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumekotutak

www.artekari.com

LESAKA: Siltiria, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

ITUREN

OSPAKIZUNAK → AKITU DIRA INAUTERIETAKO JOALDUNEN HARAT HONATAK

Joare soinuek giro ederra ekarri dute aurten ere inauterietara

54 joaldun bildu dira
Astelehenean
Iturenen

Arkaitz MINDEGIA

Pasatu berri dira hainbertze esperatu ditugun inauteriak, giro ederrean, gainera. Egun asko izandu dira, baina egunero besta, irri, soinu eta dantzaz estali dira gure herriko xoko guztiak.

Ortzegunarekin hasi eta hurrengo igandera arte izandu ziren, tartean gorputzari atsedenaaldi tiki bat emanez. Egunik ospetsu edo indartsuenak astelehen eta asteartea izandu ziren. Astelehenean Iturenen izaten da hitzordua jarria, eta Aurtizko eta Zubietako joaldunek egiten diete bertako koei bisita, mozorro eta karrozekin batera. Eta aurtengoan joaldun parrasta izandu dira, bertako 22 joaldun, Aurtizko 14 eta Zubietako 18, tartean Iturengo Hartza bere zaintzailearekin ere bai. Karroza eta mozorro politikak ere ikusi ziren, erraterako, itsasontzi bat, Aurtizko suhitzai-leak, Aurtizko Bordatxo, emakumeak hil eta mundua akitu... Mozorroetan, berriz arrantzaleak, faisán gisako emakumeak...

Asteartean Zubietako herriaren eguna izan zen eta han ere kua-drilla galanta bildu zen, joaldunak, adibidez, denetara 66, bertakoak 24, Aurtiztik 16 eta Ituren-

dik 26. Aurreko eguneko karrozek gain, berriak ere ikusi ziren, Zubietako *Barbie* bere as-toa eta zakurrarekin, haur batzuk kaiolan sartuta... Giro ederra egondu zen bi herrietan, baina, aipatu, joaldunen bisitaren aitzinetik, Aurtitzen ere besta tiki bat izaten dela.

Momentu politikak izan dira, joaldunen elkartzearekin, ez ohiko txokoetan joare eta joaldunak ikustean... Bi egun hauek pasatu ondotik bertze egunetan ere joare soinuak entzuten dira. Aurtitzen, adibidez, asteazkenean eskean ibiltzeko bertako neska gazteek joareak jarri zituzten.

Bi egunetako atsedenaaldia egin ondotik, iturendarrak joan den larunbatean ere besta eguna izan zuten, kontuen eguna deitzen diotena. Egun horretan, dantzari, bertsolari, aitzolari eta Frantxiskoren doinuekin eman zioten amaiera inauteriei. Aurtitzen, berriz, larunbat gauean elkartearen zaharren afaria egitekoa zen, eta Joxeanjel akordeoi-lariaren musika doinu artean seguru giro ederra sortu zela. Hurrengo egunean, bestondoarekin, kontuak egin eta bazkariarekin inauteriak agurtzekoak ziren.

Urrezko aizkora

Ander Erasun aizkoria Ander Erasun aizkoria Ander Erasun aizkoria parte hartzen ari da, Lezaungo Lopezekin bikotea osatuz. Berriki, finalerdietara pasatu di-



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Adin guztietako herritarrak ikusi ditugu joareak soinean.

ra, Arbizon Olasagasti eta Txapartegi kanporatuta.

Pulunpa eskola

Astelehen honetan, otsailak 6, akitzekoa

zen, herriko eskolan aurrematrikulazioa egiteko epea.

tipi-Itape

- Pipenako udaldea
- Herrikoak
- Eguneko berriak
- Agenda
- Merkatu Itiki
- Figuraldi
- Inauterietak...

www.tipi.net

LARRALDEA
eta
LINDOURIENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Tolosa naztoa - LEKAROTZ | 948 452123 - 626 494317
LINDOURIENBORDA | Nabaz naztoa - LESAKA | 948 637212

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → AKITU DIRA INAUTERIAK

European izanagatik joaldunen harat honaten arrimuan inauteri ederrak izan dira

38 lagun izan dira aurten gazteen elkartean

Fermin ETXEKOLONEA

Euria ere ez da oztopo izan inauterietan giro ederra sortzeko eta inauteriak arrut ongi joan direla esatea ez da gezurra. Larunbateko afariarekin hasi zen inauterietako martxa somatzen. Igandea azken presatetak egiteko aprobatxatu zen eta astelehenean Iturenera ohiko bisita egin zuten joaldun, karroza eta beste herri-tarrek. Zubietatik hiru karroza joan ziren Iturenera eta giro polita sortu zen.

Asteartea euripean pasatu genuen, eta beharbada horregatik, aurreko urteetan baino jende gutxiago etorri zen bisitan. Halere, joaldun

eta mozerro asko ikusi genituen, haur, gazte eta heldu.

Aurtengoan 38 lagun bildu dira gazteen elkartean, joan den urtean baino bat gehiago, eta horiek izan ziren asteazkenarekin kontuak egiteko bildu zirenak. Kontuak ere ongi atera ziren eta joan den larunbatean sobranteekin afaria egitekoa zen.

Bestetik, aipatzekoa da, jende asko pasatu dela elkartetik otorduak egitera. Asteartean, esaterako, goizean goizetik mugimendu haundia izan zen eta Patxiku, Maria, Mertxe, Marijose eta Floritak lan asko eta ongi egin zuten. Modestok ere bere akordeoia soinean ederki bete zuen lana.

'EUSKARAZ BIZI NAHI DUT'

Kontseiluaren ekimenez, inauterietan *Euskaraz bizi nahi dut* zioen



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Inauteriak akitu direla, hurrengo urtekoetarako gutxiago gelditzen dela esan beharko dugu!

pankarta bat ere egon da herrian. Euskararen aldeko kanpainaren barnekarri zuten gurera eta hemendik Tolosako inauterietara eramatekoa omen dute.

KONTROLAK

Foru Polizia ere normalean baino gehiago etorri da inauterietan, batez ere asteartearekin.

Herrian zein auzoetarako pistetan kontrolak jarri zituzten eta horrekin jendea kexu somatu dugu, deseroso egon direla esan baitigute.

Haur Hezkuntzako eskola

Aurreko alean aipatu bezala, Udalak herrian Haur Hezkuntzako eskola irekitzeko proposa-

mena eskua artean dabilki. Urtarrilaren 20an bilera egitekoa zen gurasoekin baina oraindik ere informazio gehiago eman nahi du eta beste saiakera bat egin. Solasaldia Malerrekako eskola ttiketako koordinatzailearekin egingen da, baina lerro hauek idazterakoan eguna oraindik zehaztu gabea zen.

BERA Zere ingurera Mosa gaztelako inauterietan (xamorra, zinoarra, armarra, kaxaka...) eta pirata segurtasun garbitu nahi baduzu, delitu Termite eta Pipien tratamendua!

GOIKEN Inauteri Garbituaren Produktuak

Tel: 948 450 080 • Zuzen: 40 6 • 01010

Zalain
JATEXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa s/g. 31700 Bera - Nafarroa
T: 948 631 106 • www.zalain.com

APARAN, S.A.
BRINKOLALA eta ZURAK

Metamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate amuntak eta sukaike mobleendakoak
Pintura eta bernitzak
Bainurako mobleak eta osagaiak
KIT mobleak: esku-erremintak, itab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



Lan Topaketak
ZURAREN edota jardunaldia

Zuraren sektorearen etorkizuneko erronkari
Lanbide Heziketaren parte-hartze aktiboa.

1. DINAIRIA:
"BASOANTZA" taldea.

2. DINAIRIA:
"JATORRIZKO ZURAREN SAILKAPENA
ETA ESTANDARIZAZIOA" taldea.

3. DINAIRIA:
"ENPRESAK ETA PRESTAKUNTZA" taldea.

4. DINAIRIA:
"UNIBERTSITATEA ETA ZENTRO
TEKNOLOGIKOAK" taldea.

2012ko urtarorikaren
19a, osteguna
Irungo FICOBAn
9:00etatik 17:30era

Eguraren ondasuna elkarrekin bideratzen

*Zuraren sektoreari buruzko lehenbiziko lan jardunaldia egin berri da **Bidasoa Institutuak antolatuta** Irungo Ficoban. Ehun pertsona inguruk parte hartu dute, manera batean edo bestean zuraren sektorean zer esan handia dutenak. Hala, instituzioetako ordezkariez gain, zuraren sektoreko punta-puntako profesionalak, enpresak eta elkarteak, Zentru Teknologikoak eta Autonomi Erkidego desberdinetatik etorritako unibertsitate eta ikastetxeetako irakasleak bildu ziren.*

Zuraren sektorearen etorkizuneko erronkak: Lanbide Heziketaren parte-hartze aktiboa izenburupean, egurra, altzariak eta kortxoarekin zerikusia duen lan arloa izan zuten hizpide Ficoban elkartu ziren tekniko, enpresari eta irakasleek. Gai ugari jorratu zituzten goizarratsaldez. Zehazki, **zuraren sektorearen etorkizuna eta kualifikazio-beharretaz** aritu ziren M^a Jose Madariaga, Lanbide Heziketako zuzendaria eta Amaia Barrena, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendaria. **Zuraren erabileraz** aritu zen Fermin Olabe, Nafarroako Gobernuaren Oihan Kudeaketako burua. **Lanbide Heziketa berriaz** aritu ziren Izaskun Zabala, KEI-IVAC-eko Kualifikazio Arloko koordinatzailea eta Fernando Izaga, Itsasmendikoi-ko zuzendari teknikoa. Eta goizekoari bukaera emateko, lau taldetan banatuta honako gaiak aztertu zituzten: **Oihangintza, Zura jatorrian bertan sailkatzea eta estandarizatzea, Enpresak eta prestakuntza eta, Lanbide Heziketa, Unibertsitatea eta zentro teknologikoak.**

Arratsaldean, **Zura eraikuntzan: sektorerako beharrezko apustua** gai hartuta, mahai-inguruan aritu ziren INIAko Juan Ignacio Fdez. Gol-

fin, Kordobako Unibertsitateko Marta Conde eta Nafarroako Unibertsitateko Zur Katedrako zuzendaria den José Manuel Cabrero. Ondotik, **egitura-erabilerarako zurakezugarritzeko proiektuaren aurkezpena** egin zuten Bidasoa Institutuko Mari Jose Barriolak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendaria den Julian Unanuek. Honen ondotik, goizeko azken partean egindako talde-dinamiken ondorio eta laburpenak azaldu zituen Jesus Mari Caballerok, Tolosako Paper Eskolako irakasleak. Eta egun osoko jardunaldiari bukaera-ekitaldian hitzegin zuten Carlos Crespo, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Irakaskuntzako sailburuordeak, Javier Ruiz, Plangintza eta Enpleguko sailburuordeak eta Jon Azkue, Arrantza eta Elikagaien Industriako sailburuordeak.

Hutsune handiak

Sektoreak dituen gabezien artean dago oraindik ez dela zura mendian bertan sailkatu eta estandaritzen. «Gainera, 2012tik aurrera **Europako normatibak CE zigilua behartuko du egituretan erabiliko den zuran eta lan handia dugu egiteko**» azpimarratu du Jose Ignacio Iruetagoiena zuzendariak. «**Horretan ari gara bu-**



Egitura-erabilerarako zurak ezaugarritzeko proiektuaren aurkezpena. Julian Unanue, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendaria eta Mari Jose Barriola, Bidasoa Institutuko irakaslea eta proiektuaren koordinatzailea. Proiektu honen berebiziko garrantzia du sektore osoaren etorkizunarentzat.



Elizatxo, 10
20308 IRUN (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



www.fpbidasoa.org

Irakiera ekitaldia

Ezkerretik eskuinera *Jose Antonio Santano* Irungo alkatea, *Isabel Cella* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua; *Gemma Zabaleta* Lan eta Gizarte Gaietako sailburua eta *José Ignacio Iruretagoiena* Bidasoa Institutuko zuzendaria.

ru-belarri, egitura-erabilerarako zurak ezaugarritzeko proiektua lantzen». Oraingoz alerzteekin eginen dute azterketa eta, besteak beste, CE zigilua lortzeko beharrezkoak diren entsaioak, erresistentzia probak eta egurraren karakterizazio prozesuak basotik hasita landuko dituzte. Eta ez hori bakarrik, «*arbola botatzerakoan ilargiak egurraren kalitatean izaten ahal duen eragina ikertuko da iraunkortasun eta hezetasunaren frogak laborategian eginez*» dio Marijose Barriola proiektuaren koordinatzaileak.



Ondorioak eta etorkizunerako lanak

Garrantzia handia eta balorazio ezin positiboagoa egin diote Topaketari eta, bereziki, taldeetan egindako lanari. «*Oso aberasgarria izan da*» dio Marijose Barriolak. «*Talde bakoitzean estamentu desberdinetako jendeak parte hartu genuen eta hori aberasgarria da oso. Irakasleetan, adibidez, lehen aldiz elkartu ginen nekazaritza, zurgintza, altzarigintza eta eraikuntza eta obra zibileko espezialitateetan aritzen garenak*». Etorkizunari begira, Lan Topaketa honek balio izan du agerian uzteko zeinen garrantzitsua den harreman dinamika bat abiatzea modu iraunkorren, eta dinamika horretan inplikatu dira ikastetxeak, enpresak, instituzioak, unibertsitateak eta zentru teknologikoak.

Jarraipen handia. Komunikaziorako teknologia berrietaz baliatuz, zuzenean streaming bidez zabaldu zen jardunaldia (www.hiru.com/topaketak) helbidean. Jardunaldiaren materiala ere eskuragarri izanen dira helbide honetan

Fermín OLABE | Nafarroako Gobernuaren Oihan Kudeaketarako burua «Guztion arteko interkomunikazioa funtsezkoa da eta Jardunaldi hauek lagungarri izan dira»

«*Lan Topaketa hauek oso interesgarriak izan dira*». Horiexek izan dira Fermín Olabe, Nafarroako Gobernuaren Oihan Kudeaketarako buruaren lehendabiziko hitzak. «*Izan ere, hainbat erakunde elkartu ginen ikuspuntu desberdinetatik zuraren sektoreak duen egoeraz hitzegiteko. Administrazioak, zentro teknologikoak, prestakuntza zentroak eta era-*

kunde sektorialak. Nafarroako Ikuspegitik azpimarratu nahi izan genuen zuraren erabilera eta oiharen aprobetxamendu jasangarria sustatzea garrantzitsua dela oso, eta baita mendien planifikazioa eta zertifikazioa. Zentzu horretan, gizarteari orohar eta eragileei bereziki transmititu behar diegu zurbaterainoko abantailak dituen zuraren erabilerak».



Fermín Olabe Velasco

DONAMARIA

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 10ETIK 12RA

Ostiraleko bazkariarekin hasiko dira hiru eguneko inauteriak

Larunbatean dantzaldia izanen da Modestorekin

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Inauteri egun ofizialei aurre hartuz, asteburu honetan ospatuko ditugu gurean inauteriak, ortziraletik igandera. Tarte horretan, gisa guztietako mozorroak ikusteko aukera izanen dugu. Aitzineko urteetan, erizainak eta gaixoak, mojak, pailazoak, hippie-ak, toreroak, bakeroak, dantzariak, trafikoko langileak... Denak elkarrekin ongi pasatzen ikusteko aukera izan dugu eta ea

aurtengoan nor hurbiltzen den.

Ostiralean, otsailak 10, bazkaria izanen da Herriko Ostatuan eta ondotik, etxez etxe, gazteak eskean ibiliko dira herriko trikitilariarekin. Gauean afaria izanen da Herriko Ostatuan.

Larunbatean, otsailak 11, Herriko Ostatuango saria izanen da eta behin indarrak hartuta, eskean ibiliko dira. Bazkaltzerako Herriko Ostatura bilduko dira berriz eta gero, eskean segituko dute. Egun osoan, Itsaso eta Irune trikitilariak alaituko dituzte bazterrak. Gauean, Herriko Ostatuan eginen den afariaren ondotik, Modesto

INAUTERIAK | otsailaren 10etik 12ra



akordeoilariarekin gausa izanen da.

Inauteriak behar bezala agurtzeko, igande-

an, hilak 12, bazkaria izanen da.

LANA → 1.307 LAGUN ZIREN URTARRIL HONDARREAN IZEN EMANAK DONEZTEBEN

Inoiz baino langabetu gehiago ditu eskualdeak

Ilbeltzean % 8,92 igo da, Nafarroa osoko bulegoen artean igoera handiena

TTIPI-TTAPA

2011. urte bukaeran 1.200 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak. Hilabete beranduago 107 gehiago dira, 1.307. Langabeziko datua

ematen hasi zirenetik eskualdeak izan duen kopururik handiena. Nafarroan aunitz igo da langabezia, %6,82, baina eskualdean oraindik bortitzagoa izan da igoera, %8,92koa, Nafarroa osoko bulegoen artean handiena.

Urtarrilean 277 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 34 bakarrik izan ziren mugagabeak.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean somatu da gehien langabeziaren igoera, 535etik 590era igo baita langabetu kopurua ilbeltzean, eta adin tarte horretako emakumeen artean ere, abenduan baino 49 gehiago daude langabezian, 566 denetara. 25 urtez behe-tiko emakumeetan ere 62tik 67ra igo da langabetu kopurua eta adin



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela bi urteko langileen batzarra Saveran.

horretako gizasemeetan artean, aldiz, 86tik 84ra jaitsi da.

Lan arloei dagokionez, zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten eta urtarrilean, gainera, 748tik 825ra igo da langabetu kopurua arlo horretan. Industria arloan ere

227tik 240ra igo da eta eraikuntzan 140tik 158ra. Nekazaritzan 30etik 31ra igo da lanik gabe daudenen kopurua eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean eman da datu baikor bakarra, 53 lagun baitaude langabezian, abenduan baino 2 guttiago.

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Klase guztietako mozorroen artean giro ederrean joan dira inauteriak

Bi egunez ez da otordu eta muskarik falta izan

Mattin LARRALDE

Joan den urtarrilaren 20an, ostirala, arratsaldeko 8etan eman zitzairen inauteriei hasiera. Trikitixa eta panderoaren soinuarekin, gazteek mozorroturik herriari buelta eman zioten. Ondotik, afaria izan zen Hilarion jatetxean eta musika Herriko Ostatuan.

Larunbatean, goizean gosalduta eta motorra beroturik, gazteak eguraldiari kontra egi-

teko herrian barna puxkak biltzen hasi ziren, akordeoiarekin, Frantzisko zen soinujotzaila. Salda eta ardoa eskaini zitzaizkien eta bi txartel eman zituzten etxe bakoitzean. Ondotik, bazkaria izan zuten Hilarion jatetxean.

Arratsaldean, jende dezente ateratu zen kalea mozorrotuta. Klase guztietako mozorroak ikusi ziren. Lehiaketa bat ere izan zen, bi sari banatzeko. Azpimarratzekoa da, neska gazte batzuek egin zuten lana, telebistako programa baten antzezpena egin baitzuten. Oso polita izan zen. Gero egin zuten zozketa: bi



ARGAZKIAK: NERE ETXEBERRIA ETA MATTIN LARRALDE

Inauteri eder hauen ondotik, hurrengo urtekoen esperan egon beharko dugu orain.

afari Hilarion jatetxean eta bi zirkuitu bainuetxean. Segidan, Herriko Ostatuan berendua izan zen, eta dantzatzeko musika. Giro polita sortu zen. Gauean, berriz,

afaltzera joan zen jendea, herri guztiari irekia baitzegoen afaria. Eta bertan urdaiazpikoaren zozketa izan zen. Afalondoan, musika izan zen Herriko Ostatuan.

Hurrengo larunbatean, urtarrilak 28, mus txapelketa izan zen ostatuan. Eta arratsanean, afariaz gain, kontuak egin zituzten gazteek.

**GRUPO TANATORIO TALDEA**
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBIERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETTZA | BETELU
DORNEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BASTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRLINGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

LEGASA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK HIRU EGUNEZ

Ortzegunean hasi eta larunbatean akituko dira inauteriak

Ortzegunean inauterietako lehenbiziko otordua egingen da Kuku elkartean

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, eta ohiturak mantenduz, aurten inauteri garaia iritsi zaigu. Batzuk lehenago eta bertzeak beranduago ospatu, herri guztietan ospatzeko aukera izaten dugu.

Legasan, asteburu honetan ospatuko dira inauteriak, ortzegunean hasi eta larunbatera bitarte. Aurten goan ere hiru egun irauten ditu ospakizunak. Egitaraua, berriz, honako hau izanen da:

OTSAILAK 9, ORTZEGUNA

• Gauean, Kuku elkartean egingen den afariarekin hasiera emanen zaio bestari.

OTSAILAK 10, ORTZIRALA

• Goizean, beheitiko

karrikan puskek bilduko dira.

• Ondotik, bazkaria egingen da Kuku elkartean.

• Arratsaldean, berriz ere puskek biltzearekin diote, honako honetan, goitiko karrikan barna.

• Biltzen diren puskekin afaria egingen da Kukun.

• Ondotik, gaupasa izanen da elkartean bertan.

OTSAILAK 11, LARUNBATA

• 12:00etan disfrazen desfilea egingen da herritik barna. Abiapuntua Kuku elkartea izanen da.

• 14:00etan bazkaria izanen da Kukun.

• Ondotik musika izanen da.

Depuradorako lanak

Depuradorako lanak hasi dira. Egun hauetan topografoak ikusten hasi gara gure herrietan. Lehenengo fasearekin hasi dira eta Narbarte eta Legasa sartzen dira fase honetan.

INAUTERIAK | otsailaren 9tik 11ra



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goiko argazkia 2006ko inauterietakoa da eta beheitikoak joan den urtekoa.

Ostargi optika

%5 beste DESKONTUA produktui guztietan

ttipi ttapa

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berriz arazi taldea

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapa

Argi puztu indartuta

Ardiarana, S.I.

QUESOS DE OVEJA

KAMIKU

LEGASA - T. 680 53 93 00

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 17AN ETA 18AN

Aurten Herriko Ostatuan eginen dira inauterietako otorduak

Agerraldek alaituko du aurten ere ortziraleko afalondoa

Martin BERTIZ

Inauteriak, amets egiteko garaia, beste pertsona edo pertsonaiaren bat izateko aukera. Imajinazioa astindu eta egun batzuez egunerokoa aukera ezin hobea. Asmo horrekin edo bakoitzak nahi duenarekin ailegatu zaizkigu aurten ere inauteriak. Otsailaren 17 eta 18an ospatuko dira, ortziral eta larunbatarekin.

ORTZIRALEAN AFARIA, LARUNBATEAN ESKEA

Aurtengo inauterietako otorduak Herriko Ostatuan izanen dira. Hala, ostiralean, otsailak 17, afari batekin emanen zaio hasiera inauteriei eta ondotik, Agerralde akordeoilariarekin gaupasa izanen da. Animatzen dena mozorrotuta agertzen ahal da.

Biharamunean, larunbatean, gosaria eginen da eta jarraian etxez- etxe herriari buelta emanen zaio.

Gauean ez da afaria faltako eta gorputzak aguantatu arte besta egiteko aukera izanen da.

INAUTERIAK | otsailaren 17an eta 18an



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Narbarten inauteriak ez dira gaur egun bakarrik ospatzen, argazkian ikus daiteke 1920. urte inguruan ere, inauteriak nola ospatzen ziren. Besteak beste Pakito Ibargarai, Bentuneko Leontxo Arretxea eta Ontsariko Fermin Oteiza ikus daitezke.



Musinenea etxea

Jakinarazi digutenez, Musineneko etxeari buruz proiektu baten zirriborroa ailegatu zaio Udalari. Bertan etxea kultur helburuetarako ibiltzeko aukera ageri da. Ideia ZAIN Fundazioak (ondarearen ikerkuntza-zentroa) aurkeztua izan da. Zerbaiten berri jakiten dugunean hementxe azalduko dugu.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

MERKEALDIA

edredoi fundak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak
albormozak • maindireak • mantelak
kuxinak • toailak

SALDIAS

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 24 ETA 25EAN

Azkeneko inauteriak izanen dira

Afarietara joan nahi duenak abisa dezala tenorez

Markel LIZASOAIN

Herri guzietakoak akitu ondotik ospatuko ditugu inauteriak, baina gogorik ez da falta; aterra kontuak, Bulgaritik espres heldu baita bakarren bat! Despedida

usaia ere badu, Mexikora martxa duelako besteren batek. Koxkorro aritu zaigu mutil nagusi, eta hark mugitu dituzango eta hemengo bazterrak. Bileran beharrik ere ez du izandu; banan-banan joan denengana, eta jende sailtxo bat bildu du, etxez etxe ibiltzeko. Otsailaren hondarreko asteburua hartuko dute: ortziralaren 24 eta larunbata 25

(26a, maindire artakan egoteko).

Ortziralean, afaria eta mus txapelketa izanen dira, eta biharamunean, baserrietan eta karrikan ibiliko dira eskean, Aurtizko harrobiko trikitilariekin. Murrizketak direla eta, aurtan ez da bertolaririk izanen; gainera, bertakoen koplak txarrak adituta konformatu beharko du jendeari. Ortziraleko eta la-



ARGAZKIA: ORERETAKO MAIDER

Mutiko kozkor honek ere ez zituen galdu iaz inauteriak.

runbateko afarietarako, komeni da Taberneko

etxeakoandreei tenorez abisatzea.

MIEL MARI URRUTIA → ERREMONTA UTZI ETA MEXIKORA DOA

«Mexikon palan jokatzeko probatu nahi dut»

Aldi bateko bada ere, erremontea utzi eta emaztearekin Mexikora bizitzera joatea erabaki du Miel Mari Urrutiak. Hura dago atzelarrietan hoberekoena, eta Oriamendi enpresak esana dio atek zabalik utziko dizkiola. Mexikoko bidea hartzea «erabaki zaila» izan dela aitortu du Urrutiak. Eta zaila izanen zen, urte franko egin baititu erremontean. Duela bederatzita urte egin zuen erremonte profesioalera-ko saltoa, eta lehenagotik, beste bi urte aritu zen afizionatuetan. «Zaila izandu da erabaki hau hartzea, baina orain

hautsi beharra zen, eta, gogorra izandu bada ere, egin nezakeen hoberena da», adierazi du. Halere, ez du baztertu egunen batean berriz erremontean hastea: «Oraindik gaztea naiz, eta ezin da jakin berriz hasiko naizen edo zer egingen dudun. Enpresak atek zabalik utzi dizkit». Azken partidetakoa bat Oskar anaiarekin jokatu zuen, Galarretan, eta hagitza berezia izandu zen familia guziarentzat.

Mexikora joanda, bere bi-ziak «erabateko buelta» hartuko duela uste du: «Garbi



daukat zer egin behar dudun, eta dena aldatuko da. Orain artino, erremontetik bizitzeko zortea izandu dut, lanik egin gabe, eta orain etapa berria hasiko dut, goizetik lana egingez. Aiherrik nago proiektu berriarekin hasteko». Kirola, ordea, ez du alde batera utzi nahi, eta Mexikon jarraitzeko asmoa du: «Erremontea eta materiala eramanen ditut, eta entrenatzen segituko dut.

Etiket hurbil badut jokatzeko tokia, eta erremontean ariko naiz. Gerora, palan probatu nahi dut, han franko ongi aritzen baitira palaz. Entrenatuta eta kirola eginda ere, txar-tzea kosta egiten zait eta, deus ere egingen ez banu... Ez naiz geldituko, eta zaindu egin behar dut». Ibilbide berria Mexikoko hiriburuan hasiko du, familiakoek eta lagunak pres-tatutako agurra jasota.



Anduezteta, 12 | ETXALAR | 948635456

500 110 €
bisita txartel

Kartulina berezia 400gr. + koloretan bi aldeetatik + BEZa berriz

100 txartel 70€
250 txartel 85€
1000 txartel 150€

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 11N

Larunbat honetan eginen den gosariarekin hasiko dira inauteriak

Goizean Labaienen eta arratsaldean Beintzan ibiliko dira gazteak

Amaia MINDEGIA

Urtetan ospatu gabe egon ziren *iñoteak* Itur-Ondo elkarteak ireki zenean berreskuratu ziren. Orduz geroztik denetarik izan dugu gai inauterietan: Wazemank-eko pertsonaiak, guardia zibilak, trogloditak, pitufoak, gogoak, suhiltzaileak... Urtero gai ezberdinen bat aukeratu eta horren inguruan karroztxoren bat edo bertze egiten dute herriko gazteek. Bertzela ere, gelditzen den jendea nahi duen bezala mozorratzen da. Ea aurten zerekin harritzen gaituzten larunbat ho-

netan, otsailak 11. Itur-Ondo elkarteko kideek jendea mozorrotzera animatu dute, nahiz eta gauean afaltzera bakarrik agertu.

Larunbatean, 10:30 airean, gosaria izanen da Labaiengo Itur-Ondo elkartean. Mozorrotuta dagoen jendea hurbiltzen da gosaltzera eta indarrak hartzera egun osoan etxez-etxe ibiltzeko. Arraultzak, txistorra eta zingarra izaten dira eguna ongi haste-ko hoberenak. Ondoren poteoa hasiko da Labaiengo auzotik, herriko gazteek etxez-etxe puxkak bilduz. Aurten Arizkungo Mendiberrik karrikaronda alaituko du egun horretarako prestatutako kotxeen soinuen laguntzarekin. Etxe batzuetan edariak, gazta edo jateko zerbitu ematen dute, fruta, arraultzak... 14:00 alde-



ARGAZKIAK: JOANA ESTANGA

Gisa askotako mozorroak ikusteko aukera izan dugu inauterietan. Ea aurtengorako zer prestatzen duten!

ra Itur Ondo elkartean bazkaria izanen da. Arratsaldean baserri batzuetara joanen dira gazteak eta Beintzako auzoari ere buelta emanen diote puxka biltzeari bukaera emanez.

Ondotik, afaria izanen da Itur-Ondo elkartean. Goizaldera arte, erran bezala, Mendiberrik alaituko digu afalosteia. Dagoeneko gosari,

bazkari edo afarira apuntatzeko zerrenda Itur-Ondo elkartean paratua dago. Eskertzekoa litzateke otorduetara animatutako jendea asteazkerako apuntatu izana, elkarteko batzordeak jakin nahi baitu zenbat jende hurbilduko den otorduetara, batez ere afarira, gosari eta bazkarietan gazteak biltzen baitira eta urtero kopu-

ru berdintsua direlako. Bildutako puxken parte bat bazkarian ateratzen da, baina afaria aurretik prestatua egoten da: zopa, oilasko errea, bildotsa txilindronean eta gaztanbera izaten da ohiko menua. Puxka gehienak hurrengo asterako gordezten dira horiekin berriez afari bat egiteko gazteen artean.

BEINTZAKO OSTATUA
T. 948 450 811
ORBELA

LABAIENgo Herriko Ostaturia
Ongi pasa inauterietan!
T. 948 450 811

ERDIZ
ARKITEKTOAK + ABOKATUAK
AHOLKULARITZA ARHITEKTONIKO ETA JURIDIKOA
TXOSTENAK | PROIEKTUAK
OBRA ZUZENDARITZAK | ZAHARBERBITZAK
AHOLKULARITZA JURIDIKOA - ERRIKETA MOTA GUZTIAK
TELEFONO ARRETA: 17:00etatik 20:00etara
astrosanohetik ostirategi
Barahen Etorbidea, 17 - 3. Bidegora - IRUÑEA

merkatu ttikiko
IRAGARKIA
aldizkarian + Interneten
8 EURO
ttipi-ttapa
Tel. 948 635 458
www.ttipi.net

EZKURRA

AZPIEGIETURAK → OBRAK HERRIAN

Bi hilabetez egingen dira Baztaneatik Ansoneara doan bidea zabaltzeko lanak

Udalak Mariezkurrena enpresari agindu dio lana

Fernando ETXEBERRIA

Joan den urtarrilaren 25ean hasi ziren Baztaneatik Ansoneara doan bidea zabaltzeko lanak egiten. Guztiz beharrezkoa zen obra hau egitea, bestela, kamioiak modu arriskutsuan pasatzen baitziren herriko eremurik altuenera.

Obra hauek 93.000 euro kostako dira eta Udalak Mariezkurrena

enpresari esleitu dizkio lanak. Bi hilabete iraunen dute.

Aipatzekoa da, krisi ekonomikoaren eragina nabaria dela. Izan ere, Udalak enkantea egin zuenean hamar enpresa aurkeztu ziren deialdira. Horietako batzuk Iruñekoak, Erriberakoak eta Gipuzkoakoak dira.

Inauteririk ez

Joan den urtean bertso afari batekin ospatu ziren inauteriak, baina aurtengoa jakin izan dugunez, ez da inauteririk izanen.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Argazkian ikus daitekeenez, bidearen zati altuenean malda edo desnibel handia dago.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Eratsungo jubilatuen bazkaria

Urtarrilaren 29an urteroko festa egin zuten Eratsungo jubilatuek. Hasteko, herriko elizan hildako lagunen aldeko meza izan zen eta ondotik, Barranka ostatuan bazkaldu zuten. 22 lagun elkartu ziren, horietako gehienak Arkupeak-eko bazkideak. Elurrak eta hotzak ez ziren bazkari ederra egitea galarazi.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkartearen hilabeteroko ateraldiak

Arkupeak elkarteak-eko mendi taldeak lehenengo irteera urtarrilaren 18an egin zuen Ezkurran. Barranka estatutik abiatu eta Maloa aldera hartu zuten. Erakurri mendira ailegatuta gosalduta zuten eta eguraldi garbia zela aprobetxatuz, ikuspegi ederrez gozatu zuten, tartean Donostia ere ikusiz. Handik Ezkainera jeitsi ziren eta Olegiko bideari segituz, Iruñari menhorrera ailegatu ziren, Eratsungo lurrean. Kaste-neako bordatik barna jaitsi ziren eta lau orduko ibilaldiaren ondotik, herrira ailegatu ziren. Hurrengo hilabeteetarako ateraldi gehiago antolatuta dira. Otsailaren 15ean, Larun mendira igoko dira, martxoan Arizkunera joanen dira eta apirilean Leitzara.



GIZARTEA → 12-16 URTEKOEN TXOKOA

Guraso eta gazte gehiago sartu dira Gazte Txokoko komisioan

Ikasturteko egutegia eginen dute hilabete honetan

Asteburuetan zabalitzen ditu Gazte Txokoak atek, larunbatean 16:30etik 20:30era eta igandetan 16:00-etatik 20:00etara.

TTIPI-TTAPA

12 eta 16 urte bitarteko gazteak elkartzen dituen Gazte Txokoko komisioan izen berriak sartu dira. Orain arte, 12-16 urtekoen gurasoen izenean, Ana Lujanbio eta Mila Loiarde, Guraso Elkarteke Igor Elizegi, 12-14 urteko Lucia Etxeberria eta Garazi Loiarde eta Gaztetxeko Zuriñe Lujanbio izan dira komisioan egon direnak. Urtarrilaren 28ko bileran, ordea, lagun gehiago sartu ziren: Patxi Iribarren eta Jose Ramon Etxegia gurasoak ere komisioko kide izanen dira, eta Garazik utzi egin duenez, beste hiru gazte sartuko dira taldean. Lehendik komisioan zeudenak ikasturte bukaeran aterako dira.

Orain arte, ping-pongo edo futbolin txapelketak antolatu izan dituzte, baina hilabete honetan egutegia antolatzeke bilduko da komisioa. Dirua lortuz gero, ateral diren bat egin nahiko lukete.

Inauteriak gainean, festarako prest

«Kaixo goizutarra! Aurten ere zure etxe ingurua soinu eta dantzaz alaitzeko gogoz heldu ga. Astelehenean zehar baserrian eta astearten herrin izain gittozo, zure konpainiaz gozatzeke prest. Zu ere han izain zarelakon, jaso agur bero bat mozorron partez. Laster arte!», Mezu horixe luzatu die Mozorroen Taldeak herritarrei, inauteriak gainean dauden seinale. Aurtengo inauterien xehetasunak aldizkari honetako gehigarrian aurkituko dituzue.

UEMAko prestaketak

Aurreko TTIPI-TTAPAN aipatu bezala, aurtengo UEMA Eguna Goizuetan ospatuko da. Ekainaren 9an izanen da, eta egun guztiko festa izanen denez, hasiak dira prestaketa lanak. Herri mailan lantaldea osatu nahi da eta bile-



ARGAZKIAK: MAIALEN UITZI

Eskerrak emateko luntxa

Gazte Asanbladaren XX. urteurreneko egun handian, lagundu zuten herritarrei eskerrak eman nahi izan zizkieten gazteek, eta horretarako luntxa eskaini zieten urtarilaren 27an Umore Ona Elkartean. Ehun bat lagun elkartu ziren, eta luntxaren ondotik, urteurrenaren harira egindako bideoa ikusteko aukera ere izan zen.

UTZITAKO ARGAZKIA



Xanti Olaizola eta Mari Karmen Azpiroz Urrezko Ezteiak

1961eko abenduaren 30ean elkarri baiezkoa eman zion bikoteak 50 urte egin ditu ezkontuta. Xanti Olaizola eta Mari Karmen Azpiroz Urrezko Ezteiak egin dituzte eta hori ospatzeko urtarilaren 21ean Umore Ona Elkartean bildu ziren, beraien senide, seme-alaba, biloba eta iloben konpainian. Xantik eta Mari Karmenek lau seme-alaba eta bederatz bi biloba dituzte Goizuetan eta Lesakan. Lerro hauen bidez ere, zorionak!

rak egiten ere hasiak dira.

Astearte honetan, otsailak 7, lehenbiziko

bilera egitekoa zen udaletxean, besteak beste, helburuez, egitarauaz eta lemaz hitz

egiteko eta jendearen proposamenak eta iritziaz bildu eta lanean hasteko.

BAZTAN, BIDASOA eta XARETAKO AISIALDIA eta GASTRONOMIA GIDA

Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez dago, informazio interesgarri bidea

Aurten ere, Aisialdi eta Gastronomia Gida argitaratuko du TTIPI-TTAPA. Gure herritarreko jietako, ustako eta turismo zerbitzuen erakundeak gaituz, herrikoizkoak dituen zerbitzuak eta bisitariak herri herrietan aurkituko dituzten erakundeak ere bilduko ditu.

publizitatea
erreserbatzeko
deitu 948 63 54 58ra



LEITZA

GIZARTEA → UDALAK EROSI DU

Lau urteko prozesuaren ondoren Ibero herriarena da

Gobernuaren laguntzarekin erosi du Udalak

ren barruan aurreikusia zegoen.

Atekabeltzen otsaila kulturala

Egitarau kultural polita antolatu dute gazteek Atekabeltzen datozen egunetarako. Ostiral honetan, otsailak 10, *entrenamendu mentala jendaurreko saioak prestatzerakoan* ikastaro praktikoa izanen da Urko Arozenaren eskutik, eta gazteei zuzendua. 19:00etan hasiko da. Otsailaren 16an, osteguna, Lucio anarkista ezagun nafarraren bizitzaren inguruko dokumentalaren emanaldia eskainiko da, 19:30ean. Eta azkenik, 17an, ostirala, didgeridoo tresna australiarrekin musika emanaldia egingen da Iban Nikolairren eskutik eta ondoren, tailerra jotzen ikasteko. 17:00etan hasiko da. Horrez gain, eraikin osoaren garbiketa orokorra egiteko deialdia egin dute otsailaren 18rako.

JM BARRIOLA

Historia luzea du Ibero roko eremuak. Azken mendean, Leitzako Suteen Aurkako Elkartearena izan dira eraikinak eta inguruko lur eremuak. Elkarte desegitako prozesuan da eta Udalarekin egindako negoziazioaren ondorioz, Udalak berak erosi du Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Lau urte iraun duen prozesu luzea izan da hau, baina bukatu da eta herriarena da jadanik.

Eremu osoak 33 hektareako lursaila du eta Erdi Aroko torreak, base-riak, ola zaharrak eta Urumea errekaren gaineko zubiak osatzen dute eraikin multzoa. Herriari 227.470,96 euro kosta zaio eta %30eko laguntza izanen du Nafarroako Gobernuaren partetik.

Otemotz

Otemotzeko errekatik ura ekartzeko lanak bukatu ditu Udalak. Honen herriaren etorkizunari begira ur emaria nahiko izatea bermatuko du. Ur-hodi berria Otemotzeko errekatik deposituraino luzatzen da. 126.701,71 euroko aurrekontua zuen lanak eta %90ko dirulaguntza jasoko du Nafarroako Gobernutik. Azpiegitura Plana

Atekarock

Aurreko alean aipatu bezala, martxoaren 24an Atekarock jaialdia izanen da eta talde hauek parte hartuko dute: Akatu, Kaotiko, Gobernors, Zesatek eta Tximeleta. Gazte txean ere festa izanen da.

Iratxek Leitzan jarraituko du

Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkar-



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Egoera honetan dago gaur egun Ibero.



ARGAZKIAK: JM BARRIOLA ETA PABLO FEO

Ihoteri bustiak baina ederrak

Pasatu dira aurtengo ihoteriak eta eguraldiak lagundu ez badu ere, umore ederrean joan zaizkigu. Larunbatean, herriko eskean eta presoan eskubideen alde egin zen giza katean herritar askok hartu zuen parte, eta gauean jende asko hurbildu zen pesta egitera inguruetako herrietatik. Igandean, egun guztian gurdia eta mozorrotu mordoa ibili zen kaleetatik. Beti bezala, astelehenean eta asteartean, eskeak arrakasta eta parte-hartze handia izan zituen baserrietako bost auzoetan. Umeak ihoteri bidean dira gurasoekin batera, beraien kalejira koloretsuarekin pestari ekarpen ederra eginez. Astearteko atsaretuen kalejira ere polita izan zen eta indartzen doa urtez urte.

teak Leitzan zerbitzua ematen jarraituko du. Nafarroako Gobernuak laguntza kendu arren, Udalak zerbitzu hau garrantzitsua dela ikusi du eta horregatik, adostasun batera iritsi dira eta herriaren zerbitzua eskaintzen jarraituko du.

BTT irteerak DVDan
Azken hiru irteeretako

bideoak DVDan bildu ditu Mendibil BTT taldeak. Gisa honetara, mendibizikletan zein tokitan ibiltzen diren erakutsi nahi dute. DVDren bat nahi duenak taldekoekin harremanetan jarri beharko du.

Alex Mugika saritua

Hainbat herrialdeetako ehun sukaldari baino

gehiagok parte hartu dute Berlysen presak antolatutako Egile Ogitarteko lehiaketaren bederatzigarren edizioan, eta horien artean, Alex Mujikak prestatutakoak lortu du lehen saria, txangurro eta antxoaz egindako ogitartekoak. Gogoratu, joan den urteko Nafarroako Kaxula lehiaketa ere irabazi zuela.

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Elurrak ere ez ditu gure inauteriak galdu nahi izan

Eguraldiak askorik lagundu ez arren, giro ederra izan da

Juana Mari SAIZAR

Inauteriak indartzen joateko ahalegina hobetzen doa. Aurtengoak ere oso giro polit eta onean joan dira nahiz eta eguraldiak ez askorik lagundu. Urtarrilaren 27an, ostirala, eman genien hasiera inauteriei txupinazioa botaz arratsaldean plaza zaharrean. Aurretik, urtero legez, umeek eskolatik beren emanaldia eskaini zuten eta behin txupinazioa botatakoan, herriko eskeak eman

zion segida giroari. Berrikuntza bezala, esan, aurtengoan gauean bertan ospatu zen mus txapelketa Sastinea tabernan izan zela, herrian ditugun elkargune ezberdinak erabiltzeko asmoz.

Larunbata izan genuen egun handia, baserrietako eskea, karreroen desfilea, arratsaldekoa eta afariaz osatua, hau guztia beti ere trikitixa eta panderoaren musikaz lagunduta. Aurtengo moztaroren gaia ijito familia izan zen, hori dela eta, jendea ijito eta kaldere-roz moztarotuta agertu zen kaleetan.

Igandean, elurrak ere inauterietan parte har-



ARGAZKIAK: ANA GOÑI

Eskolako neska-mutikoak izan ziren inauteriak ospatzen lehenak. Ondoren, ijito kuadrilla ibili zen herrian barna, tartean elurra ere bai.

tu nahi izan zuen eta goizaldean agertu zitzaizgun. Hala ere, ez zen oztopo izan igandeko banar txapelketa eta herri bazkaria aurrera eramateko. Ondo bazkaltzeaz gain, Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi ere bertan izan genituen bertso saio alai eta dibertigarria eskaintzen. Arratsaldean, eta

aurtengoei bukaera emateko asmoz, haurrentzako pelikula eskaini zen udaletxeko areto berrian.

Poza ematen du, jendea festarako gogoz ikusteak, eta ea horrelaxe segitzen dugun.

Pilota kontuak

Oraindik aipatu ga-bea genuen pilotako bi-

garren mailako txapelketa, herriko pilotaria den Mikel Olazabal bertan ari baita jokatzeko. Lerro hauek idazterakoan, Larrinaga bere bikotekidearekin hirugarren garaipena lortu zuen Olazabalek txapelketan.

Ea zorte ona daukan eta aurrerantzean zer kontaktua ematen duen.

LEITZALDEA

TURISMOA → PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOAK

Plazaolak etorkizuneko proiektuak aurkeztu ditu Fiturren

TTIPI-TTAPA

Plazaolako natur bidearen etorkizuneko proiektuak jakinarazi ditu berriki Plazaolako Turismo Partzuergoak Fiturren, Madrilgo Nazioarte-

ko Turismo Azokan. Plazaolaren izenean, partzuergoko presidentea eta Leitzako alkateordea den Aitor Etxarrik eta Maitena Ezkutari kudeatzaileak hitz egin zuten.

Plazaolako natur bidearen hasierak aipatzeaz gain, gaur egungo egoera azaldu zuten, hau da, egindako azken zatiari esker nola dauden Mugiro (Lekunberri) eta Andoain (Gipuzkoa) arteko 44 kilometroak; eta Uitziko tunela, 2011n bukatutakoa. 2,7 kilometroko tunel horren ibilbidea egitera ere animatu zuten jendea, «abenturarako aukera ematen duela eta bidearen gainontzeko zatiekin duen kontrasteagatik: kobazulo bat zeharkatzearen sentsazio berbera da, baina argiek in».

Garatzen ari diren proiektuei dagokienez, Mugiro eta Irurtzun artean dagoen Imozko zatia- ren lanak egiten ari dira Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak finantzatuta. 9 kilometro horiek egiteko 1,4 milioi euro baino gehiago erabiliko dira.

Nafarroako Gobernuak laguntza ematen badi, 2012an Irurtzun eta Iruñea arteko zatia deslajabatzeko espedienteak hasteko asmoa ere badute. Partzuergoak (UPS) Udalez gaindiko Plan Sektorialeko tramiteak egin ditu Irurtzun, Iza,

Berriobeiti eta Berriozarko udalen laguntzarekin, eta 2010ean onetsi zuten. Iruñeko Udalak alegazio bat aurkeztu zuen haien barrutia ere proiektuan sar dadin. Iruñea eta Donostia batuko lukeen 22 kilometroko proiektua egin ahal izateko lur batzuk behar dira.

Etorkizunera begira, hiru ildo nagusi ezarriak dituzte Plazaolan: Nafarroako beste natur bideekin lotzea – tartean, Bidasoko natur bidearekin –, Gipuzkoako hiriburuarekin lotzea eta, azkenik, Nafarroako natur bideak Europan sustatzea.

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Ziga, Azpilkueta eta Elbeten asteburu honetan ospatuko dira inauteriak

Azpilkuetan eta Zigan bi egunez eta Elbeten larunbatean

TTIPI-TTAPA

Inauterietako aroan bete-betean murgilduak gaude Baztanen, eta hasia da mozorro besta. **Aniz** izan zen inauteriak ospatzen lehendabizikoa, eta **Berroetak** hartu zuen lekukoa ondotik. **Arraioz** eta **Ornoz-Mugairi**ren txanda etorri zen gero. Otsailean sartuta, **Erratzun** Gizakunde ospatu zuten, eta orain gainerako herrietan izanen dira inauteriak.

Azpilkuetan, asteburu honetan izanen dute

inauterien txanda. Ortzi-ralean, otsailak 10, gosaldu ondotik, eskean ibiliko dira Zuaztoi, Urراسun eta Arribiltoa auzoetan eta gauean gazte afaria egingen da. Larunbatean, gosaldu eta Apaioa auzoan eta herrian eskean ibiliko dira eta gauean afaria egingen da.

Elbeten, larunbat honetan, otsailak 11, egingen dituzte inauteriak. Goizean indarrak hartzeko gosaria egingen du-

INAUTERIAK | Herriz herri



te eta ondotik, etxez-ete eskean ibiliko dira gazteak. Gauean herri-tar guztiendako afaria izanen da Posadan akordeoi doinuek lagunduta.


Zigan ere asteburu honetan izanen dituzte inauteriak. Ortzirala eta

larunbata etxez-ete eskean eta otorduak egingenez besta giroan pasako dituzte.

ORAKUNDE

Orakunde izaten da inauterietako bertze hitzordua. Otsailaren 16an

izanen da herri gehiengutan eta neska-mutikoak oilarraren gibelatik ibiliko dira, egurrezko ezpatekin eta begiak estaliak dituztela. Anizen eta Berroetan, aldiz, otsailaren 18an izanen dute Orakunde.



SUMINISTROS YANCI

35 urteko esperientzia

ITURGINTZA eta BEROKUNTZA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Baimendutako instalatzaile eta mantentzailea

- BIOMASA
- AEROTERMIA
- GEOTERMIA
- EGUZKI ENERGIA
- TERMIKOA

IKTENBIDE ENERGETIKO BERDEAK

Pellet eta egurrezko kalderen erakusketa

Dirulaguntzak tramitatzen ditugu

Zaldubia Industrialdea, 2 - IRURITA - 948 580 109

ZERRITZU TERMIKO 484
BAMATZAILE OFIZIALA

TATANO

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Herri bakoitzari ailegatzen ari zaio inauterien lekukoa hartzeko ordua

Gainerako herrietara laster ailegatuko dira

TTIPI-TTAPA

Amaiurren, otsailaren 17an eta 18an izanen dira inauteriak. Otsailaren 17an, 09:30 alde- ra, gazteek gosaria eginen dute elkartean eta ondotik, mozorrotuta, eskolara bisita eginen dute. Eguna baserrietan eskean pasako dute eta gauean afaria eginen dute elkartean. Dantzaldia ere izanen da. Biharamunean, gosalduta ondotik, herrian barna eskean ibiliko dira eta gauean afaria eta dantzaldia izanen dira elkartean.

Erratzun, otsailaren 15eko oilar dantzaren ondotik, hilaren 19an egun guztian etxez-etxe puxkak biltzen ariko dira eta gauean afaria eginen da. Otsailaren 20an ere puxkak biltzen ibiliko dira eta gauean afaria izanen da. Otsailaren 21ean, azke-

nik, dama, zanbonba eta mozorro desfilea eginen da eta gauean afaria.

Arizkunen, otsailaren 19an, gazteek eginen duten gosariarekin hasiko dira inauteriak. Egun guztian eskean ibiliko dira etxeetan eta 20:00etan musika izanen da frontoian. Ondotik afaria eta dantzaldia. Otsailaren 20an, goizez gosalduta ondotik, eskean ibiliko dira. Ilunabar aldera musika izanen da frontoian, eta gauean afaria eta dantzaldia. Otsailaren 21ean, berriz, gosaldutakoan, sagar dantzaren txanda izanen da. Ondotik, hartza menditik jeitsiko da eta herrian barna itzulua eginen du karrozekin.

Gartzainen, otsailaren 28an, baserri- base-

INAUTERIAK | Herriz herri



Lekaroz.



Erratzu.



Arizkun.

ri ibiliko dira eskean eta biharamunean, falta diren auzoetan eta herrian ariko dira eskean. Gauean afaria eta besta izanen dira.

Elizondon, Orakunderen ondotik, ortziral eta larunbarekin ospatuko dira inauteriak, otsailak 17 eta 18. Xehetasunak aldizkariko gehigarrian.

Iruritan, lehendabiziko egunean, etxez-etxe eskean emanen dute

egun osoa eta biharamunean, goizez etxeetan ibili ondotik, arratsaldean herrian barna mozorroturik aterako dira herrietarrak. Gauean afaria izanen da.

Lekarozen ere otsailaren 17an eta 18an ospatuko dira inauteriak. Ortziraletan, auzoetan eskean ibiliko dira eta gauean afaria eta dantzaldia izanen dira sagardotegi- an. Biharamunean, he-

rian ibiliko dira eskean. Ondotik bazkaria eginen da Herriko Ostatuan eta afaria elkartean. Dantzaldia ere izanen da.

Egun horietan ospatuko dituzte **Almandoz**en ere inauteriak: otsailaren 17an eta 18an. Ortziraletan afaria eginen dute Futbolin deitzen den tokian eta larunbatean baserri- baserri eskean ibili ondotik, ilunabarrean afaria eginen da.

JAURENA
Teléfonoak: 948 455 451 / 919 514 048
www.zeta-maternal.com

Ordoki Ind. • ARIZKUN

Dutarimuno
Etxeagatik abiatatutako arratsateak

Dutaria baserria • ARIZKUN • T616 766 369

Composites Baztan
Poliesterezko lanak

- Ingermatzailuak / Derrazak / Agintzirik / Mochilak
- Ferra erabilera, beste materialak
- Ferra eta erabilera, beste materialak
- Ferra eta erabilera, beste materialak

Tel-Faxa: 948 581 824 | Zabaldea Industrialeko | 31730 IRURITA
compositesbaztan@hotmail.com

ALEMAN ZERRATEGIA, S.L.

- Teilatutako estrukturaak, duglas, pinua, haritz
- Tarima
- Portxeak tamaina egokian
- Laminatuak eta KVH (zura zertifikatua)

Frantziako errep. zig • ERRATZU • 948 453 173

IPARLA
OSTATUAK
EGUNERO GOSARIAK

BAZTAN

UDALA → DIRULAGUNTZAK

Kultura, hezkuntza eta euskararen arloko taldeentzat dirulaguntzak onartu ditu Udalak

TTIPI-TTAPAK
4.400 euro hartuko ditu

TTIPI-TTAPA

Hezkuntzaren eta kulturaren alorrean ari diren taldeendako eta euskararen normalizazioan ari diren erakundeendako dirulaguntzak onartu ditu Udalak. Tartean daude Guraso Elkarteak edo kultur taldeak, baita hedabideak ere. Ondoko tauletan ageri da bakoitzak jasoko duena, gutti goitibeheiti iaz baino %10 guttiago.

Igandean auzolana Elizondon

Zuhaitzak landatzeko auzolanerako deia egin du Elizondoko herriak igande honetarako, hilak 12. Hasiera batean, otsailaren 5erako egina zuen deialdia, baina jandean den astebururako iragarritako eguraldi txarra tarteko, astebete giberatzea erabaki zuten alkate eta kargodunek. Halaxe baieztatu zigun Xabi Torres alkateak. Igandean, 09:30ean egin dute hitzordua plazan, eta aitzurra eramateko eskatu dute. Zuhaitz landaketa Ermitegi inguruan, Urballoko bidean eta Bentako Borda aldean egingen da. Lanaren truke, gosaria emanen da.

Prat euroaginduaren erantzunaren esperoan

Frantziako Poliziak Ernesto Prat (Berriozar, 1978) atxilotu zuen urtarilaren 25ean Urruñan (Lapurdi) eta Paueko Epaitegira eraman ondotik, Seysses-eko espetxean sartu zuten. Espainiako Auzitegi Nazionalak haren kontrako euroagindua eskatu zuen, eta astearte honetan, otsailak 7, jakinaraztekoa zen euroagindua onartu duen ala ez. Sortzez Berriozarkoa bada ere, Baztanen bizi zen Prat, eta horren harira, batzarre informatiboa egin zen atxilotu zuten egun berean Elizondoko plazan. Udalak mozia ere onartu zuen, «epaiek berretsi gabeko salaketarik ez egiteko» eskatuz, «familiari elkartasuna» adieraziz eta «ETak indar armatuarekin akitu izanagatik sortu den eszenatoki politiko berriaren aitzinean, Frantzia eta Espainiako gobernuari jokamolde errepresiboak uzteko eta soluzio politikoak bilatzeko prozeduretan inplikatzeko» eskatuz.

Bertzetik, Iñaki Erro preso politikoa osasun egoera larrian dago eta bere familia Elizondon

KULTURA ETA HEZKUNTZA	AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA
Santiago Bideko Lagunen Elkarte	2.542,38 euro	1.270,00 euro
Erratzuko Kultur Taldea	2.355,00 euro	1.642,00 euro
Elizondoko Abesbatza	3.750,00 euro	2.249,00 euro
Baztandarren Biltzarra	8.650,00 euro	6.045,00 euro
Irurritako Aranabia Kultur Taldea	1.450,00 euro	1.015,00 euro
Elizondoko Banda	1.199,20 euro	779,35 euro
Jo ala Jo Kultur Taldea	2.843,00 euro	1.704,00 euro
Kan Kan Guraso Elkarte	500,00 euro	200,00 euro
Ertzuin Guraso Elkarte	1.998,00 euro	796,00 euro
Irurritako APYMA	3.583,00 euro	1.074,00 euro
Baztan Ikastola Guraso Elkarte	1.856,00 euro	649,00 euro
Arraiozko Guraso Elkarte	500,00 euro	225,00 euro
Azpiiketako Guraso Elkarte	520,00 euro	302,00 euro
Irurritako Guraso Elkarte	3.205,00 euro	1.282,00 euro
S. Francisco Jabier-eko Guraso Elk.	150,00 euro	75,00 euro
Ornozko APYMA	2.420,00 euro	968,00 euro
Gure Ametsa	540,00 euro	216,00 euro
Elizondoko Herria	742,00 euro	370,00 euro
Santa Hermandad Pasion	679,00 euro	201,00 euro
Legate auzokideak	950,00 euro	380,00 euro
Amairko Otsondo	1.935,00 euro	870,00 euro
Lau Herria	2.190,00 euro	876,00 euro
Elkartasuna	1.296,00 euro	129,00 euro

bizi dela kontuan hartuz, Udalak «legea betez, kartzelatik ateratzeko» eskatu du, «behar den bezala artatu ahal izateko».

Bertso saioa Anizen

Bardoak 2012 izeneko Nafarroako taldeko bertsolari txapelketako saioa jokatu da larunbat honetan, otsailak 11, Anizko elkartearen. 21:00etan hasita, bertso afaria egingen da eta alde batetik, Erauntsi taldea eta bertzetik, Altzu-

EUSKARA NORMALIZAZIOA	LAGUNTZA
Xorroxin Irratia	6.000 euro
Xaloe Telebista	6.000 euro
Ttipi-Ttapa	4.400 euro
AEK	4.400 euro
Etxetik Plazara	1.200 euro
Nafarroako Ikastolen Elkarte	400 euro
Seaska Ikastolen Federazioa	600 euro

ri, Eburnezuri eta amaordeak taldea ariko dira. Erauntsi taldeko bertsolariak Iker Gorosterrazu, Alazne Untxalo, Amaia Elizagoien oronoztarra dira eta aurkarien taldea lesakarrek osatua da.

Erauntsi taldeko kide batzuek gain, Lepatanatuek eta Bar-ideak dira Nafarroako Bertsozale Elkartearen ekimen berri honetan parte hartzen ari diren bertze bi talde baztandarrik.



baztanoil

T. 948 452 309 | M. 677 310 009 | www.baztanoil.com



GASOLIOA ETXERA



**AUTOMOZIOA
A GASOLIOA**

**NEKAZARITZAKOA
B GASOLIOA**

**BEROKUNTZA
C GASOLIOA**

REPSOL
Diesel e+

REPSOL
AgroDiesel 10e

REPSOL
Energy e+

BAZTAN

GIZARTEA → UPV/EHU-K EGIN DU IKERKETA

Baztango biztanleak Europako leinu zaharrenen artean daudela dio azterlan genetiko batek

Baliteke, Europaren birpopulazioan parte hartu izana duela 15.000 urte

TTIPI-TTAPA

Baztanen, duela 15.000 urte inguruko europar leinu genetikoak daudela zehaztu du UPV/EHUko Biomisc taldeak egin duen ikerketa batek. Azterketa baztan-darrei hartutako odolaren eta listuaren 200 lagin baino gehiagotan oinarritua dago, eta leinu paleolitikoak identifikatu dituzte biztanleen DNAn. DNA frogetatik ondorioztatuenez, baliteke Europako mendebaldeko birpopulatu zen garaikoa izatea, glaziazioaren ondoko garaikoa, hain zuzen.

Baztandaren artean aurkitutako antzinako leinuen kontzentrazio handiaren arrazoiak lurraldearen beraren ezauzgarriekin lotuta egon daitekeela uste du Biomisc taldeak: «bailararen orografia itxiaren eraginez, populazio homogeneago bat eratuko zen, eta ondorengo migrazio-mugimenduan eragin ttikiagoa izanen zuen».

Ikerketa talde honek 30 urteko esperientzia dauka populazioen ge-

netikaren arloan eta egin-dako aurkikuntzei esker, azalpen zientifikoa eman die Europar gotorleku edo babesleku paleolitikoetatik egin diren migrazio-mugimenduei. Horien artean dago euskal-eremua, Franko-Kantauriarren zati bezala.

Baztani buruzko web orri berriua

Baztango bailarari bereziki, baina baita Xareta, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirriak-i eskainitako www.valledebazan.com web orri berriua martxan da. Herriak, turismoa, aktibitateak, kultura, alojamentuak, argazkiak eta bertzelako berriak eskainiko ditu, gaztelaraz eta euskaraz, baita Baztanen egin diren ekitaldi eta jarduerak garrantzitsuener berri eman ere. Ondotik, berriz, argazki eta bideoekin ilustratzeko asmoa du. Eskualdeko baliabide turistikoak berri ere eman nahi du.

Interneteko helbide honen pean, *Baztan Jaime Viguriaren* eskutik web orri pertsonala egon da gaur egun arte, Baztango informazioa sarean zabaltzeko. Orain, ordea, Eskiz Informatikak-en laguntzarekin, berriua gelditu da eta «Baztan-Bidasoko erreferentziako informazio gune izatea du jomuga».



ARGAZKIA: ONDIKOL

'Amaiur 2012 Haien ametsa gurea da' ikuskizuna eskainiko da uztailean Amaiurren eta abuztuan Maulen

Amaiur 2012 Haien ametsa gurea da ikuskizuna eskainiko da uztailean Amaiurren eta abuztuan Maulen. Horren berri eman zuten urtarillaren 25ean Amaiurko Herriko Ostatuan egindako aurkezpenean. Juan Mari Aleman Amaiurko Gaztelua elkarte kideak eta Pier Paul Berzaitz artista sortzaileak ikuskizunaren xehetasunak eman zituzten. Beraiekin batera, Mirentxu Goienetxe aktorea eta Julian Rekalde Amaiurko alkatea izan ziren mahaian, Gaztelu Elkarteko bertze zenbait kiderekin batera. Juan Mari Alemanek aipatu zuenez, ikuskizunak «dantza, antzerkia, musika, aziendak... uztartzen ditu eta historia kontatzeko bertze modu bat da». Pastoralean antzera antzetzuko den proiektua Gaztelu Elkartetik lantzen hasi ziren, baina Baztango eta inguruko hainbat eragileren laguntza izan dutela aipatu zuen. Gaztelak Nafarroa konkistatu zueneko bosgarren mendeurren gogoratuko duen ikuskizun artistiko-musikala uztailearen 20 eta 21ean eskainiko da Amaiurko gaztelu aitzinean eta abudo sarrerak salgai paratuko dituzte ticketmaster.es webgunearen bitartez. Sarrerak 12 eurotan egonen dira ekainaren 30era arte eta 15 eurotan uztailearen 1etik aitzinera. Abuztuan Maulen izanen da ikusgai. Muskil-diko Pier Paul Berzaitz zuzendariarentzat harrotasun handia da honelako lan batean aritzea. Izan ere, «Amaiur garrantzitsua da euskaldun batentzat, sinbolismoan sartu gabe ere. Amaiurren zerbeit egitea Euskal Herriarentzat ere garrantzitsua da». Ideia Zuberoarat ere luzatu dute eta Berzaitzentzat miressagarria da, «inoiz egin ez den egitasmoa baita». Ikuskizun bizi bat izanen dela ere azpimarratu zuen Berzaitzek, «Nafarroa bizi dela erakutsi nahi dugu, historia ere aipatu eta Nafarroaren Egunaren izpiritua atxikiz». Lau atal izanen ditu ikuskizunak: sufrimendua, erresistentzia, azken egunetako setioa eta gaur egungo Nafarroa.

UEMA

UEMAko bilera ortzegunean

Joan den astean egitekoea zen UEMAko bilera, azkenean, ortzegun honetan, otsailak 9, egingen da. Ordu eta toki berean izanen da, Arizkuneneako saibaian, 18:00etan.

Berdintasuna

Berdintasun Batzorderako deia

Berdintasun Batzorderako deialdi irekia egingo du Udalak. Ortzegun honetan, otsailak 9, izanen da udaleletxean, 18:00etan. Herri-tarrei joateko gonbitea egingo zaie.

Eliza-ondareak

Elizaren izenean jarritako ondareak

Artzapezpikutzak Elizaren izenean inskribatutako ondareez, hitzaldia izanen da asteazkenean, hilak 8, Arizkunean, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformaren eskutik.

DIANA INIESTA BENEJETO
argazkilaria eta irakaslea.

Nork ez du inoiz laguntzarik behar izan?
Bere burua laguntzarako haur eta helduek.

Arretuak, irakazketa, bere burua laguntzea, ikasleekin, irakasleekin eta irakasleekin.
(Aste gutxian zehar, haur eta helduek margo tailerrak (ordutegi ezberdinak))

<http://dianainiesta.blogspot.com>
659 946 926 - 948 453 478

GIZARTEA → LAN KONTUAK ARRAIOZKO HIPERMERKATUAN

Nafar-Mendiko 'gertakizun larriak' salatu ditu LABek

Nagusiaren kontrako salaleak paratu dituzte

TTIPI-TTAPA

LAB sindikatuak Nafar-Mendi supermerkatuan «gertatzen ari diren gertaera larri batzuen berri» eman du prentsa-ohar bidez. Merkataritza gune honen kontra deus ez duela eta kontrako kanpainarik ez duela egin nahi garbi utzi du LABek, baina 2010eko ekainean 50 langilerekin zabaldu zenetik gaur egunera arte «langileen kaleratzeak, irainak eta tratu txarra berezenez zabalean eguneroko ogia» direla dio sindikatuak eta enpresako nagusia jo du erantzule.

Kaleratzeei dagokienez, urte eta erdian, «20-25 bat langile kaleratu dira, kaleratze individual batekin, gehienak modu hagitz txarrean, inolako erregulazio espediente edota antzeko neurririk gabe», jakinarazi du.

LABen salaketa urrutirago doa: «langile batzuei antsietateak eta antzeko patologia aurkitu dizkiete medikuek, denak lanari lotuak daudenak eta bertan jasaten duten jazarpen laborala dela medio». Gaur egun, jazarpen hori tarteko, «badaude langileak baja egoeran daudenak, depresioa eta antzeko patologia diagnostikatu zaizkie», dio LABek. Horrez gain, gaineratu du, «langileen aurkako mehatxu, irain eta eraso fisikoengatik nagusiaren kontra hainbat salaketa paratu direla bai Foru Poliziaren komisarian, baita lan auzitegian ere».

Honelako gertaerak Nafar-Mendi supermerkatutik eta gertatzen diren toki orotik desagertarazteko bere esku dagoen guztia eginen duela aipatu du LABek, «ez dugulako utziko inongo nagusiak langileekiko horrelako jarrerarik izatea».

Saharaztan elkarretaratzea
Duela 35 urte, otsailaren



UTZITAKO ARGAZKIA

Bozate auzoko transformadoreko obren baimenaz galdetu dio NaBaik alkateari

2011ko buruilaren 16ko Tokiko Gobernu Batzordeak Iberdrolari Arizkungo Bozate auzoan dagoen transformazio zentroa berritzeko emandako obra baimenaren gainean galdetu dio NaBaik alkateari. Baimena ematean, transformazio zentroak kokatu eta eraikitze eta hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian etxebizitzarako erabilera duten jarduerak arautzen dituen ordenantza betetzen dela justifikatzeko eskatu du. Gisa berean, udal irizpideen ustezko aldaketa justifikatzea ere exijitu du. 2011ko ilbeltzaren 24an Bozateko transformadorean lanak egiteko obra baimena eskatu zuen Iberdrolak eta otsailaren 2an Udalaren ezezkoa jaso zuen. Aldi berean, Iberdrolari espedientea osatzeko falta zen dokumentazioa eskatu zitzaio-lara orotarazi du NaBaik, bertzeak bertze, egin beharreko lanak ordenantza bete zezan erranez. Iberdrolak errekurtsioa aurkeztu zuen, baina Udalak errekurtsioa ezeztatu zuela dio NaBaik, baina gerora baimena eskatu eta eman ziola.

27arekin, Saharar herriak errepublika aldarrikatu zuen eta hori gogo-

an elkarretaratzea eginen da otsailaren 26an Elizondoko plazan, igan-

dea. 12:30erako egin du deialdia Saharaztan taldeak.

ANTXITONIA
Real Estate

Agenda de Inmobiliarias
Comerciales y Residenciales

Brasilia Inara 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
antzal@antxitiona.com • www.antxitiona.com

ANZABAL INMOBILIARIA

- Ventes, Arrendos, Autos, Vehiculos, Inmuebles y Mas.
- Inmobiliarias, Bienes y Seguros Sociales.
- Alcobalarias, Seguros, Evacuacion, SEGA...
- Inmobiliarias, Seguros, Bienes, Autos, Vehiculos y Mas.
- Inmuebles.

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F: 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BAZTAN

ZILBETIKO HARROBIA → EZTABAIDAREN ERDIAN

Zilbetin harrobia egiteko tunelerako herrilurrak uztearen alde egin du Udalak

UPN eta Ezkerrak eman dute aldeko botoa

TTIPI-TTAPA

Magnak Zilbetin egin nahi duen harrobirako eskatu den herrilurren desfektazioa dela eta, lurra uztearen alde egin du Udalak. Otsailaren 2ko plenoan eztabaidatu zen afera, eta UPNko bortz zinegotzien eta Ezkerraren bi zinegotziren aldeko botoekin aterra zen aitzinera. Bilduko bortz botoak, ordea, kontrakoak izan ziren. Emaizta bera jaso zuen Bilduren herri galdeketa proposamenak ere, kontrako zazpi (UPN eta Ezkerrarenak) eta aldeko bortz (Bildu).

Erabakia Kintoko Mankomunitatera udal ordezkarietara eramatea ere erabaki zen. Garbiñe Elizegi alkateak, bere aldetik, Batzar Nagusiak herrilurra ez uztearen kontra hartutako erabakia Kintoko Mankomunitatera eramanen zuela ere jakinarazi zuen.

EZKERRAREN ASANBLADA

Zilbetiko aferan, otsailaren 2ko udal plenoan zer bozkatu erabakitze-ko asanblada egin zuen Ezkerrak urtarrilaren 28an. 80 lagun inguru bildu ziren, eta ohar bidez jakinarazi zuten, «aho batez Ezkerraren bozka desfektazioaren aldekoa izatea» erabaki zuten,

«aitzinekoan ere horrela erabaki baitzen». Gaineratu zuenez, «honen inguruko erabakia hartzea plenoari dagokio, eta ez bertze inori».

BILDU: HERRI GALDEKETA

Bilduk, berriz, herri galdeketa egitea proposatu zuen urtarrilaren 31n egindako agerraldian. Bere hitzetan, «Ezkerrak eta UPNk ez dute beraiiek parte izan ziren Batzar Nagusiko erabakia errespetatu nahi eta gaia erabakigune murriztazog baterat eraman nahi dute». Hala, erabakigunea «bantzandar guztiengana hedatzea eta modu horretan erabakia hartzea, hau da, herri galdeketa egitea», proposatu zuen Bilduk. Eta horrela ez egitekotan, Batzar Nagusiaren alkate, juntero eta alderdi guztiaren parte hartzearekin birritan hartu zen erabakia Kintoko Mankomunitatera eramanen dutela aipatu zuen agerraldian.

Bertzetik, Ezkerraren erabakia «gutziz harrigarria» dela adierazi zuen, «hondarreko Batzar Nagusian bai Ezkerrakoek baita UPNekoek ere, idatziak sartuz, eztabaidetan eta bozketan parte hartuz praktikan Batzar Nagusiaren zilegitasuna aitortu baitzuten, eta harrigarriagoa dena, Ezkerrakoek Batzar Nagusiaren erabakia onartuko zutela publikoki erran zuten bileran». Batzar Nagusiko kideei eta gai honetan lanean ari-



Otsailaren 2ko plenoa.

ARGAZKIA: ONDIKOL



Ezkerrak asanbladan hartu zuen erabakia urtarrilaren 28an.

ARGAZKIA: ONDIKOL



Bilduk herri galdeketa egitea proposatu zuen urtarrilaren 31n.

ARGAZKIA: ONDIKOL

tu direnekiko «errespetu falta nabarmena» iruditu zaio Bilduri eta Ezkerrari, «leialtasun falta larria» leporatu dio: «gaia Batzar Nagusiaren bidez kudeatuko genuela adostuta, hitzartutakoa hautsi dutelako».

GOBERNUAREN BAIETZA

Nafarroako Gobernuak Zilbetiko harrobieren proiektua eta Kintoko erabilera publikoak «bateragarriak» direla ebatzi zuen urtarrilaren 25ean, eta beraz, tunela eraikitzeari bidea zabalik utzi zion. Gobernuak erran zuenez, «Magnaren proiektua osotasunean egin daiteke, eta

horrela, Nafarroa mendialdeko egonkortasun sozio-ekonomikoa bermatuko da».

TALDE EKOLOGISTA

Harrobiaren proiektua bertan behera uzteko eskatu du SEO/BirdLife talde ekologistak. Salatu duenez, babes-tutako eremutik 87.000 pago bota nahi ditu Magnak, eta gainera, harro-

bia egiteko Aldudemendian moztu nahi duen zuhaitz kopurua ez da horretara mugatzen. SEO-ren arabera, Kintoan minerala garraiatzeko egin nahi den tunelaren iparraldeko sarrera aldean, dagoeneko 2.500 pago moztu dituzte. Desagertzeko zorian dagoen okil gibel nabarra inguru horretan bizi dela ere jakinarazi du.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatuak

Santigo. 39 2G ELIZONDOKO
T. 948 631 441 M. 630 204 811

URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 19TIK 21ERA

Mozorrotzeko gaia 60 eta 70. hamarkada garaia izanen da igandean

Lehendabiziko egunean bentaz benta ibiliko dira eskean

TTIPI-TTAPA

Inauterietako egun ofizialekin bat eginez, otsailko hirugarren asteburuan ospatuko dira inauteriak: otsailaren 19tik 21era.

Igandean, otsailak 19, hasiko dituzte gazteek inauteriak. Goizean elkartean gosalduta ondotik, mozorrotu eta Dantxarinearako bidea hartuko dute. Bentaz benta pasako dute eguna trikitilari eta panderojoleen laguntzarekin. Gauean, herritar guz-

tiendako pintxoak izanen dira. Baina hortaz aparte, mozorrotzeko gaia ere luzatu diete gazteek herritarrei: 60 eta 70. hamarkaden inguruan mozorrotzeko gonbitea egin dute.

Astelehenean eta asteartean, otsailak 20 eta 21, 10:00etan bilduko dira gazteak. Ohitura den bezala, neskak baserritarrez jauntzita, eta mutilak galtza zuriekin, zinta gorri-berde eta kaskabelekin jauntzita egin dute hitzordua. Bi egunetan etkez-etxe ibiliko dira eta gauez pintxoak izanen dira herritar guztiendako. Bi egun hauetan, Modesto akordeolariarekin dantzaldia izanen da.

INAUTERIAK | otsailaren 19tik 21era



Faustino ETXABE tailerrak
Aurten konponketa
INAUTERI ON BATZUK PASA!!
☎ 948 599 038 - ZUGARRAMURDI

Ongi pasa inauteriak!

SANTIAGO VILLARES s.l.

GARRAIOAK

Luzerna-pentsu eta forrajearen
SALMENTA eta EXPORTAZIOA

~*~
Lastoa
~*~
Luzerna

Tel. 948 599 134 Mug. 609 415 777
Fax. 948 599 156
(URDAZUBI)
santivillares@terra.es

ARMUA JATEKOLA

T. 948 599 771
Eguzkitarantz - 41000
URDAZUBI

MONTXO OSTATUAK

Ongi pasa inauteriak!
Dantzarinetatik
2 km-tara

ТАВЛКО-ДЕНДА
АНЗЛН-БОРДЛ - УРДАЗУБИ
Egunero irekia 10:30etik 02:30era.

Inaki Alzuyet margoak

Tatuak | Berriztatze | Pinturak
Pinturak | Berriztatze | Pinturak
Dibutinatze | Berriztatze | Pinturak
Luzerna-pentsu eta forrajearen
Luzerna-pentsu eta forrajearen
Luzerna-pentsu eta forrajearen

pinturasalzuyet@yahoo.es

Ongi
pasa
inauteriak!!

Bur-txipi erorra
Luzerna-pentsu
31731
URDAZUBI
T. 659 862 417

ZUGARRAMURDI

MENDIA → ATXURIA MENDI TALDEAREN HARAT HONATAK

Herriari itzulia emanen dio Atxuria Mendi Taldeak otsailaren 26an

Urteko egutegia osatu du mendi taldeak

Koro eta Margari

Atxuria Mendi Taldeak aurtengo ibilaldien egutegia jakitera eman du. Urtarrilean, usaian bezala, San Antonen egon ziren, eta hortik aitzinera hauek izanen dira irteerak: otsailean Zugarramurdiko itzulia egingen da; martxoan Berriozarko mendietara ganen dira; apirillean Erratzurat; maiatzean Heleta-Baigura; ekainean Bera-Hendaia; irai-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Bortz urte ditu juxtu-juxtu argazki hunek, 2007ko otsailean atera baitzen, Otxondoko kaskoan. Atxuria Mendi taldeak Santiago bideko zati bat eginga du (Baiona-Lantz) eta etapa horietako batean ateratako argazkia da hau.

lean Aizkolegitik Etxalarrerat; urrian Kanbo-Ur-

dazubi; azaroan Sara-Bera; eta abenduan Aia-

ko harrietarat. Ateraldiak hilabeteko laugarren

igandean egiten dira, eta bortz oren inguruko ibilaldiak izaten dira.

Titiriteroen topaketa

Titiriteroen Topaketa martxan emateko bilkura egin da. Aurtengoa zortzigarren edizioa izanen da, eta apirilaren 21 eta 22ko aste hondarean egingen da.

Gisa guztietako antzerki, titiritero eta marionetak ikusteko aukera pulita izaten da, larunbata eta igande bitartean dozena bat emaldi eskaintzen baitira, eta denak ere dohai-nik.

GIZARTEA

GEDERNA GARALUR → ZUZENDARITZA BERRIA

Isabel Elizalde doneztebarra da Cederna Garalurreko zuzendari berria

Zuzendaritza Batzordeak lehen bilkura egin du berekin

TIPI-TTAPA

Joan den abenduaz geroztik, Isabel Elizalde Arretxea doneztebarra da Cederna Garalur El-

kartearen zuzendari-kudeatzaile berria, elkarretetik adierazi dutenez, «lurraldea ondo baino hobeto ezagutzen du, eta eskarmentu handia du landa-garapenean eta enpresa-kudeaketan». Urte berriarekin batera hasi zen lanean eta urtarrilaren 30ean, Zuzendaritza Batzor-



ARGAZKIA: CEDERNA GARALUR

Isabel Elizalde Zuzendaritza Batzordeko kideekin.

dearekin lehenbiziko bilera egin zuen.

Zuzendaritzaren helburu nagusia hasitako lan-ildoak indartzea eta Nafarroako Mendialdea- LGP programaren

2012rako lehen deia egingea onartzea dira. Era-kundea sendotzearen eta indartzearen aldeko apustua eginga du zuzendaritzak, eta bide horretan oinarritzko lan-

printzipioak lau izanen direla jakinarazi dute: informazioa, komunikazioa, lankidetzeta eta zonaldearekiko eta bertako eragileekiko zuzeneko harremana.

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK OTSAILAREN 17TIK 19RA

Herriko kantariak ikusgarria eskainiko dute inauterietan

Hiru eskoletako ikasleek emanen diote inauteriei hasiera

Joana GUERENDIAIN

Aurten, inauteriak otsailaren 17, 18 eta 19an ospatuko dira. Ospakizunak ostiral arratsaldean hasiko dira, hiru eskoletako haurrak plazan elkartuko dira 14:00etatik goiti eta ondok, krakada egingen dute.

Larunbatean, otsailak 18, gazteen inauteria izanen da, eta etxez etxe ibiliko dira auzoetan barna. Arratsean, plazan bukatuko dute itzulia, eta Herriko Etxeko Edantegian kontzertua izanen da eta gaua goxoan bukatzeko aukera.



ARGAZKIA: TURISMO BULEGOA

Gazteak etxez-etxe ibiliko dira larunbatarekin.

Igandean, berriz, 11:00etatik goiti plazan inauteriak egingen dira. Lehenik haur eta gazteen desfilea, ondok, dantzak eta mutxikoak eta bukatzeko zanpantzarren auzia. Aurten,

Sarako kantariak ikusgarri tiki bat ere eskainiko dute. 13:30ean denek irekia izanen den bazkaria egingen da plazan, eta denbora txarra baldin bada, Lur Berri gelan.

Erretretadunen bazkaria

Urtero bezala, kontseiluak erretretadunei bazkaria eskainiko die. Larunbat honetan egingen da Lur Berrin eta tripotxak izanen dira jateko.

FLASH

Selauru hustea

Igandean, otsailak 12, eskola publikoaren burasoen elkarteak selauru huste bat antolatu du kiroldegian. Egun osoan iraganen da, ostatu bat izanen da eta taloak eta ogitar-tekoak salduko dira.

Kirol emaitzak

Urtarrilaren 21a egun txarra izan zen gure kirolarientzat. Errugbilariek galdu egin zuten Mendikotan 7-0 eta eskubaloiko neskek Arudyn 16-14 galdu zuten. Urtarrilaren 29an, Saran basurdeek Narroseteko ekiparen kontra 16-9 irabazi zuten.

Abisua

Otsailaren 25ean Uso-pop kontrapasa egingen da Lur Berrin. Tokiak mugatuak direnez, hobe dira aitzinetik erosi. Salmenta puntuak ondokoak dira: Herriko Etxeko Edantegia eta Pleka, Berako Katakua ostatua eta Baionako Elkar denda. Tokiak hamar euro balio ditu.

Suteela-Zaldain
Instalazioak

IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK

Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu
Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euskal Herria 38€
- Europa 56€
- Buztan, Urdizubi eta Maierreka 32€
- Amerika eta Australia 124€
- Iparr Euskal Herria 56€
- Leitza 16€

(0034) 948 63 54 58 • www.ttipi.net

HERRIKO ETXEO
CENTRE
CALLE DE LA MAIRIE

HERRIKO ETXEO
Herriko Etxearen
Batasuna

SARA

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

SENPERE

GIZARTEA → BIZTANLERIA DATUAK

5 680 lagun bizi dira herrian azken zenbaketaren arabera

Laster gure herri elkargoa hiri elkargo bilakatuko da

Franck DOLOSOR

Urte hastapen guziz bezala, herriko hautesiek beren agiantzak eskaini dizkiete herriko elkarteetako ordezkari. Aurten ere Bernard Auroy Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusiak parte hartu zuen ekitaldian eta hor, Christine Bessonart andere auzapezak jakinarazi du orotarar 5 680 lagun bizi garela Senperen.

laz, denerat 68 sortze izan ziren, 53 herio-

tze eta 22 ezkontza. Senpere hego Lapurdi-ko herri elkargoko kidea da eta laster herrien arteko egitura hau hiri elkargoa bilakatuko da.

750 mila euroko aintzinkondua izatetik 1,5 milioikoa izanen du, be-

raz, alde batetik, 65 000 lagun biltzen direlako hor eta gainerat, laster Hendaia 15 000 biztanle izanen baititu ofizialki. Bi baldintza hauek behar dira gure herri elkargoa hiri elkargo bilakatzeko eta laster

biak beteak izanen dira.

Bai Euskarari

Euskararen aldeko dinamika berpizteko bilkura egingen da Senperen otsailaren 23an, ortzegunarekin. Hitzordua

arratsaldeko 7etan finkatua da Elkartetxean. Euskara sustatzeko ideiak bildu nahi ditu berriki Bai Euskarari Akordioa eta Ziurtagiria Senperen ere landu dituen Kontseilua elkar-teak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko kontuak

Herriko hautetsiak 2012ko aurrekontua prestatzen ari dira eta aurten 5 096 500 euro baliatuko dituzte funtzionamendurako eta bertze 6 448 869 inbertsioak egiteko. Hauen artean daude bideak eta argiztapena baina baita Urguri aldean egingen den Utsalea deitu aparkaleku berria, aintzirako club house tenis jokalarien aterpe berria edo argazkian ageri den karrika nagusiko pilota plazako zahar berritzea ere. Lan hauek laster bururatuko dituzte eta itxura zinez berria emanen dio gure errebote maitagarriari eta bere inguru hurbileneri.

Liberak aldatzeko azken egunak

Badira hamar urte jadanik euroak baliatzen ditugula egun guziz, baina frankoak baldin badituzue oraino sakelean edo armario zokoan, jakin ezazue egun guti baizik ez zaizuela gelditzen bilete hauek aldatzeko.

Frantziako bankuak otsailaren 17an finkatu du azken epea eta hortik goiti frankoek ez dute gehiago inolako baliorik izanen, ez dira gehiago aldatzen ahaliko euroen truke. Frankoak aldatu nahi dituenak Frantziako bankuak Baionako hiri erdialdean duen bulegoratan beharko du, erran bezala, otsailaren 17a baino lehen.

DATUA

68

SORTZE

izan ziren joan den urtean gure herrian; 53 heriotza eta 22 ezkontza.

ttipi-ttapa

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara edo eskatu gure web omiaren bitartez:

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

- Hego Euskal Herria 38€
- Europa 56€
- Baztan, Urdazubi eta Maierreka 32€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipar Euskal Herria 56€
- Leitza 16€



EZKONTZAK

Aiert Retegi Telletxea eta **M^a Nieves Mujika Tapia**, Igantzikoa eta Berakoa, urtarrilaren 14an Igantzin.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Eñaut Bidart Zabaleta, Leitzakoa, urtarrilaren 17an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

André Falxa, Sarakoa, urtarrilaren 29an, 77 urte.

Francisco Baraibar Iturralde, Elizondo-Arizkun, urtarrilaren 19an, 80 urte.

Francisco Mendiburu Almandoz Panxito, Erratzukoa, urtarrilaren 22an, 92 urte.

M^a Teresa Santxotena Bidegain, Arizkungoa, urtarrilaren 20an, 67 urte.

M^a Concepcion Eskudero Aranburu, Elizondon, urtarrilaren 22an, 93 urte.

Jabier Lasarte Maia, Elbetekoa, urtarrilaren 24an, 87 urte.

Klara Arretxea Ibarra, Nartartekoa, urtarrilaren 25ean, 94 urte.

Margarita Telletxea Goikoetxea, Leitzakoa, urtarrilaren 25ean, 64 urte.

Fernando Lazkano Arrieta, Berakoa, urtarrilaren 27an, 72 urte.

Jose Felix Aletxa Barrena, Lesakakoa, urtarrilaren 28an, 63 urte.

Sor Monserrat Etxabarri Asiain, Elizondon, urtarrilaren 29an, 89 urte.

M^a Asuncion Miura Etxeberria, Erratzukoa, urtarrilaren 30ean, 76 urte.

Benanzia Bengoetxea Gamiotea, Leitzakoa, urtarrilaren 30ean, 93 urte.

Josefa Danboriena Sanzberro, Etxalarkoa, urtarrilaren 30ean, 89 urte.

Rekordatorioak egiten ditugu

ttipi-ttapa
Anduezbata, 12
ETXALARA | 948635458

Lorentxo PERURENA APEZETXEA
Fermina Loiarde Loiarteren alarguna
Goizeta: 1917/10/13-Iruña: 2011/02/05
I. URTEURRENA

*Zenbat neke gorri, zenbat esker on!...
Zenbat kontu xalo eta bertso airos!...
Segi horrelaxe, amarekin, goxo goxo.
Ametsetan gu zaintzen: xur, alai, oso....*

**ESKERRAK BIHOTZETZ, FAMILIAK,
LAGUNDU DIOZUEN GUZIEI**

Luciano IRIARTE AGUIRRE
1956/10/07-2011/01/20
I. URTEURRENA

*Urte luzea joan zaiguna,
aurrerantzean bide iluna,
zu gabe ezin bizirik arren Luciano,
gure bihotzetan utzitako maitasuna,
oroitzapen on eta berotasuna
diren guretatik argitasuna.*

ZURE EMATZEA ETA ALABAK

Otsailaren 19an Julen Kañamaresek kontra aizkora apustua jokatu du Xabier Mindegiak (Beintza-Labaien, 1984) Donezteben. 12:00etatik aitzinera, aizkolari bakoitzak

zortzi kanaerdiko eta bi oinbiko moztu beharko ditu. Alde bakoitzak 3.000 euro jokatu ditu eta desafioa Nafarroako Herri Kirol Federazioak kontrolatuko du.

Dopinaren kontrako proba ere pasatu beharko dute. Beintza-Labaiengoarentzat bigarren desafioa izanen da eta apustuaren atarian, nola dagoen jakin nahi izan dugu.

Xabier MINDEGIA | Beintza-Labaiengo aizkolaria

«Aurkaria egur haundiekin pixka bat deskuidatuko den itxaropena dut»

G. PIKABEA | BEINTZA-LABAIEN

Ikusmin haundia piztu du aurtengo lehenbiziko aizkora apustuak, nahiko parekatua izan daitekeela baitiote iragarpenek. Xabier Mindegiak eta Julen Kañamaresek (Arostegi, 1989) jokatu dute, beintzarrak egin dako deiari Kañamaresek baiezkua eman zion, eta hitzordua otsailaren 19an egin dute Donezteben, 12:00etan.

Apustuaren atarian, entrenamenduetan burubelari topatu dugu Mindegia. «Asko» entrenatzen ari dela aitortu digu, «besterik ez dut egiten, lana, entrenatu eta lo», dio irribarez. Eta eguna ailegatu arte ez omen du besterik eginen. Desafioa dela eta, ez omen dago urduri, nahiz eta «buruan beti pentsamendu horrekin» dabilen. Ez da guttiagorako. Izan ere, alde bakoitzak 3.000 euro paratu ditu jokoan, eta zortzi kanaerdiko eta bi oinbiko moztu beharko dituzte. Bi oinbikoak eta bi kanaerdiko Kañamaresek eramanen ditu plazara eta gainerakoak beintzarrak. Halaxe adostu baitzuten apustua hitzartu zutenean. Bere egurrak nolakoak izanen diren galdetzeraz ez gara ausartu. Are gehiago, galdetu gabe, ez duela erranen erantzun digu. Beraz, eguna ailegatu bitarte sekretua. Aurkariaren egurrak nola-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Xabier Mindegia aizkoran.

koak diren ere ezin izanen dugu aurretik jakin, baina Mindegiaren irudiko, «onak izanen dira».

Bere bigarren apustua izanen du Beintzako gazteak, lehenbizikoa Otañoren aurka jokatu baitzuen orain urte batzuk. Orduan ezin izan zuen irabazi, baina aldi honetan bi aizkolariak «berdintsu» ikusten ditu: «halere, egur haundiekin pixka bat deskuidatuko den itxaropena badut».

Gainerakoan, apustua dela eta, denetarik somatu du inguruan: «batzuk hainbeste diru jokatuta harrituak daude, beste batzuek ez duela me-

16 URTEREKIN AIZKORAN
«16 urte bete arte pilotan aritu nintzen eta ez nuela deus egiten ikusita, pilota utzi eta aizkoran hasi nintzen. Pixka bat moldatzen naiz eta moldatzen naizen bitartean, horrekin segituko dut»

APUSTUA BURUAN
«Apustua dela eta, ez nago urduri baina buruan beti pentsamendu horrekin nabil. Lana, entrenatu eta lo, besterik ez dut egiten».

rezi diote, baina batzuk animatu egiten naute».

PILOTATIK AIZKORARA

Etxean aizkora beti ezagutu duen arren, 16 urte bete arte ez zuen kirol hau probatu Mindegiak. Ordura arte, esku pilotan ibili zen: «16 urte bete arte pilotan aritu nintzen eta ez nuela deus egiten ikusita, pilota utzi eta aizkoran hasi nintzen. Pixka bat moldatzen naiz, eta moldatzen naizen bitartean, horrekin segituko dut», adierazi digu. Aizkoran hasi eta berehala nabarmendu zen, probatu zuen urte berean egin baitzuen txapelkete-

tarako saltoa; Nafarroako hirugarren mailakoan, hain zuzen. Martin aita izan zuen irakasle.

Gaur egun, berriz, aizkoraz aparte lanean ere badabil eta lana eta entrenamenduak egiteko nola edo hala moldatzen omen da: «lanarekin denbora guttiago izaten da entrenatzeko eta batzuetan ilunduta aritzen naiz, ahal den bezala». Bere asteko martxaren berri ere eman digu: «pare bat aldiz aizkoran aritzen naiz, beste pare bat aldiz mendira joaten naiz eta batzuetan gimnasia». Zaintzen dela ere kontatu digu, baina...: «juerga utzi dut, baina jatekoa pixka bat gehixeago ere begiratu beharko nuke». Aizkoran ongi moldatzen den arren, aurkari «asko» dituelakotan dago: «ni baino pus-kaz aizkolari hobeak bada». Eta aizkolari bat aukeratzekotan Donato Larretxea aipatu digu. Plaza, ordea, etxekoa: «Labaiengo plaza».

Apustuak baino nahiago omen ditu txapelketak, «apustuekin pertsona asko estutzen delako». Dena den, orain apustuari heltzea tokatzen zaio eta bere aldetik, hilaren 19an ahal dena egiten saiatuko da. Berea izanzen apusturako ideia eta berea izatea nahi du garaipena ere. Ea bada, gauzak nahi beza-la ateratzen zaizkion.

ERREMONTEA → JOSU BALEZTENA ERREMONISTA PROFESIONAL OHIA

«Min haundia somatzen nuen eta ezin nuen erremontean segitu»

Agur-omenaldia jaso du berriki Galarretan

TTIPI-TTAPA | ERATSUN

Esku pilotan Aspe enpresarekin ibili ondotik, 2008ko otsailean egin zuen erremon-te profesionalerako saltoa Josu Baleztena erantsundarrak. Ez zion, ordea, askorik iraun erremon-teko ibilbideak, eskuinteko eskumuturrean egindako eskafoide hausturak erremon-tea uztera behartu baitzuen. Hala, joan den urtarrilaren 26ko Erremon-te Galan agur-omenaldia egin zion Oriamendi enpresak Galarretan. Kontent hartu zuen eratsundarrak hori: «omenaldia jasotzeak ilusioa egin dit, ez naiz nabarmendu den horietakoa baina enpresa nirekin oroitu da eta espero ez nuen opari polita da».

Urrizarekin bikotea osatuz, Nafarroako Erremon-te Txapelketan ari zela hartu zuen min Baleztenak, eskumuturrean jasotako pilotakada baten ondorioz: «ez nintzen gelditu. Jokatzan segitu nuen eta finalera ailegatu ginen. Daukadan kirol oroitzapenik hobereña da», dio.

2010eko urrian ebakuntza egin behar izan zioten eta martxoan azaldu zen berriz pilotalekuetara. Hilabete eta erdi egin zituen. Mina, baina, jasanezina bihurtzen ari zen: «esku-muturreko mina haundia zen eta berriz geldi-



ARGAZKIA: ORIAMENDI

Urtarrilaren 26an omenaldia jaso zuen Baleztenak –ezkerretik hasita hirugarrena–.



ARGAZKIA: ORIAMENDI

Lehenbiziko Urrezko Erremon-tea Koteto Ezkurrarentzat

2011ko erremon-tista onenari emandako Urrezko Erremon-tea Koteto Ezkurra doneztebarrarentzat izan da. Urtarrilaren 26an Galarretan eman zen lehen aldiz sari hau eta Oriamendi 2010 enpresak honela saritu zuen Kotetoren urte bikaina. 38 urterekin, buruz buruko txapelketa ofiziala irabazi zuen Ezkurrak irail hasieran eta Orona buruz buruko Masterra urtarrilaren 7an. Gainera, binakako erremon-te txapelketan finalerdietaraino ailegatu zen Aizpurua II. arekin eta horregatik guztiagatik lehenbiziko aldiz eman den Urrezko Erremon-tea eskuratu zuen.

tu nintzen. Ezin nuen. Uztail hasieran berriz egin zidaten ebakuntza Madrilen, baina eboluzioa ez zen oso ongi joan eta erretiratzea erabaki nuen».

Eta geroztik ez da askotan joan Galarretara, lesionatua zegoela joaten hasi zelako eta gaizki pasatu zuelako: «jendeak beti galdetzen zi-

dan eta ez nuen ongi pasatzen. Gerora, deskonektatua egon naiz, nire munduan, eta orain, erretiratu naizela eta presio hori gabe, Galarretara joaten hasiko naiz».

Erremon-tea uzteak pena eman arren, garbi zuen «baldintza haietan ezin nuela segitu. Pilotari ematean min haundia somatzen nuen». Eba-

kuntza egin beste erremon-torik ez zuela izan ere uste du: «ebakuntza egin ez banu, lesioak okerrera egin izanen luke. Nahitaezkoa zen». Erretiroa goiz ailegatu bazaio ere, «enpresak nahi ez zaituelako uztea okerragoa izanzen zela» iritzi dio. Eta gaur egun, erremon-tea utzita, Iru-nen taxi-gidaria da.

FLASH

Migel Mari Urrutiak denboraldi baterako erremon-tea uztea erabaki du

Gaur egungo erremon-te profesionalen, pilotaririk onenetariko den Migel Mari Urruti saldiastarrak denboraldi baterako erremon-tea uztea erabaki du, «arrazoi pertsonalak» tarteko Mexikora bizitzera joatea erabaki duelako. Otsailaren 4an egitekoa zuen azken partida Urrutia I.ak, baina hori baino lehen, urtarrilaren 28an Oskar anaiarekin batera jokatu zuen, anaia gazteenak 2010ean profesioaletan debutatu zuenetik lehenbiziko aldiz. Baita irabazi ere. Urtasun eta Aizpurua II.aren kontra 40-38 irabazi baitzuten Urrutia anaiek. Oriamendi 2010 enpresak, bere aldetik, Saldias-ko atzelariaren lana eskertu nahi izan du eta «egunen batean itzultzea erabakiko balu, atek zabalik izanzen dituela» adierazi du.

Binakako Aizkora Txapelketaren bi kanporaketa ostiralean Leitzan

Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketak aurrera segitzen du, eta bi kanporaketa Leitzan jokatu dira ostiral honetan, otsailak 10. Zilarrezko eta gaztetxo-en kategoriako bi kanporaketa jokatu dira. Alde batetik, Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano, Jon Irazu eta Mikel Lasaren kontra ariko dira. Bestetik, berriz, Iker Vicente eta Mikel Olanok, Eneko Saralegi eta Julen Larrea izanzen dituzte aurkari. Lehia 19:30ean hasiko da Amazabal pilotalekuan.

otsailak 9 - 23

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Inauteriak



ESKUALDEA | 2012.02.16-21

Inauteri ofizielekin bukatuko da mozorrotzeko garaia

Urte hasieratik hainbat herritan dabilta mozorroak baina oraingoan inauteri ofizialen datak ailegatu dira eta herriz herri izanen dira disfrazak.

Kontzertuak



BAIGORRI | 2012.02.11

Erramun Martikorena eta bere lagunak Baigorriko elizan

Irulegiko Irratiaren 30. urteurrenaren ospakizunen karietarat Erramun Martikorena eta bere lagunak kantari ariko dira Baigorriko elizan.

Emanaldiak



LEITZA | 2012.02.17

Didgeridoo tresna australiarrarekin musika

Musika tresna australiarrarekin emanaldia eskainiko du Iban Nikolai musikariak Atekabeltz Gaztetxean.

Otsailaren 12an Aurera elkartean bertso merendua 19:00etan. Leitzaundi (Miel Mari Elosegi Luze, Iñigo Ibarra, Iñigo Sagastibeltza) vs. Bar-ideak (Jon Elizetxe, Iñaki Aleman, Kotte Plaza).

LESAKA

Bardoak 2012

Otsailaren 17an Arrano elkartean bertso afaria. Rimak Exkaxko (Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez, Eneko Fernandez) vs. Mailope (Aritz Saraguetza, Oskar Estanga, Miguel Angel Ortiz de Guzman).

Erakusketak

LEITZA

Guatemalako argazkiak Peritzan

Mikel Zabaletak Guatemalako indigenei ateratako argazki erakusketa zabalik da Peritzan.

Inauteriak

ARANO

Otsailaren 11n.

ARANTZA

Otsailaren 9tik 11ra.

IGANTZI

Otsailaren 10 eta 11n.

DONAMARIA

Otsailaren 10etik 12ra.

LEGASA

Otsailaren 9tik 11ra.

LEGASA

Otsailaren 17 - 18an.

SALDIAS

Otsailaren 24 - 25ean.

BEINTZA-LABAIEN

Otsailaren 11n.

URDAZUBI

Otsailaren 19- 21era.

BERA

Otsailaren 11, 15, 16, 19 eta 20an.

BAZTAN

Otsailaren 11n hasi eta 21a bitarte herriz herri inauteriak izanen dituzte.

DONEZTEBE

Otsailaren 16tik 18ra.

GOIZUETA

Otsailaren 18tik 21era.

LESAKA

Otsailaren 16tik 20ra.

ETXALAR

Otsailaren 19tik 21era.

LEITZA

Futbito taldearen festa Gaztetxean

Otsailaren 11n Atekabeltz futbito taldeak festa antolatuko du Gaztetxean.

Bertsoak

BERA

Bardoak 2012

Otsailaren 10ean Kaxerna Gaztetxean bertso afaria 21:00etan. Beratararak (Julen Zelaieta, Patxi Castillo, Aitor Elexpuru) vs. Leitzaundi (Miel

Mari Elosegi Luze, Iñigo Ibarra, Iñigo Sagastibeltza).

ANIZ

Bardoak 2012

Otsailaren 11n Anizko elkartean bertso afaria. Erauntsiak (Iker Gorosterrazu, Alazne Untxalo, Amaia Elizagoien) vs. Altzuri, Edurnezuri eta amaordeak (Iban Garro, Josu Sanjurjo, Ibar Tainta).

LEITZA

Bardoak 2012

PROPOSAMENA

NAFARROA

Bardoak 2012 bertso ekimena herriz herri

Abiatu da dagoeneko Bardoak 2012, aurten ohiko Nafarroako bertso txapelketa ordezkatzeko duen taldekako bertso ekimena. Joan den asteburuan zenbait saio egin ziren eskualdean, baina hurrengoetan ere izanen dira. Argazkian ageri diren Beratararak eta Leitzaundi taldeak aurrez aurre izanen dira ortziral arratsean Berako Kaxerna gaztetxean. Baina Anizen eta Leitzaundi asteburu honetan eta Lesakan eta Leitzaundi hurrengoan izanen dira saioak.



LEITZA

Bardoak 2012

Otsailaren 19an Gaztetxean bertso merendua 19:00etan. Leitza ta leitzarrak (Joxema Leitza, Jose Luis Barberia Zili, Mikel Azpiroz) vs. Jituk (Egoitz Gorosterrazu, Ander Fuentes Itturri, Maialen Belarra).

Ikastaroak

LEITZA

Jendaurreko saioak prestatzeko

Otsailaren 10ean «Entrenamendu mentala jendaurreko saioak prestatzeko» saio praktikoa eskainiko du Urko Arozenak 19:00etan Atekabeltz Gaztetxean.

Kontzertuak

BAIGORRI

Erramun Martikorena Irulegi Irratiaren alde

Otsailaren 11n Erramun Martikorena eta bere lagunak (Mikel Markez, Xabi San Sebastian, Mixel Ducau, Galtxetaburu, Arkaitz Miner, Ixabela Jaury, Mahastizainak, Kanti-ruki) kantuz, 20:30etik aitzinera Baigorriko elizan, Irulegiko Irratiaren

30. urteurreneko ospakizunen kariatarat. Txartelak salgai aitzinetik 12 eurotan Irulegiko Irratian eta Baigorriko Turismo Bulegoan. Tokiean berean 15 euro.

LEITZA

Didgeridoo emanaldia

Otsailaren 17an tresna australiarrekin emanaldia eskainiko du Iban Nikolaik 17:00etan Gaztetxean.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango

Mendigoizaleak

Otsailaren 12an Burkaitzea-Artesiaga-Sagardeai-Iturrioz-Karanton-Egozkue gaina-Utsesi-Lenaroz-Zubiri ibilaldia egingen da (07:00).

BERA

Labiaga Ttiki taldea Akozperat

Otsailaren 12an Akozperat ateraldia antolatu du Labiaga ikastolako Larun Ttiki menditalkoak. 09:30ean eta igandean 19:30ean.

Zinema

LEITZA

Zinemako saioak

Otsailaren 10 eta 12an *Melancolia* filma ikusgai zinematan. Emanaldiak ostiraletan 22:30ean eta igandean 19:30ean.

BERA

Film laburrak Gaztetxean

Otsailaren 17an film laburren emanaldia ("Zapatilla Films") eta disfraz besta Kaxerna Gaztetxean 22:00etan.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Haizelami

MITXEL MURUA
JOXAN ORMAZABAL
ELENA ODRIOZOLA
Elkar, 2011

Orain dela urte asko, bazen Haizelami izeneko itsas lamina gazte bat. Haizelamik emakumezkoaren gorputza zeukan, baina, hankak izan beharrean, izurdearen tankerako isatsa zeukan, itsas lamina guztiek bezala. Horregatik, bikain egiten zuen igerian Haizelamik, izurde bat ematen zuen. Itsas laminek oso ongi abesten dute. Eta Haizelami ere abeslari aparta zen. Haizelamik abesten zuenean, haizea ere dantzan hasten zen, harroharro eginda.

Elkarren Batela bilduman, 6 urtetik goitiko irakurleei zuzendutako istorioaren egileak Mitxel Murua eta Joxeantonio Ormazabal dira. Marrazkigilea, berri, Elena Odriozola. Muruak haur eta gazteei zuzendutako literatur lanak argitaratu ditu batez ere eta Pirritx eta Porrotx pailazoen ipuinen egilea da. Ormazabal irakasle izan zen lehenengo, editore ondoren. Urteak eta urteak haurrentzat ipuinak, poemak, kantak asmatzen eta itzultzen. Luzea da bere emari agortezina.

Musika



Gorantz erori

ANTTON
Baga-biga musika ideiak, 2011

Antton taldea 2011ko hasieran sortuko da Eloorrion. Lor taldeko abeslaria, Lander, eta Antton, aitzinetik bakarlarri modura aritutakoa, lehenik ere elkartu izan dira hainbat abesti biribiltzeko eta ikusi dute talde modura funtziona dezakela proiektuak. Gainontzeko taldekideak laster arrantzatuko dituzte. Rami (Lor), Txaber (Malo) eta hainbat taldeetan jo duen Mikel Nuñez. Ohartu orduko, hainbat kantu sorturik izatean hartzen du forma Gorantz Erori proiektuak. Antton taldearen lanak *Gorantz erori...* du izena. 2011ko irailean grabatu eta nahastu zuen Ondarroako Santos Records estudioan Mikel Santos soinu teknikariak. Aldo Gilardik masterizatu du Bartzelonako Hitmastering estudioan. Aiora Renteriak (Zea Mays) *Ohe hutsegiak* kantuan ahotsa sartu du. Sustrai Kolinak *Hartu arnasa* kantua idatzi du. *Maitasuna ixil ixilik* abestiaren hitzek Amets Arzallus, Sustrai Kolina eta Endika Zarrabeitiaren bertsoetan dute oinarri.

Internet



Aiton-amonek kontaktuta euskal herrien historia

WWW.NIEUSKALDUNA.METROO.ES

Euskal herrien historia gure aitonamonek kontaturikoa. Honela definitzen da «Ni euskalduna» bideoblog berria. Izan ere, aitaxi-amaxiek gogora ekartzen dituzte hainbat euskal herritako istorio txikiak. Gure herrien memoria gordetzea, euskalki desberdinak biltzea eta bidenabarkoan, aitaxi-amaxiek teknologia berrietara hurbiltzea dira proiektu berritzaile honen helburuak. Orain arte Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako hamar herrietako adinekoren istoriak bildu dituzte bideoblogean, baina herri arnizetatik elkarrizketak egiteko eskariak jasotzen ari dira. Beraz, proiektuak jaso duen harrera ona eta elkarrizketak egiteko eskari kopurua kontuan hartuta, etorkizunean Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko herrietara iristeko asmoa azaldu dute webgurearen kudeatzaileek.

Nire aukera



Carlos SEMPER
Berako Semper Autoeskolakoa

«Alpeak eta Norvegiako fiordoak gustora ezagutuko nituzke»

Autoeskolan goiz eta arratsalde aritu behar izaten du eta gelditzen zaion astian «kirola eta batera jotzea ditut gustoko. Mendingo ibiltzea gustatzen zait», dio Semperrek. Musikari ere izana da, baina duela urte batzuk utzi zion taldean jotzeari, «baina tarteka grina kentzeko Zizkuitz txarangakoekin elkartu eta saio batzuk egiten ditugu. Urtean behin ez dugu hutsik egiten Santa Zizili egunean. Talde batek deituz gero gustora hartzen dut». Kontzertuetara nahi baino guttiago joaten da eta etxean «azken urte hauetan Pirritx, Porrotx eta Marimotots dira nagusi beraz ahal dudanean nere gaztetako taldeak entzuten ditut». Asteburuko planik egokiena, «kotxea aparkatu, goizean mendian buelta ederra eman eta arratsaldean familiarekin herrian bueltaxka ematea» dela aipatu digu. Sobera bidaiaria ez bada ere, Parisera egindako bi daia gogoratzen du eta «Alpeak eta Norvegiako fiordoak» gustora ezagutuko nituzke.

ETXEBIZITZAK

salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

LESAKA. Herri erdian apartamentua salgai. Berrria eta aukera oso ona. ☎943 636209/ 605 717999.

ORONOZ-MUGAIRI.

100 m²ko etxebizitza salgai. Mobeztatua. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, jaki-gordailua eta kanpora ematen duen trastelekua, urbanizazio pribatua, lorategi handia, aparkalekuak guztientzako eremuan. 220.000 euro. ☎620 679145.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.


ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE. Bi pisu salgai, 2 eta 3 logelakoak. Sartzeko prest. 96.000 euro eta 108.000 euro. Aukera paregabea. ☎649 472658.

ARESO. Sastizar baserri-landetxea salgai, 25.000m²ko lur eremuarekin. ☎649 707584.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ITUREN. 90m²ko pisua salgai: 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, garajea eta trastelekuarekin. Oso egoera onean eta guztiz mobeztatua. ☎637 145801.

LEITZA. Amazabalen pisua salgai. Oso egoera onean, bizitzera sartzeko prest. 90 m²ko pisua: sukaldea, bainugela, egongela, 3 logela handi eta trastelekuarekin. Igogailua jarri berria eta berogailuarekin. Aukera ezin hobea. Ikus ezazu. ☎649 208310.

ELIZONDO. Maurizio Berrekoetxean (eliza gibelan) pisua salgai. Eguzkitsua, 2 logela eta bainugela, egongela, sukaldea eta balkoi ederra. Aparkatzeko plaza eta trastelekua. Igogailua aparkalekutik sabairaino. ☎628 544929.

DONEZTEBE. Ogiberri gainean, pisua salgai. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta traste-

lekua. 36m²ko terraza bikaina, oso eguzkitsua. Denahegoaldera. Prezio berrria. ☎656 770373.

DONEZTEBE. 2 logelako pisu berrtua salgai. Berogailuarekin. 15 m²ko trastelekua. ☎630 160353.

IGANTZI. 70 m²ko pisu berria salgai, 2 logela, bAi-nugela, kalefakzioa, marra garajea eta trastelekua. Oso argitsua. 180.000 euro. ☎670 218613.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

ELIZONDO. Logela bateko apartamentua errentan emateko, igogailu, garaje plaza eta trastelekuarekin. ☎650 095167.

BERA. Itzea karrikan, 3 logelako pisua errentan emateko. Eguzkitsua. Igogailuarekin. Garaje plaza-
rekin. 500 euro hilabete-
an. ☎669 954135.

BERA. Kanttonberri karrikan pisua errentan emateko. Sukaldea eta egongela lurreko suarekin, 3 logela, bainugela eta trastelekua. Igogailuarekin. Egoera onean. ☎652 700200 / 615 733468.

ETXALAR. Etxebizitza errentan emateko. ☎948 635137.

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

BORTZIRIAK. Bikote gazte bat pisu bila dabil Bortzirietan errentan hartzeko. Mobeztatua alaba. ☎675 892903.

Inguruan **etxea edo baserria** errentan hartuko nuke. ☎626 149164.

LOKALAK/GARAJEAK

errentan eman

LESAKA. Albistur karrikan, lur azpiko garajea

errentan emateko. ☎618 962937.

LANA

eskariak

Emakume batek aste-buruetan ostalaritzan zerbitzu extrak eginen lituzke. Euskara eta frantsesa dakizkiena. Zerbitzari moduan esprirentzia duena. ☎679 210910.

Neska tituluduna ile-apaindegiren batean lan egiteko prest, edo haurrak zaintzen. ☎607 750553.

Emakume batek adineko jendea zainduko luke interna moduan. ☎667 230372.

LANA

eskaintzak

BERA. Ibardingo jatetxe batean lan egiteko jendea behar da. ☎948 630708. Faxa 948 630754.

ANIMALIAK

salgai

Ahuntz enanoa salgai. ☎618 562173.

ANIMALIAK

erosi

Ahate arra erosiko nuke. ☎948 580231.

DENETARIK

salerosketak

Haritz amerikar eta grezi landareak salgai. ☎948 450888 (deitu eguerdian eta arratsaldetan).

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(urtarrilaren 20tik 27ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 43,00 € (=)

Zerri gizena
1,102 € kilo. (=)

Zerramak:
0,460€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,49 (=)

1.koa 4,19 (=)

2.koa 3,95 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,55 (=)

1.koa 4,27 (=)

2.koa 4,17 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 100,00 (=)

idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 110,00 (=)

idixkoak 120,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,91/3,01

Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,80/6,20

8-10 kilokoak: 4,60/4,80

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.

Remolkea salgai. Patrolaren gurplekin. 750 kilorentzako. ☎629 417078.

Belar bola idorrrak salgai. ☎660 393436.

Gasoliozko **makina ja-sogailua** salgai, fenwick markakoa. ☎948 452078.



ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.

EHIZAKO eskopeta parraleoa salgai, JZ markakoa, kanporatzaileekin. 400 euro negoziagarri. ☎619 283278.

LEITZA. Plato dutxa berria salgai. Fiora etxekoa eta Silex materialekoa. Neurria 160x65 eta 4 cm-ko altuera. Txuria. Prezioa: 450 euro. ☎650 217127.



SANTESTEBAN Tailerrak

SCENIC PRIVILEGI 1.9 DCI 130CV 2007 urtekoa - 51.000km	MEGAN II EMOTION 1.6 DCI 110CV Synchroniz. gabe!!! 2007 urtekoa - 51.000km	KANGOO DYNAMIQUE EL. 450/1.5 DCI 105 CV 2007 urtekoa - 51.000km
	ETA GAINERA Kangoo Express 1.5 DCI 88 CV Nissan Ark 1.6 15 CV Nissan Note 1.6 20 CV Citroën II Dynamique 1.4 DCI 130 CV - 3000 Sala Termino Globala Calera 441 Citroën C-15 1.8 D 88 CV Mopar II Dynamique 1.6 DCI 110 CV - 3000km Suzuki Grand Vitara 2000 JCB	
CLIO EMOTION 1.5 DCI 102CV 2007 urtekoa - 45.000km	DONETZTEBEN RENALT-ek KOTZE SA BERRITAN SEKULARD ESKANTZAK	

ELIZONDO. Gitarra amplifikadorea 50 W balbulatarkoa salgai. Pantaila ere salgai. ☎620 468282.

Sukalde ekonomikoa salgai. Arruntegoera onen. ☎660 081754 (gauetz deitu).

Non apertu nahi duzu?
agur eta onak
www.ttipi.net
BARRERA 8

otsaileko
zk. jarritua
1.574

Bi lagunendako otordu bat Elbeteko Posadan

Sartuak hainzen 29a batso lehen deitu behar du
Bortuztetako Hiri Hondakinetan Mankomunitatera

948 63 52 54

IRUDI KORPORATIBOA Ekipam. erori nahi dituzuegu gurean konfiantza jarzteagatik zuen LOGOTIPOAK, TARJETAK, FOLETUAK, KARPETAk, GUTUNAZALAK, FAKTURAK, KARTELAK, EGUTEGIAK, IRUDI KORPORATIBOAK.

ttipi-ttapa Euskarara
ZERBITZUA | Din-Milakun
LOGOTIPOAK, TARJETAK, GUTUNAZALAK | Din-Milakun

TARJETEN DISEINUAK + PERTSONALIZATUAK

LOGOTIPOAK
FOLETUAK
KARPETAk
GUTUNAZALAK
FAKTURAK
KARTELAK
EGUTEGIAK

AURREKONTUA ESKATU KONPROMISURIK GABE

LOGOTIPOAK Din-Milakun
BILTZEAK Din-Milakun
BILTZEAK Din-Milakun

● PAUTONE 200C
● PAUTONE 1870C
● PAUTONE 1870C
● PAUTONE 1870C

● BILTZA 500
● BILTZA 500
● BILTZA 500
● BILTZA 500

T. 948 635 458 info@ttipi.net www.ttipi.net Anduetzeta, 12 - ETXALAR


urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



Urdazubiko IZARO ETXEGARAI eta **MIREN OIARZABAL** iloba-izebak urtarriaren 8an eta 26an urteak bete dituzte. Zorionak pixpiretak! Aiora eta Nahia.



Legasako **GAXUXA ZELAIETA** **EULATEK** 5 urte beteko ditu otsailaren 18an. Auniz urtez eta muxu handi bat lgartziko familiaren partetik.




Lesakako **UNAX BEREAU** **IRIGOIEN**ek 4 urte beteko ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta muxu handi bat Lesaka eta Iturengo familiaren partetik.



UNAX BEREAU **IRIGOIEN** lesakarrak 4 urte beteko ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta muxu bat Enaitzen partetik. Ongi pasa zure eguna!




Goizuetako **UXUE** **AIZKORBE** **HERRE**RAK otsailaren 21ean beteko ditu 5 urte. Zorionak etxeko printzesarentzat eta muxu asko denon partetik.



Goizuetako **URKO APEZTEKOA** **Lujanbiok** urtarriaren 22an 13 urte egin ditu eta Iturengo **ARITZ** eta **GARAZI INIGO** **Lujanbiok** urtarriaren 29an urtea egin dute. Zorionak!




Zorionak Beintza-Labaiengo **AINHOA** eta **Ibairi** urteak beteko dituztelako otsailaren 10 eta 7an. Muxu potolo bat Labaiengo familiaren partetik. Pasta eta kafetxoaren zain geldituko gara.



AINHOA ZUBIALDE **GRAJIRENAK** urteak beteko ditu otsailaren 10ean. Zorionak izeba! Noiz eta nola ospatuko ditugu? Gu hemen zain geldituko gara, nahi baduzu txokolate bat hartzen ahal dugu, hori bai, zuk ordainduta! Xune, Mirari, Unai, Jone, Aimar eta Lander eta Irungo familia.



MAITE ETXENIKE gartzaindarrak urteak beteko ditu otsailaren 16an. Zorionak eta auniz urtez! Muxu potolo bat eta egun ederra pasa!



MAIALEEN urtarriaren 27an 2 urte bete zituen. Auniz urtez gure printzesari eta mila muxu potolo Kaxkarra guztien partetik.



Etxalarko **MARIANJELESEK** urteak bete ditu otsailaren 1ean. Zorionak zure urtebetetzean Iturraldekobordako familiaren partetik.



GIXANE TELLETXEA etxalartarrak 4 urte bete ditu otsailaren 7an. Zorionak atta, ama eta Keparen partetik.



OIHAN LUJANBIO SANCHEZ sunbildarrak otsailaren 5ean 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat amatxoren partetik.



OIHAN LUJANBIO SANCHEZ sunbildarrak otsailaren 5ean 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik eta bereziki Edumeren partetik.



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarrek 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ea berendu ona prestatzen duzun!

t tipi txartela

harpidetza baino merkeagoa da

+

t tipi-ttapa aldirkaria doan
42 dendetan deskontuak
hamabostero zozketarizugarnak

TTIPI-TTAPAren urteko kuota: **31 euro** balio du.

TTIPI TXARTELA duzuek, **30 euro** pagaturiko dute urtearen lekuaner.

Errentaren Aitorperarekin 10 euro itzudiko baitzate

40euro

-

10euro

30euro

225eko deskontuak
errentaren
aitorperaren

AUTO eta **BIZIKLETA** salerak: Benzina / Gasolina / Kitea-Bike / Dieselera / Zuzen-Iturri
AUTO ERKOLAK: Sempor: **ARRAZKI-DENDAK**: Ayla / Gorka / Mami / Zaitza
ARROPA-DENDAK: Bakika / Ederra / Pandoa / Ispig / Xara / Pandoa / Kattalagorri / Nikusa
BIXI-DENDAK: Etxeak: **ESTETIKA ZENTRUAK**: Annes / Arribe: **EYXETRESNAK**: Aitzol.
HAHURREN GAUZEN DENDAK: Pandoa: **JATEXTEAK**: Pandoa ORU / Etxeak / Pandoa.
KINOLDEGIAK: Lesakako Uste: Nivalego: **KINOL-DENDAK**: Aiora / Iparra / Zeta.
LENTZERIAK: Kattalagorri / Maresuz: **LIBURU-DENDAK**: Nivalego / Mami.
NUTRIZIOA eta **DIETETIKA**: Oria / Koroa / Filia: **OPARI-DENDAK**: Aizola.
OPTIKAK: Izturi / Enari: **PERTSIAK**: Nivalego: **TINDATEDIAK**: Zuzen.
ZAPATA-DENDAK: Oria / Terebia

OTZAILAK 11 LUR DJOTAK
01:00 - 02:00 DOHAINIK
02:30etatik aurrera 9€ eta kontsumizio hartuarenatik 03:30ak arte

OTZAILAK 18 INAUTERIAK
01:00 - 02:00 DOHAINIK
02:30etatik aurrera 9€ eta kontsumizio hartuarenatik 03:30ak arte

OTZAILAK 25 JOSEINA DJ + GOGOS
0€ eta kontsumizio hartuarenatik 03:30ak arte

garagarategia Ostrik, larrietan eta jarduera berezietan
entzuten da, inoiz ere

2012 bardoak

nafarroako taidekako bertso ekimena

SATIAK

- OTZAILAK 10 OTZILAK
- Berro Saverna gasteleak,
21:00etan, bertso afaria.
Berzatarak (Berri) - Leitzaundi (Leizoa)
- OTZAILAK 13 LAPURDIA
- Anate Herriarte elkartean,
21:00etan, bertso afaria.
**Erantz (Malerria/Oreoa),
Altairi, (Oinaburu) eta amandak (Lesaka)**
- OTZAILAK 20 IGARDEA
- Leitzaoko Aurrera elkartean,
19:00etan, bertso dierondua.
Leitzaundi (Leitza) - Sui-Ionek (Bastan)
- OTZAILAK 27 OSTIALA
- Lesakako Arrano elkartean,
21:00etan, bertso afaria.
Imak (Eskabai) - Wellok (Aradiz/Imola)
- Leitzaoko Aurrera elkartean,
21:30etan, bertso saba.
Leitza eta Leitzaiek (Leitza) - Jusu (Malerria)

www.BARDOAK.COM

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

558. ALEKO IRABAZLEAK

- * PUPU ETALORE CDa ! Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Nerea Zelaola Mikolarena | LEGASA
- * AQUARIUM 2 SARRERA
Auren Irazoki Artola | BETA
- * URTXINTXA ESKOLA PUNPALAPLAN CD + DVD
Jatone Eskurza Sarratea | DONOSTIA
- * EREIN 2 LIBURU
Zakuaren gutxi | M^o Dolores Albizu | LESARA
Marta | Tere Elizogorri Bastarrika | ELIZONDIO
- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
Marife Irazoki Dendarleta | ZIGARRIAMUNDI
- * LANKU GU TA GUTAIKAK CDa
M^o Jesús Muteberria Galtzagorri | LUNBUJA

ttipi txartela

88 ttipi txarte

Auzara Mendogia
40200 ATX
Telefonoa: 948 63 54 58
R. 21618

**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquarium2ss.com



ekar

LIBURU BAT
Elkar argitaletxea
www.elkar.com

TTIPI SASKIA



PRODUKTUAK:
IBAZABAL ARGIALETXEA
EREIN ARGIALETXEA
TTARTTALO ARGIALETXEA



Orinart

KAMISETA BAT
Orinart denda
www.orinart.com



Lanku

HAINBESTE, HAIN GITXI CDa
Lanku argitaletxea
www.lanku.com

DESKONTUAK

ZALAIN MOTOR
%5 errekarbituetan

ERIKOEN ZELA
%5eko deskontua

oreka
%5 kontsulta eta produktuetan

txinella
%10eko deskontua

ELBETEBO POSKDA
%10, Kartan,
30etik gorako
gastuan